

Araba

Herri Programa

2023 – 2027 LEGEALDIA

ehbildu

ehbildu

Aurkibidea

0. Sarrera: Arabak aurrera egin dezan, marka ezazu norabidea.....	6
1. Kultur Balioak.....	7
1.1. Gobernantza Eredua Berria: feminista, parte hartzailea, hurbila eta gardena.....	7
1.1.1. Gobernantza Feminista	7
1.1.2. Politika feministak.....	8
1.1.3. LGBTBI+ politikak.....	12
1.1.4. Gardentasuna eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea ...	15
1.2. Euskara	16
1.3. Gazteria	22
1.4. Kultur aniztasuna	30
1.5. Garapenerako lankidetzak.....	34
1.6. Memoria Historikoa	36
1.7. Laikotasuna	38
2. Herritarron Ongizatea	40
2.1. Gizarte Zerbitzuak	40
2.1.1. BiziOn Adinekoak	41
2.1.2. BiziOn Desgaitasuna	41
2.1.3. BiziOn Inklusioa	42
2.1.4. BiziOn Adin Txikikoak eta Familia	42
2.1.5. Gizarte Ongizatearen Foru Erakundea (GOFE)	43
2.1.6. INDESA	43
2.1.7. BiziOn Landa Eremua	44
2.2. Dibertsitate Funtzionala	44
2.3. Osasungintza.....	49
2.4. Kultura	50
2.5. Kirola	57
2.6. Arabako Suhiltzaileak Foru Erakundea	64
3. Aberastasunaren Banaketa.....	66

3.1.	Politika Fiskala.....	66
3.1.1.	Balantzea.....	66
3.1.2.	Berehalako neurriak 2024rako	68
3.1.3.	Zerga erreformarako proposamenak.....	70
3.2.	Funtzio Publikoa	78
3.3.	Oinarrizko produktuen prezioen kontrola	81
4.	Lurralde Oreka.....	83
4.1.	Despopulazioa.....	83
4.1.1.	OREKA - Arabako Landa Eremuaren Biziberritze Agentzia	83
4.2.	Toki Erakundeen ahalduntzea	88
4.2.1.	Toki Erakundeak	89
4.2.2.	Abagune Plana	89
4.2.3.	Zerbitzuen unibertsalizazioa.....	91
4.2.4.	Arabako Toki Erakundeak indartzea	91
4.3.	Landa Eremuko Etxebizitza Politika.....	92
4.4.	Kuadrillak.....	94
4.4.1.	Lautada.....	94
4.4.2.	Aiaraldea.....	95
4.4.3.	Gorbeialdea	95
4.4.4.	Añana	95
4.4.5.	Mendialdea	96
4.4.6.	Arabako Errioxa.....	96
4.4.7.	Trebiñu	97
5.	Klima Erronka, Energia Trantsizioa eta Eredu Sozioekonomiko Berria.	97
5.1.	Erronka Ekosoziala.....	97
5.1.1.	Energia Estrategia.....	103
5.1.2.	Hondakinen Tratamendua	104
5.1.3.	Ur Masen Kudeaketa	105
5.1.4.	Bioaniztasunaren Zaintza	106
5.1.5.	Mugikortasun Eredu Berria	107
5.2.	Lehen Sektorea	111
5.3.	Ehun sozioekonomikoaren birmoldaketa	119

ehbildu

5.3.1.	Industria	124
5.3.2.	Foronda-Logistika	130
5.3.3.	Merkataritza	130
5.3.4.	Turismoa	131
5.3.5.	Enplegua	132

0. Sarrera: Arabak aurrera egin dezan, marka ezazu norabidea

2023. urtea erabakigarria izango da Arabaren etorkizunerako. Urte erabakigarria izango da herrialdea geldialditik ateratzeko, eta arlo sozialean zein ekonomikoan eta ongizatean erreferentzia-galera geldiarazteko. Aurten erabakiko dugu zein norabide hartu eta, beraz, Arabak aurrera egingo duen ala geldirik jarraituko duen ere erabakiko dugu.

Hainbat dira lurraldeak dituen erronkak, eta horiek ebatziko dute arabarron ongizatearen etorkizuna. Premiazkoa da prezioen gorakadari eta erosahalmenaren galerari aurre egitea, herritar guztion bizi duinak bermatzeko. Trantsizio energetikoari ere aurrera eraman behar dugu klima-aldaketa saihesteko, eta herrialdearen ehun sozioekonomikoa garai berrietara egokitu behar da. Herritar guztion ongizatea bermatu behar da zerbitzu publikoak indartuz eta aberastasuna banatuz. Eta hori guztia lortu behar dugu herrialde osoan, desorekarik gabe, hiriburuan bai, baina baita Arabako herri txikienetan ere.

Ez da haserreetarako garaia, ez da zirku politikoen garaia. Neurritz jarduteko eta proposamen sinesgarriak egiteko garaia da. Norabide zehatza ezartzeko unea. Proposamen fidagarri eta ziurren garaia da, ziurgabetasunari aurre egiteko. Proposamen kolektiboak, kontrastatuak eta sinesgarriak behar ditugu. Horretan ari da lanean EH Bildu azken urteotan: Arabarako etorkizuneko proiektu bat osatzen. Proiektu horrek apaltasuna eta elkarrizketa eskaintzen ditu, harrokeriaren aurka; iniziatiba eta dinamismoa, inertziaren aurrean; hurbiltasuna eta ahalduntzea, paternalismoaren eta zentralizazioaren aurka; babes sistema publiko eta unibertsala, oinarritzko eskubide eta zerbitzuen suntsiketaren aurka; aberastasunaren banaketa eta justizia soziala, pribilegioen eta bazterkeriaren aurka; aukera berdintasuna eta zintzotasuna, adiskidekeriaren eta ustelkeriaren aurka; herrialdearen babesa, planifikazioa eta proportzionaltasuna, inprobisazioaren eta gehiegikeriaren aurrean.

Betikoak ez du balio. Araba zutik ipini behar da, eta ibiltzen hasi. Zutik ipini eta bide berriak ibiltzen hasi, irtenbide berriak emango dituzten lidergo berriekin eta gehiengo berriekin. Arabak aurrera egin dezan, marka ezazu norabidea.

1. Kultur Balioak

1.1. Gobernantza Eredu Berria: feminista, parte hartzailea, hurbila eta gardena

1.1.1. Gobernantza Feminista

Legealdiko Balantzea. Egoera

Gobernantza hitza grezieratik omen dator. Itsasontzi ala gurdia gidatzea adierazteko erabiltzen zen “kybernao” hitza. Baina gaur egun ematen zaion esangura, 1990. hamarkadan hasi zen erabiltzen eremu akademiko anglosaxoietan, instituzioen gobernatzeko moduari buruz hitz egiteko. Kontu publikoak kudeatzeko, gizarte zibilaren parte-hartzean oinarritutako gobernatzeko era berri bat sustatu nahi zen gobernantza hitza baliatuta.

Araban asmo horretatik urrun gabiltza oraindik. Amaitu berri den legealdian, Araba Helburu Plana izan da gobernantza berri hori etaherritarren partaidetza bultzatzeko asmoz burutu den ekimen nagusia. 2022ko ekainean aurkeztu zuten plan horren ondorioen txostena. Bertan irakur daiteke Araba Helburu Plana, “Araba eraikitzeke prozesu partekatua” dela, “Arabako Foru Aldundiak lurraldeko gobernuaren gizarte-erantzukizuna etengabe irekitzeko duen konpromisoa” adierazten duela, “ikuspegiak partekatzeke eta ekimenak identifikatzeko aukera” dela... Eta plan horren helburua dela “Aldundiak berak hartzen dituen erabaki politikoetan laguntzen duen gida bat eta gobernu irekiko tresna bat sortzea, lurraldeko enpresak, elkarteak eta erakundeak buru diren proiektuak garatzeko”. Esaldi ponpoxoak, baina gobernantza eta partaidetzaren inguruan lortu den emaitza bakarra da, helburu orokorren zerrenda amaigabeak biltzen dituen dokumentu bat.

Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) hartu zituzten oinarri, Arabako 17 helburu identifikatzeko eta hauek oinarritutako “egiturazko 12 erronka” zehaztu zituzten. Erronka horietatik 4ekin soilik erlazionatuta omen dago Gobernantza eta Partaidetzaren gaia: 1) Digitalizazio prozesua bultzatzea, 2) Lurralde kohesioa lortzeko aurrera egitea, 3) Gizarte kohesioa indartzea eta 4) Bizikidetzaren balio berriak zabaltzea. Badirudi, gobernantza ez dagoela erlazionatuta honako gai hauekin: I+G+b arloko inbertsioa, trantsizio energetiko eta klima aldaketa, ekonomia zirkularra, lehen sektorea, adineko pertsonak, talentua, kultura eta berdintasuna. Argi dago, legealdi honetan, gobernantza eta herritarren partaidetza urrundu nahi izan dituztela, garapen ekonomiko eta sozialarekin erlazionatutako hausnarketa eta erabakiguneetatik.

Dokumentua osatzeko, gaian adituak diren 7 pertsonaz (estrategia, ezagutzaren kudeaketa, zientzia eta berrikuntza, politika publiko, gobernantza eta hirigintza arloekin loturiko esparru pribatu zein publikoko profesionalak) osatutako lantalde bat eratu

ehbildu

zuten, bi orduko 2 saio burutu zituen. Horrez gain, gobernantza eta partaidetzari buruzko proposamen zehatzak jasotzeko asmoz, 16 pertsonari bidali zitzaion 24 galdera zituen inkesta bat eta 7k erantzun zuten. Horraino plana diseinatzeko herritarren partaidetza.

Eta herritarren partaidetza Batzar Nagusietan murrizteko jarrera eman da ere legealdi honetan. Horren adibide da, hainbat eragile sozialen agerraldia eskaerei ezarritako betoa.

Ezin ahaztu, ordezkaritza bidezko demokrazia patriarkalean bizi garela. Eta datuak ikusita, amaitu berri den legealdi honetan egiaztatu daiteke gobernantza ulertzeko eredu patriarkala txertatuta dagoela bai Arabako Foru Aldundiaren egituretan eta jardunean bai Batzar Nagusien funtzionamenduan. Goitik beherako jerarkiaren arabera ulertzen da gobernantza, elite ekonomikoen eta politikoen parte-hartzea bultzatzen du, finean, boterea metatzen duen gobernatzeko era dugu indarrean Arabako lurraldean.

Aurrera Begirako Ildo Nagusiak

Horren aurrean, Arabako politikagintza feminista bihurtzeko erronka da gurea. Gobernantza feminista jendarte osoarentzako onuragarriak diren bestelako balioetan oinarritzen delako.

Gobernantza feminista elkarlanean egiten da, kooperazioan oinarritzen da, pertsonen bizi baldintzak hobetzeko eraldaketaren zerbitzurako tresna gisa ulertzen duelako boterea. Herritarren artean banatzen da boterea, erabakiak hartzeko guneak deszentralizatzen direlako.

Lidergo feminista, pertsonen arteko erlazioetan oinarritzen da, lidergo partekatuak bultzatzen ditu, interdependienteak diren lidergoak.

Bide horretan, parte hartzerako espazioak sortu beharko ditugu, deszentralizatuak, ordutegiak eta biltzeko erak moldatuz herritarren denborak kontuan hartuta, partehartze erreala bermatzeko mekanismoak martxan jarritz, adin guztietako pertsonak erakartzeko bitartekoak ezarritz...

Azkenik, jendarte heterogeneoan bizi garela jakitun, ezinbestekoa da guretzat, aniztasuna bermatzea erakundeetan, partehartze guneetan eta erabakiguneetan kontuan hartuta izan daitezen, sexu-genero identitate, arraza, etnia, kultura edo aniztasun funtzionala dela medio, pertsona guztion beharrak. Bizitza duinak bizi ahal izatea da gure jomuga.

1.1.2. Politika feministak

Legealdiko Balantzea – Egoera

Feminismoak politika publiko guztiak busti behar ditu, hau da, feminismoaren zeharlerrotasuna bermatu behar da. Baina ez da horrela izan, Aldundiak zentzu

honetan ez ditu neurri ausartak eta eraldatzaileak bultzatu, Berdintasuna ez da EAJ eta PSEren lehentasuna izan, are gutxiago feminismoa. Horren adibide garbia da, EAEko lurralde bakarra garelako Berdintasun Foru Araurik ez duena.

Horretaz gain, aipatu beharra dago zerbitzuaren egoera kaxkarra. Hasteko eta behin, ez daukagu Berdintasun zerbitzu edota zuzendaritza eskusibo bat. Baizik eta popurri bat den zerbitzu bat daukagu: Berdintasuna, Lankidetzaren eta Kulturartekotasun zerbitzua, alegia. Gainera 2007tik ez da aldatu berdintasunera dedikatzen diren langileen zerrenda, soilik 2 lanpostu daude berdintasunera dedikatzen direnak.

Indarkeria matxistari dagokionez, aurreko legegintzaldian iragarrita zeuden baliabideak garatu dira: CARME (Centro de acogida residencial de media estancia) eta CAI 2 (Centro de acogida inmediata). Hala ere, lurralde osoa hartuko duten arreta integralerako zerbitzuen falta somatzen da.

Jabekuntza eta ahaldunderako Laia Eskolari erreparatu, egikaritzen dituen jarduerak eta ekintza kopurua handituz doa, hala ere, zerbitzu estrategikoa izanik hainbat desoreka daude eskualdearen arabera eta horri aurre egiteko hausnarketari heldu beharko zaio.

Aurrera Begirako Ildo Nagusiak

Bizitzaren iraunkortasuna eta gobernantza feminista politika publikoen erdigunean kokatu behar dira. Horretarako hainbat gako:

I. Politika publikoak eraldatzea:

- » Zeharkako ikuspegi feminista garatu eta ezarri. Horretarako beharrezko egiturak sortuz: Berdintasunerako zuzendaritza, Berdintasunerako organismoa eta berdintasunerako departamentu unitateak. Gutxienez, aurrekontuaren %1 zuzendaritza honi bideratuz.
- » Kuadrilletako Berdintasun Teknikarien sarea indartu eta egonkortu, Aldundiko zein zerbitzu propioa dauzkaten udaletako teknikariekin koordinazioa hobetuz. Baita mugimendu feministarekin eta emakume elkarteekin, eurekin elkarlana sustatzeko.
- » Parte hartzerako gune lotesleak gaitu.
- » Kontratazio eta diru-laguntzetan nahitaezko genero klausulak txertatu eta horiek betearazteko jarraipen tresnak ezarri.

II. Emakumeen parte hartzea soziopolitikoa indartzea:

ehbildu

- » Mugimendu feministarekin eta emakume elkarteekin elkarlan eta partehartzerako prozesu eraginkorrak ahalbidetu.
- » Emakume etxeak, jabekuntza eskolak edota ekintza politika feministarako guneak sustatu.
- » Emakumeak ahalduentzeko proiektuak sortu diskriminazio bikoitzak edota hirukoitzak jasaten dituzten kolektiboei arreta berezia eskainiz.
- » Kontzejuen Foru Araua feminismotik gaurkotzea, tokian tokiko entitateek sexu-genero identitate guztien arteko berdintasuna bultzatzeko eta bermatzeko eskumenak izan ditzaten.

III. Zaintza sistema publiko komunitario eratzeke baldintzak sortu:

- » Bizitzaren jasagarritasuna Aldundiaren jardueraren erdian jarri.
- » Hortik abiatuta, “zaintzaren eguneroko politika” izenda daitekeenaren sakoneko eraldaketa dugu helburu. Ere mu instituzionalean errotiko aldateten aldeko apustua eginez osatu nahi dugu. Horren ildoan, zaintzarako eskubide kolektiboa posible egingo duen euskal sistema publiko-komunitarioaren aldeko bideari ekinez.
- » Zaintzaren konplexutasunari heltzeko behetik gorako prozesu zabalak behar dira, hurbileko errealtateari lotuta, bereziki emakume langileen eta komunitatearen partaidetzarekin eta gertuko erakunde eta herri mugimenduko eragileekin.
- » Sistema publikoak zaintzarako eskubidea bermatu behar du, guztion eskura jarritz. zerbitzuak guztion eskura egon behar dira. Publikoak unibertetsala eta bidezkoa izan behar du.

IV. Emakumeen autonomia ekonomikoa bultzatu:

- » Prestakuntza eta enplegu planak garatu prekarizazio eta egoera zaurgarrietan dauden emakumeentzat.
- » Ama bakar edo autonomia ekonomiko gabeko emakumeei zuzendutako ekintza positiboak aktibatu.

ehbildu

- » Aldundiaren kontratazioetan garbiketa eta zaintza arloetako langileen lan baldintzak hobetzeko eta duintzeko neurriak hartu.

V. *Indarkeria Matxistarik gabeko gizartea helburu:*

- » Indarkeria Matxistaren biktimen arreta integralerako egiturak sortu.
- » Emakumeen arreta integralerako baliabide nahikoak edukiko dituzten egitura jasangarriak sortzea, landa eremuetan (Trebiñu barne) ere zuzeneko arreta eta kalitatezko zerbitzuak eskainiz.
- » Indarkeria matxistaren aurkako sentsibilizazio kanpainak bultzatzea, gizarte talde guztiei egokituak eta mugimendu feministarekin adostuak.
- » Emakumeen eta adin txikikoen aurkako indarkeria kasuen prebentzioan eta kudeaketan diharduten foru profesionalen nahitaezko genero prestakuntza jarraitua sustatzea ikuspegi feminista batetik.

VI. *Askatasun afektibo sexuala bermatu:*

- » Hezkuntza afektibo sexual feminista sustatu genero rol eta estereotipoen aurka borrokatuz eta indarkeria matxisten arrazoiei aurre egiteko.

VII. *Laia Eskola hobetzeko proposamenak:*

- » Aurretik aipatutako desoreken ondorioz, eta kuadrilletako berdintasun teknikariek daukaten lan zama ikusita, eskualdeka egitura minimo bat sortu eskualdeetako beharrei erantzuteko. Eta zenbait udaletxeetan teknikari propioa barne hartzea proposatzen dugu. Saretzea indartzen eta koordinatzen lagunduko duena.

Proposamen Zehatzak

Antolaketa eredua: Zeharlerrotasuna eta politika publiko feministak egikaritzen direla ziurtatzeko baliabide nahikoak bermatzen dituen antolaketa eredua garatu. Hau da, berdintasun politika publikoen kalitatea bermatuko duen egitura indartu eta sexu-genero identitate guztien arteko berdintasuna bultzatzeko. Horretarako hurrengo egiturak sortzea ezinbestekoa da:

- » Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Foru Organoa
- » Emakumeen eta gizonen berdintasunerako sailletako unitateak

Berdintasun Kontseilu Herritarra: Partaidetza eta solaskidetza politikorako espazioen osaketa bat beharrezkoa da. Bai Arabako mugimendu feminista, emakume elkarte desberdinekin zein udal eta kontzejuekin. Gune lostesle bat. Ez dugu uste organo aholku-emailea bat nahikoa denik, eragiteko gaitasuna izango duen gune bat izan behar du, kogobernantzan oinarrituta, elkarlanean. Eztabaidak eta hausnarketak ezarri eta proposamenak landu eta zehaztuko dituen.

Arabako gobernantzaren ebaluazioa: Gobernantzaren kalitatea zein herritarren parte-hartze maila neurtu eta ebaluatzea, eta horretarako erabili beharreko adierazleak lurraldeko eragile sozialekin batera definitzea.

1.1.3. LGTBI+ politikak

Legealdiko balantzea. Egungo egoera

LGTBI politiketan Ramiro Gonzalezen gobernuak egindakoa hitz bakarrean laburbildu beharko bagenu, erraza litzateke erantzuna: ikusezintasuna. LGTBI+ pertsonak ez dira inondik inora agertu Gobernuaren jardunean, eta ez da berariazko ekimenik abiatu eskubideak bermatzeko edota kontzientziazioan aurrera egiteko, urteko egun seinalatuetako adierazpen instituzionalez harago.

Teorian, erakundeetan txertatuta dago LGTBI+ ikuspegia hainbat organoren bitartez, baina beharrak asetzean, politika interseksionalik ez dago: bloke oso bat diseinatu beharrean, arloz arloko proposamenak egin izan dira, bereziki oposizioaren aldetik, baina proposamen horien artean ez da egon loturarik, koherentziarik. Gobernuaren jarrera epel horrek kezkatu egiten gaitu, batik bat Espainian onartu berri den Trans legeak sortutako zalapartak gurean izan dezakeen oihartzunagatik: Ikusgune Gasteizko LGTBI+fobiaren aurkako behatokiak indarkeriaren eta gorroto-diskurtsoen gorakada kezagarria erregistratu du. Egoera horren aurrean, onartezina da Gobernuaren jarrera.

Bestalde, aintzat hartu behar da, egiteaz gain, etorkizunean egingo denerako prestakuntza lana egin behar dela: baliteke egun ez egotea eskaerarik edota beharrik zenbait ekimen aurrera ateratzeko, baina Gobernuak eta gizarteak prest egon behar dute horietarako, eta ildo horretan ezinbestekoa izango da kontzientziazioa.

Aurrera begirako ildo nagusiak

Beraz, hurrengo legealdirako arlo hauetan bereziki eragitea proposatzen dugu:

- » Administrazioaren barne mailan, prestakuntza eta kontzientziazioa lantzea, LGTBI+ politikak aplikatzeko tresnak ematea langileei.
- » Sentsibilizazioan eragitea, erasoei dagokienez. Erasok ikusarazi behar dira, baina ikuskizunik egin gabe, modu kritikoa.

- » Sentsibilizazioarekin lotuta, erreferentziak indartu egin behar dira: LGTBI+ pertsonak eta praktikak ikusgarri egin behar dira modu positiboan, gazteenek arrunt har ditzaten eta nork bere erreferentzia gisa hartzeko, nahi izanez gero. Datorren legealdian, memoriari ere begiratuko zaio, ildo honen barruan.
- » Ekimen zehatzak.

Proposamen zehatzak

- » LGTBI+ fobiaren aurkako behatoki bat Araba osoan ezartzeko hitzarmena.
 - Ekimen ikusgarriak (furgoneta koloretsua... ikusgaitasunerako).
 - Ekimen diskretoagoak (aholkularitza-zerbitzuak udaletan...).
- » Trans Legearen aplikazioak badu bere atal zehatza tokiko entitateei¹ eta AFari dagokionez, hirian dauden baliabide guztiak herrietan aplikatzea behartzen duena.
 - Gurutzetako Genero Unitatera joateko trans kolektiboarentzako garraio laguntzak.

¹ Sección 10.ª Medidas en el medio rural

Artículo 39. Igualdad de derechos y oportunidades de las personas LGTBI en el medio rural.

1. Las Administraciones públicas, en el ámbito de sus competencias, llevarán a cabo acciones para garantizar:
 - a) El respeto, la promoción y la visibilidad de la diversidad en materia de orientación sexual, identidad sexual, expresión de género y características sexuales y de la diversidad familiar en el ámbito rural.
 - b) La igualdad efectiva en el acceso a los recursos y servicios dirigidos a las personas LGTBI en el ámbito rural, en las mismas condiciones que las personas residentes en entornos urbanos.
 - c) La participación de las organizaciones defensoras de los intereses de las personas LGTBI que trabajan en el ámbito rural.
2. Las Administraciones públicas, en el ámbito de sus competencias, deberán tener en cuenta las situaciones de discriminación múltiple e interseccional que sufren las personas LGTBI en el medio rural, como las personas menores de edad, jóvenes, personas mayores, personas con discapacidad y, de manera transversal, las mujeres lesbianas y bisexuales y las mujeres trans, en el desarrollo de sus políticas públicas.

Artículo 40. Cooperación entre administraciones.

En el marco de la Conferencia Sectorial de Igualdad se promoverá:

- a) El establecimiento de medidas para adaptar al medio rural los contenidos de esta ley.
- b) La adecuación de las medidas de prevención de la violencia y acciones discriminatorias por LGTBI fobia o pertenencia a familias LGTBI a las circunstancias específicas del medio rural.
- c) La creación, en colaboración con la Federación Española de Municipios y Provincias, de una Red de Municipios por la Igualdad y la Diversidad para generar sinergias con las administraciones locales en la realización de campañas a favor de la igualdad y no discriminación y generar recursos materiales y personales.

Artículo 41. Visibilización de las personas LGTBI en el medio rural.

Las Administraciones públicas, en el ámbito de sus competencias, promoverán la realización de campañas sobre visibilidad LGTBI en las zonas rurales, así como campañas de prevención de la violencia y la discriminación hacia las personas LGTBI adaptadas al medio rural.

- » Eusko Jaurlaritzaren Berdindu zerbitzua eraginkorrago egiteko, Arabako foru zerbitzu osagarria sortzea.
 - Transentzako oinarrizko informazioa emateko abokatuei prestakuntza ematea.
 - Dirulaguntza lerroa sortzea.
- » Indarkeria matxistaren ikuspegia zabaltzea (intrageneroa, LGTBIfobia...).
- » Arabako LGTBI+ foru kontseilua sortzea, elkarte eta eragileekin elkarlanean, eta egitura eta funtzionamendua ahalduntzailearekin.
- » Arabako Foru aldundiko sail eta zerbitzu guztietako langileei, eta bereziki jendaurrean aritzen direnei edota herritarrekin harreman zuzena daukatenei sexu eta genero aniztasunari buruzko berariazko prestakuntza eskainiko zaie.
- » Arabako LGTBI+ pertsonen eta bereziki trans pertsonen instituzioen eta gizarte osoaren aldetik pairatutako erasoak eta bazterketa jaso, aitortu eta erreparatu.
 - Arabako LGTBI+ eta trans pertsonen memoria historikoa jaso, gorde eta ikertzeko urtero beka bat sortuko dugu.
 - Jasotako lanaren ondorioz, Arabako LGTBI+ eta trans pertsonen memoria historikoa Araba osoan zehar zabaltzeko komunikazio ekimenak garatuko ditugu eta ekainaren 28aren testuinguruan Arabako LGTBI+ eta trans pertsonen pairatutako erasoak eta bazterketa aitortzeko ekitaldi instituzionala burutuko dugu.
- » Kanpo kontratazioetako klausuletan eta dirulaguntzen deialdietan LGTBI+fobia ekiditeko klausulak eta horiek betearazteko jarraipen tresnak ezartzea
- » LGTBI+fobia pairatu duten pertsona guztientzako harrera programa integrala (gazteak, asilo politikoaren eskatzaileak...).
- » GOFeren menpeko Gizarte Zerbitzuetara jotzen duten LGTBI+ pertsona guztiek kolektiboarentzat eskuragarri dauden baliabide guztiei buruzko informazioa jasoko dutela bermatzea.
- » Turistei LGTBI+ komunitatearentzat Arabak dauzkan baliabide gida eskuragarri jarri informazio bulegoetan zein ostalaritzako establezimenduetan.

- » Ignacio Aldecoa kultur-etxean LGTBI+ literaturari eskainitako berariazko saila
- » Foru garraioan (Alava Bus eta eskualdeko garraioa) LGTBI+fobiari eta edozein sexu jazarpenari aurre egiteko protokoloak, kanpainak eta zerbitzu horietako langileentzako berariazko prestakuntza.
- » Cruising guneak zerbitzuz hornitu: edukiontziak, panel informatiboak...
- » LGTBI erresidentziarako ez dago eskaerarik, baina kontzientzia sortu behar da.
 - Erresidentzia berriak eraikitzean, espazioak kontuan hartu.

1.1.4. Gardentasuna eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea

Legealdiko balantzea. Egungo egoera

Gardentasunari eta Informazio Publikoa Eskuratzeari buruzko 2021. urteko Txostena oinarri hartuta, Arabako Foru Aldundiaren jarduna legealdi honetan ez dela eraginkorra izan ondorioztatu daiteke.

Araba Irekia izeneko ataria abian jarri zuen koalizio gobernuak informazio publikoa eskuratzeko herritarrok dugun eskubidea ustez bermatzeko. Baina ez du lortu. Erraztasunak beharrean, oztopoak topatuko ditu Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez informazio publikoa eskuratzeko ahalegina egitera animatzen den herritarra: nahi duzun informazioa topatzeko arazoak gaiak sailkatzeko eragatik; topatzen baduzu, fitxa edo botoia sakatu eta ez da ezer agertzen; zerbait agertzen denean, formatu elektroniko konplexuak informazio eta komunikazio arloko enpresen interesak asetzeko, baina ez gureak. Web gune hori hobetze aldera, 2022an garatu beharreko ekintzak hankamotz gelditu dira.

Bestetik, Araba Irekia webguneko trafikoa aztertzeke, alegia, erabili dugun herritarron ezaugarriak eta informazioa eskuratzeko burutu ditugun ekintzak aztertzeke, gure haridurarako, Google Analytics aplikazioa erabili da, nahiz eta jakina izan, 2020an bertan behera geratu zela Europar Batasunetik AEBetarako datuen transferentzia erregulatzen zuen Privacy Shield akordioa, europarren datu pertsonalak behar bezala babestuta ez zeudela ikusita, AEBetan pribatutasunaren defentsarako legeak Europakoak baino askoz ahulagoak direlako.

Ulertezina da kontuan hartuta 2020tik egunera, Europako hainbat estatuk -Austria, Frantzia, Italia, Danimarka eta Finlandia- Google Analytics legez kanpokotzat jo dutela jakinda, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Europako GDPR legea (2016/679) urratzen duela iritzita, Europako erabiltzaileon datu pertsonalak AEBetara bidaltzen dituelako.

Azkenik, Informazio Publikoa eskuratzeko eskubideari dagokionez, 4 datu esanguratsu:

1. Eskatera egin zuten pertsonen kopurua berantza doa: 2020an 54 pertsona animatu ziren eta 2021ean 39.
2. Egoitza elektronikoaren bidez egindako eskaerak ere berantza doaz: 2020an 40 eskaera egin ziren eta 2021ean 16, besterik ez; aitzitik, erregistro orokorraren bidez egindakoak zerbait igo ziren, 11tik 16ra.
3. Informazio eskaerei erantzuteko lege ezarritako 30 eguneko epea handituz doa urtetik urtera: 2020an batezbesteko 44 egun eta 2021ean 47 egun behar izan zituen Aldundiak herritarrei erantzuteko.
4. Egindako 39 eskaera horietatik 6 gelditu ziren ebatzi gabe, Aldundiaren hiru sailetan kontzentratuta: Bide Azpiegiturak eta Mugikortasuna (3 eskaera, 2 ebatzi gabe); Nekazaritza (3 eskaera, denak ebatzi gabe); Ingurumena eta Hirigintza (eskaera bakarra eta ebatzi gabe).

Horrek guztiak agerian uzten du informazio publikoa eskuratzeko prozedura konplexua eta luzea dela.

Aurrera begirako ildo nagusiak

Gardentasun politikak benetan eraginkorrak izan daitezzen eta informazio publikoa eskuratzeko herritarrok dugun eskubidea bermatze aldera, askotariko neurriak hartu behar dira, bai baliabide teknikoek dagokienez bai arlo hori kudeatzeko ardura duten langileen jardura errazteari dagokionez.

Informazio eta Komunikazio arloan burujabetzarako urratsak eman behar ditugu. Eta horretarako plan zehatza diseinatu behar dugu.

Proposamen zehatzak

1. Araba Irekia atarian ahalik eta informazio mota desberdin gehien eskaintzea, era argian sailkatuta, erraz topatzeko, ulertzeko eta eskuratzeko moduan.
2. Arabako herritarren datu pertsonalak metatzeko azpiegitura elektroniko propioak garatzeko aukerak aztertzea eta planifikatzea, horretarako behar diren baliabideak eta inbertsioak burutuz.
3. Araba Irekia atariaren trafikoa aztertzeke software libreko tresnak erabiltzea.
4. Informazio publikoa eskuratzeko eskaerak izapidetzeko prozedurak sinplifikatzea.

1.2. Euskara

Legealdiko balantzea- Egungo egoera

Legealdi guztiz laua izan da, inolako berrikuntzarik edo aurrerapausorik gabe, aurreko legealdiaren hasierako aurrekontu akordioetan EH Bilduk lortutako kontuei eutsi die Ramiro Gonzalezen gobernuak, baina euren aldetik ez da egon inolako proposamen edo ildo berririk. Euskalgintzaren aldetik ere ez da inolako presiorik edo eskakizun berririk mahaigaineratu (edo planteatu badira, behintzat Euskara Zerbitzuaren eta euskalgintzaren harreman ofizialetatik kanpo ez dute izan inolako oihartzunik). Euskarari buruz legealdian jorratu diren ekimen guzti-guztiak EH Bilduren eskutik joan dira, eta beste alderdien aldetik jaso duten erantzuna guztiz eskasa izan da: PPren betiko diskurtso euskarafoboa, Podemos-IUren erabateko ezaxolakeria, PSEren elementu euskarafoboaren erabakigarritasun erabatekoa eta PNVren epelkeria negargarria eta inkoherentzia jasanezina.

Aparteko aipamena, eta ez onerako, merezi du Arabako Foru Aldundiaren langileen euskalduntze exijentzian emandako atzerapausoak: behin-behineko langileak egonkortzeko prozesuan, eta urte luzez egoera horretan zeuden langileak egonkortzeko premia aitzakia gisa hartuta, kategoria guztietan euskararen balorazioa legeak markatzen dituen minimoetara eraman da, PSEren zuzendaritzapean eta sindikatu guztien, LAB izan ezik, adostasun lotsagarriarekin. Argi geratu da, haimakagarren aldiz, hizkuntza politikoa gobernuko bazkide nagusia PSE dela, ez PNV.

Bestetik, Euskararen Plan Estrategikoaren garapena porrot erabatekoa izan da; eta onartuta ere pandemiak eragindako geldyadi zakarra eta erabatekoa, gerora ere ez da egon inolako esfortzu berezirik galdutako denbora berreskuratzeko. Tamalez, legealdi oso bat galdu da ganorazko ezer egin gabe; esate baterako, plan horren ebaluazio prozesua eta 2023-2027ko plan berriaren lanketa abiarazi beharko zituen Euskara Foru Kontseiluaren bilera aurtengo martxoaren 30rako deitu zuten, hots, foru hauteskundeetarako bi hilabete eskas geratzen zirenean.

Bestaldetik, Arabako herrietako euskaltzaleak eta euskaldunak guztiz abandonatuta ditu Arabako Foru Aldundiaren hizkuntz politikak. Landa Eremuko euskara elkarte gehienak oso jota, proiektu xumea burutzeko ere eskakizun burokratikoetan itota, batzuk ere desagertuta, nekearen nekeaz. Aurrerapausoak egin badira ere Kuadrilletako euskara teknikarien eta Arabako Foru Aldundiaren Euskara Zerbitzuaren arteko koordinazioan, oraindik ere badaude disfuntzioak eta arazoak bien artean eta Kuadrilla desberdinen jardura eta funtzionamendu moduen artean. Azken hauei dagokienez, hainbat arazo aipatu daitezke: Kuadrilla bakoitza gidatzen duen alderdi politikoaren grina (Gorbeialdea-EH Bildu) edo axolakeria (gainontzeko Kuadrillak-EAJ) hizkuntz politikarekiko, euskara teknikariak organikoki Kuadrilletako gerenteen menpe egotea eta teknikarien eta Aldundiaren Euskararen Zerbitzuaren arteko koordinazioak ez izatea inolako aitortza edota babes juridikorik.

Arabako Foru Aldundiaren utzikeria beste arlo batzuetara eraman da, esaterako, Lanabes programari dagokionez, orain dela 8 urteko diru EH Bildurekin adostatutako partida kopuru berean mantentzeaz gain eta bertako eragileekiko elkarlanaren orde z funtzionamendu guztiz bertikala ezartzeaz gain, praktikan jardura guztia Eusko

Jaurlaritzaren esku utzi du. Funtsean, eta euskalgintzarekiko elkarlanari bagagozkio, balorazioa oso kezkarria da eta, COVID-19aren pandemia ere aitzakiatzat hartuz, elkarlana hori gutxieneko gutxienera eraman da, soil-soilik guztiz burokratizatuta dagoen, ezer gutxirako balio ez duen eta urtean behin edo bitan baino biltzen ez den Euskara Kontseilura mugatuz, non gai-zerrenda itxi baten bidez Aldundiak informazio pixkat eman eta euskaltzaleen kexak eta kezak jaso baino egiten ez dituen.

Zeharlerrotasunik ere ez da inon agertu EAJ eta PSEren gobernuan, finean hizkuntz politikak, “euskararen gauzatxoek”, Ramon Rabanera PPko Ahaldu Nagusiaren garaian bezalaxe jarraitzen dute: hirugarren edo laugarren mailako kontuak dira, folklorikoak ere hainbatetan, garrantzirik ez daukatenak eta, antza, EAJri bozkarik ere ematen ez diotenak. Euskara Zerbitzu batek (Lehendakaritza Sailekoa-EAJ) kudeatzen ditu programa eta dirulaguntza batzuk, inolako grinarik gabe, inolako planteamendu berri/berritzailek gabe, aurrekontua handitu gabe, ez bada “tokatzen den kopuruan” eta “zaratarik egin gabe”, eta bigarren Euskara Zerbitzu batek (Funtzio Publikokoa-PSE) kudeatzen du, bete beharreko espediente astun eta aspergarria izango balitz bezala, bertako funtzionarioen euskalduntzea, beti ere Euskararen Legeak markatzen dituen gutxieneko eskakizun mailak aplikatuz.

Eta hau guztia gertatu bitartean, VII. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzek argazki gazi-gozoa erakusten dute Arabari dagokionez, aurrerapen nabarmenekin, baina baita arrisku eta eremu ilun nahikotxorekin ere, eta Espainiako epaileen aldetik erabateko ofentsiba pairatzen dugun bitartean administrazioa euskalduntzeko aurrerapauso eta ekimen oro oztopatu eta atzera botatzeko. Azken gai honi dagokionez ere, guztiz negargarria izan da Ramiro Gonzalezen gobernuak eman (ez) duen erantzuna, berriro ere autokonplazentzia ariketa hutsala eginez eta gaiak duen garrantzia erabat gutxietsiz.

Aurrera begirako ildo nagusiak

Behingoagatik euskararen normalizazio prozesuan jauzi kualitatiboa emateko unea izan beharko litzateke datorren legealdia, eta behingoagatik Arabako Foru Aldunditik egiten den hizkuntza politika Arabako euskaldunok eta euskaltzaleok egiten dugun esfortzuaren parekoa izan beharko litzateke.

Beraz, hurrengo legealdirako arlo hauetan bereziki eragitea proposatzen dugu:

- » Euskararen Foru Araua egitea proposatzen dugu, Arabako Foru Aldundiak garatu beharreko hizkuntz politikoari ahalik eta sendotasun juridiko handiena emateagatik. Ildo horretatik, Foru Arau horren bidez honako hauek ezarriko ditugu: arau juridikoak, egitura politiko-administratiboa, benetako zeharlerrotasunaren ezarpena eta gutxieneko baliabide tekniko zein ekonomikoak.

- » Administrazioaren barne euskalduntzea azkartzea eta euskara barruko lan hizkuntza bilakatzea. Datozen urteetan, eta boomer belaunaldikoen jubilario masiboaren ondorioz, emango den belaunaldi-erleboia baliatu behar du Arabako Foru Aldundiak egungo hizkuntz politikaren gabeziak zuzendu eta behin eta betiko euskaldunon hizkuntz eskubideak bermatzeko.
- » Ezagutzaren eta erabileraren dagoen desoreka handia borrokatu behar da gogoz. Horretarako Arabako euskaldunen saretze dinamikak modu sistematikoan landu behar dira eta arreta berezia eskaini behar zaio arabar gazte belaunaldien erabilerari eta euskararekiko daukaten atxikimendu praktikoari.
- » Halere, ezin dugu ahaztu oraindik ere gehiegi direla euskara arrotz sentitzen duten arabarrak. Honek eskatzen du euskarekiko sentsibilizazioa eta euskalduntzea sustatzeko Arabako Foru Aldundiak dinamika instituzional iraunkorrak ahalbidetzea.
- » Euskarazko sormena arlo guztietan sustatzea. Kulturen lehenik eta behin, noski, baina seriotasun osoz hartu behar da, besteak beste, eremu sozioekonomikoa, aisialdiko jarduera masiboak eta ohikoenak zein kirolaren praktika maila guztiak euskalduntzea. Horretarako Euskara Planean definitu behar dira jarduera lerroak eta berauek egokiro eta eraginkortasunez ebaluatzeko neurgailuak.

Proposamen zehatzak

- » Euskararen Foru Araua tramitazioari ekitea 2023 urtea amaitu aurretik. Horretarako, lehenik eta behin herritar parte-hartzerako berariazko plangintza egongo da, hasieratik bertatik euskalgintzarekin elkarlana bermatuz. Euskararen Foru Arau horretan gutxienez honako hauek jasoko dira:
 - Egitura politiko-administratiboari dagokionez, Hizkuntz Politika Ahaldu Nagusiaren menpeko Lehendakaritza Sailean txertatuko da.
 - Egun existitzen diren bi Euskara Zerbitzua (Funtzio Publikoaren Sailekoa eta Lehendakaritza Sailekoa), Euskara Zerbitzu bakar batean uztartuko ditugu, Ahaldu Nagusiaren menpe egongo dena.
 - Planteamendu berri horren baitan, Arabako Foru Aldundiaren Euskara Barne Plana Euskararen Plan Estrategikoaren baitan txertatu, egungo disfuntzioak eta deskoordinazioak konpontzeko eta Araban euskarak behar duen jauzi kualitatiboa bideratzeko da. Berariazko neurtzaileak izango ditu, bere betetze maila egokiro neurtzeko.

- Euskara Barne Planaren helburua foru langileak euskalduntzetik harago joan beharko da, hau ezinbestekoa bada ere Arabako euskaldunon hizkuntz eskubideak eraginkortasunez bermatzeko, baina langile publikoen euskalduntzean egindako inbertsioari ere atarramendu handiagoa atera behar zaio, besteak beste langile euskaldunek euskaraz lan egiteko eskubidea ere bermatze aldera. Ildo horretatik, eta Arabako Foru Aldundiaren sail, erakunde eta enpresa guztietan euskararen benetako zeharlerrotasuna ezartze aldera, besteak beste, ezinbestekoa deritzogu euskara lan hizkuntza nagusitzat izango duten zerbitzu-unitate eta zirkuituak sortzeari, eta horretarako plangintza berezia jorratzeko konpromisoa geureganatzen du EH Bilduk.
 - Zeharlerrotasunaren aldeko apostu horrek isla izan beharko du baita ere Arabako Foru Aldundiaren sail guztieen aurrekontuetan, hortik ere euskararen sustapena edo normalkuntza bermatzeko behar diren partidetaz hornitu daitezten.
 - Halaber, Kuadrilletako euskara teknikarien lana koordinatzeko eta Kuadrilla bakoitzaren planaren aktibazioa eta dinamika bermatzeko, Aldundiko Euskara Zerbitzu berriaren eta Kuadrilletako teknikarien arteko harreman organikoa zehaztuko da Foru Arau horretan, Arabako toki erakundeen hizkuntz politikaren eraginkortasuna bermatzeko zein egun existitzen diren funtzionamendu arazoak konpontzeko.
 - Euskararen Kontseiluari dagokionez, aldaketa handiak behar ditu, funtsean hizkuntz politika eraginkorra sustatzeko egitura ahalduzko izan behar baita, euskalgintzarekiko elkarlana zintzotasunez sustatuz eta egungo funtzionamendu burokratiko eta ezdeusa gaindituz. Alderdi politiko guztiek bertan parte hartzeko aukera ere zabalduko dugu.
 - Arabako Foru Aldundiaren berezko aurrekontuaren %1 hizkuntz politikara bideratzeko konpromisoa 2023-2027 legealdia amaitu aurretik.
- » Kanpo kontratazioetan hizkuntz irizpideak zehaztea eta ezartzea modu sistematikoan, bai euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatzeko, bai instituzioko langile euskaldunok euskaraz lan egin ahal izateko aukera bermatu ahal izateko.
- Horrekin batera, kontratazio pleguetan positiboki baloratuko da enpresek euren burua euskalduntzeko egindako esfortzua (Bai Euskarari edota Bikain ziurtagiriak edukitzea).

- Halaber, eta euren kontratuaren baitan zerbitzua euskaraz emateko betebeharrak daukaten enpresen kasuan, Euskara Zerbitzuak modu eraginkorrean ziurtatuko du zerbitzua euskaraz eta behar besteko kalitatearekin ematen dela.
 - Hau guztia jaso beharko da Euskara Barne Planean, baita neurgailu zehatzak ezarri ere horren gauzapeanaren jarraipen egokia egiteko.
-
- » Landa Eremuko euskaldunak eta euskaltzaleak sartzeko eta bertako arnasguneak indartzeko berariazko plana. Horrekin batera, ezinbestekoa da Kuadrillen eta Udalen finantzazioa arlo honetan ere handitzea.
 - » Arabako euskarazko toki komunikabideen iraupen estrategikoa ziurtatzeko eta erdarazkoetan euskararen presentzia areagotzeko hitzarmenak sustatuko ditugu.
 - » Euskal kultura sustatzeko Birika programaren aurrekontua %25 handitzea legegaldian zehar.
 - » Arabar berriei propio bideratutako sentsibilizazio kanpainak, euskalduntzeko hautua egin dezaten errazteko.
 - » Lanabes programa indartzea, Arabako Foru Aldundiaren ekarpena %25ean, legegaldian zehar, gutxienez, handituz. Ildo beretik, Arabako Lan Heziketako zentroekin perspektiba horretan jarduteko elkarlanerako hitzarmenak sustatuko ditugu, baita horretarako borondatea adierazten duten eremu sozioekonomikoko mota guztietako eragileekin ere, euskararen normalizazioan urratsak egin ditzaten animatzeko.
 - » Merkataritza eta Ostalaritza sektoreetarako ere ildo bereziak behar dira, bai bertako langileen euskara sustatzeko, bai euskararen erabilera areagotzeko.
 - » Arabako Foru Aldundiaren menpeko kirol arloetan (eskola kirola, klub eta federazioak, babesletza kontratuak...) euskara sustatzeko hitzarmenak eta neurriak.
 - » 18 urtetik beherakoekiko Arabako foru Aldundiaren harreman eta jardueretan euskara lehentasunezko hizkuntza izan dadin neurri zehatzak ezartzea. Hau ere jaso beharko da Euskara Planean, baita neurgailu zehatzak ezarri ere horren gauzapeanaren jarraipen egokia egiteko. Honi dagokionez, bi lerro hauek landuko ditugu lehentasunez:

- Arreta berezia eskainiko diogu Gazte Foru Erakundearen jardunari, haur eta gazteen artean euskararen erabilera areagotzen eragile aktiboa izan dadin.
- Euskal Kulturgintzaren transmisiorako berariazko programa landuko du Gazte Foru Erakundeak, eremu horretan lanean ari diren eragileekin elkarlanean, eskola jarduerari lotuta ez ezik, aisialdian gauzatzeko ere bai (batez ere azken honetan).

1.3. Gazteria

Legealdiko balantzea- Egungo egoera

Arabako gazteria jendartean kokatzen den kolektibo espezifiko da eta, Arabako jendartea bezala, kolektibo hau ere anitza eta zabala da. Kolektibo batez ari gara, ez garelako arlo edo eremu zehatzean kokatzen den gazteriaz ari.

Eremuz eremu arazo zehatzak dituen kolektiboa izateaz gain, Arabaren bizitza politiko, sozial eta ekonomikoaren garapenak bete-betean eragiten digun sektorea gara. Gazteok zapalkuntza integrala jasaten dugu, aurpegi eta egoera ezberdinekin mozturrotua, eta horregatik, horren aurrean irtenbide integralak behar ditugu. Hala, hurrengo urteetan, udalgintzatik eta, ahal dela, eragin esparru guztietatik hauspotu behar ditugu aurrerapausoak. Egiturazko aldaketa errotikoak behar-beharrezkoak ditugu, tokiko mailan egin daitezkeen hobekuntza guztiak behar ditugun gisan.

Beraz, gazteria zeharkako eran landu beharreko esparrua da, aldaketa politiko eta sozialaren bidean motorra izango den gazteriarren etorkizun duina gaurdanik eraiki eta bermatzeko

Illo horretatik, EH Bildutik apustu garbia egiten dugu: Arabako gazteon oraina eta geroa bermatuko dituzten politikak proposatu eta egikaritu behar dira, arlo guztietan, iraunkorki eta gazteon nahi eta beharren arabera.

Gazteak zokoratzen dituen herriak nekez izango du etorkizun oparorik. EH Bildurentzat EMANTZIPAZIOA da gure xedea eta hori bera erdiesteko, burujabetza ekonomikoa, soziala eta zibila beharrezkoak ditugu. Gure bizitzak autogobernatzeko gaitasunaz ari gara, gure ibilbideak gure erabakien arabera eraikitze gaitasun formal eta materialaz

Hots, gure ortzi-muga argia da, bizitza oparo eta bizigarriak denontzat. Etorkizuna gaurdanik hasten dela kontuan izanda, aurrea hartzeko eta egungo egoera iraultzeko, denon beharrianak asebetetzeko eskaintza zabal eta integralak egitea zein martxan jartzea izango da gure helburua:

- » EH Bilduk gazteok gure bizi proiektuak Araban garatu ahal izateko, alegia Araban emantzipatu ahal izateko, beharrezkoak diren baliabideak bermatze

aldera (enplegua, etxebizitza, zerbitzuak, mugikortasuna...) lan egiteko konpromisoa hartzen du.

- » Gazteongan forma konkretua hartzen dute sistemak eta hortik eratortzen diren desoreka sozial eta ekonomikoek, eta prekarietatea errealitate aldaezina dela sinestarazi digute. Honek, erantzun berezitu eta zehatzak exijitzen ditu, arlo guztiak zeharkatuko dituen neurri ildoak proposatu eta martxan jartzea beharrezkoa izanik.
- » Bizitza politiko, sozial zein kulturalen gazteon parte hartzea ere ezinbestekoa da, gure eskubideak bermatu eta jendartearen transformazioa bultzatzeko beharrezkoa den heinean.

EH Bilduk, beraz, Arabako gazteon nahi eta beharrak kontuan hartuta, erabaki sendo eta ausartak hartzeko konpromisoa hartzen du. Gazteok pairatzen ditugun arazo espezifikoak jendarte osoarenak ere badira, eta norabide horretan lan egitea ezinbestekoa zaigu. Izan ere, gazteon oraina eta etorkizuna bermatzeko aukerak ematen ez duen jendarteak etorkizun iluna du. EH Bildu osatzen dugunok emango diren aurrerapausoetan, planteatuko diren aldaketetan eta aplikatuko diren neurri berri guztietan gazteon nahiak eta beharrianak kontuan hartzeko konpromisoa hartu beharko dugu. Eta Foru Aldundiak, Gazte Foru Erakundeak, zer egiten du gazterian alde? Orain arte, gazteontzakoak omen diren politikak gazte aterpeak kudeatzera eta aisialdiko ekintzak antolatzen baina ez dira bideratu. Egun, ez dago Arabako gazteon beharrak eta premiak asetuko dituen politika integralik.

Aurrera begirako ildo nagusiak

Emantzipazioa ezin ulertu dezakegu legezko tutoreen etxetik alde egiteko ekintza soil bezala. Emantzipazioak behar du independentzia ekonomikoa, soziala eta zibila. Hau da, gure bizitzaren gain erabakitze gaitasuna eskuratzea. Gaur egun ordea, emantzipazio prozesua ez da norberaren nahi eta beharretara egokitzen, eta esan daiteke beste batzuen mendekotasunean oinarritzen dela. Horregatik, proposatzen ditugun aldaketa guztiak, helburu orokor horren aldeko bidean egindakoak dira.

Ezinezkoa izango da gure bizitzak sakonki hobetzea egungo eredu kapitalista heteropatriarkala errotik aldatzen ez badugu. Merkatuen eta kapitalaren mesedetara eraikitako sistema osoa deuseztatu, eta herritarron, gazteon, mesedetara begira eratutako sistema propioa behar dugu. Horretarako ezinbestekoa da gaurdanik gure bizi eredu eta filosofian aldaketak ematen hastea. Norabide horretan, EH Bilduk martxan jarriko dituen politika ezberdin guztietan, gazte ikuspegia barneratzea oinarritzat izango da.

Gure eskaintza planteatutako oinarrien baitakoa da, balioen iraulketa bultzatzeko asmoz, gazteon bizitzak hobetzeko helburuarekin. Gazteon bizi baldintzak berrikustea eta geure errealitatera eta premietara egokitzea (etxebizitza, oinarritzatko errenta, laguntzak, enplegu duina eta abar) izango dira gure helburu nagusiak:

1. Gazteon bizi baldintza materialak hobetzea:

- Garraioa: Gazteon premietara egokitutako garraio publikoa bultzatuko dugu. Horrela, adinaren eta diru-sarreraren arabera, eta landa ingurunekeo joan-etorriak aintzat hartuz, bizitzeko geure ingurunetik kanpora irteteko beharrik izan ez dezagun, horrelakorik nahi ez badugu.
- Enplegua: Ekosistema duin eta gizarte jasangarri oso bat eraiki beharko da gazteoi zuzenean eragingo diguna. Finean, egungo egoera kontuan izanik, hiri eta herrietatik alde egiteko arrazoi nagusietako bat enplegua bada, tokian toki beharrak asetzeko enplegu duina sortu eta antolatu beharko dugu.
- Etxebizitza: Nahiz eta Foru Aldundiak eskumen zuzenik ez eduki alor honetan, berebiziko garrantzia du gazteon bizitzetan. Gainera, etxebizitza eskubide subjektibo bat denez (hau da, etxebizitza eska daitekeen eskubidea da), EH Bilduk uste du instituzioek bermatu behar dutela pertsona oro etxebizitza baterako sarbiderako eskubidea. Gauzak horrela, instantzia ezberdinetan bultzatuko dugu Eusko Jaurlaritzak, Alokabideren bidez, bermatzea 18 urtetik gorako edozein pertsonak babesturiko alokairuko etxebizitza bat eskatzeko aukera izatea. eta gutxieneko diru sarrera batzuk edukitzea ez da kontuan hartuko dagozkien poltsetan sartzeko.
- Buru-osasuna: Gazteon buru-osasuna geroz eta kaltetuago dagoen honetan, EH Bildutik egoeraren kontziente izanik, fronte guztietatik gaitz honi aurre egin behar zaiola deritzogu. Horregatik, uste dugu ezin garela zain geratu beste instantzietatik problematika honi irtenbidea eman dezaten.
- Kultura: Gazteoi begirako masa-kultura oso bat bideratu eta gazteok kontsumitzaile huts bilakatu nahi gaituzte, gu subjektu pasibo eta akritiko bihurtu nahian, betiere merkatu eta produkzio hazkundearen mesedetan. Gure ustez, aisialdia bizitzaren funtsezko unitatea da, hortaz, ezin gara erosle huts izatera mugatu. Beraz, aisialdia eta kultura guk geuk sortu behar dugu, eta norabide horretan lan egingo du EH Bilduk. Gazteon gozamenerako zein esperientzia kolektiboak osatzeko bideratzearen helburuarekin. Neurriak aplikatuko ditugu komunitateak ere burujabea izateko aisialdiari dagokionean.
- Hezkuntza: Atal hau berebiziko garrantzia hartzen du hala gazteon bizitzetan, nola Euskal Herriaren eraikuntza eta berprodukzioan. Gainera, nahiz eta hezkuntza formalean Foru Aldundiak eskumenik ez

izan, ikuspegi askoz integralago batetik begiratu behar diogula deritzogu. Izan ere, EH Bilduren ustez, Euskal Herrian aisialdia tresna izan behar da hezkuntza sustatzeko eta sendotzeko, Euskal Herria bera eraikitzeko eta eraldatzeko zein gizartea kohesionatzeko. Hori guztia kontutan hartuta, Arabako lurraldetik ere, bai hezkuntza-formalean, bai ez-formalean planteamendu zehatzak mahai gaineratuko ditugu. Hezkuntza formalarekin lotuta, adibidez, despopulazioa ekiditeko eta gazteria herrietan hezkuntzatik ere errotzeko modua bilatuz eta ez-formalean, ikuspegi globala emanez eta proiektu eraldatzaileak sustatuz eta lan baldintzak duinduz.

2. Gazteon artean ahalduntze prozesuak aktibatzea

- o Datozen hamarkadetan zehar, gurea, gazteona, izango da gaur egun bizkortzen ari diren joerak eta hartzen diren politikak bete-betean pairatuko dituen belaunaldia: ultraeskuinaren gorakada, feminismoa eta aniztasun kulturalen kontrako altxamenduak, desberdintasun sozialen areagotzea, aldaketa klimatikoaren ondorioak, etab. Horregatik diogu, testuinguru honetan guk dugula gauzak aldatzeko protagonismoa eta ardura. Zentzu horretan, euskal gazteriak denbora darama egiturazko aldaketak antolatu eta bultzatzen, zein horiek gauzatzeko baldintzak sortzen.
- o Alegia, gazteon parte-hartze politikoa beharrezkoa dela deritzogu eta horretarako erraztasunak jarri behar dira. Gazteon aktibazioa ez da ezerezetik etorriko: hautetsontzian bozka ematetik harago, gobernantza eredu komunitarioak eta kalitatezko proposamenak izango dira. Infantilismo saiakerekin amaitu eta gazteoi politikagintzan zilegitasuna guztia aitortzeko lan egingo dugu Arabako Foru Aldunditik.

3. Jarduera instituzionala gazteokiko lankidetzara egokitzea

- o Araban badugu erakunde propio eta autonomo bat gazteriaren inguruko politikak aurrera eramateko, Gazteriaren Foru Erakundea (GFE). Kontua da, Ramiro Gonzalezen gobernuak ez diola inolako aitortza ez eta autonomiarik eman politika propio eta zehatzak garatu ahal izateko. Gure ustez, erakunde honek sakoneko eraldaketa bat behar du, gazteekin batera diseinatutako eztabaida-prozesu baten ondotik gazteon bizitzetan eragiten duten neurrietan eragiteko tresna eraginkorra bilakatzea goaz GFE-a.

Proposamen zehatzak

1. Gazteon bizi baldintza materialak hobetzea

o Garraioa

- “BAT 30D Gaztea” txartela baliatzeko adina 26 urtetik 29 urtera igoko dugu.
- “BAT 30D Gaztea” txartela duten erabiltzaile guztiak %50eko deskontua edukiko dute “AlavaBus” zerbitzu guztietan
- Beste Aldundiekin txartel bateratu bat lortzeko aukera, intermodalitatea ere (trena, bizikleta...) hobetuz.

o Enplegua

- Foru Aldundiak azpikontratatuak dituen zerbitzuen pleguak berrikusiko ditu, langile horien lan-baldintzak eta eskaintako zerbitzua hobetzeko asmoz. Betiere gizarte ekimeneko erakundeen balio erantsia biltzeko helburuarekin.
- Arabako Foru aldundiak lau urteko gazte enplegu plana garatuko du, Europako Gutun Sozialaren irizpideak jarraituz, gutxieneko soldata propioa -egun 1.400 euro 14 ordainsaritan-.
- Gazteon artean ekintzailatza kolektibo eta soziala sustatzeko programak sortzeko konpromisoa hartzen dugu, honako atal hauek kontuan hartuz. BULEGO BAT GFE-ren baitan:
 - I. Ekonomia sozial eraldatzailea eta kooperatibismoaren gaineko prestakuntzarako bitartekoak eskaintzea.
 - II. Proiektuak sortu eta garatzeko aholkularitza juridiko, estrategiko eta finantzarioa emango dugu instituzio publikoetatik.
 - III. Ekonomia sozial eta eraldatzailean oinarritutako produktu sareak sustatzeko proiektua martxan jarriko dugu.
 - IV. Arabatik kanpora lanera joan behar izan diren gazte guztien itzulera ahalbidetzeko ekimenak burutuko ditugu.
 - V. Lehen sektoreko ustategi berriak irekitzeko bideak ematea, jasangarritasunaren, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren eta produkzio ekologikoaren irizpideei jarraikiz.

VI. Gazte ekintzaileentzako laguntza-lerro berri eta justuak bideratuko ditugu, ekimen kooperatiboetan indar berezia jarriz.

- Etxebizitza

- Arabako Foru Aldundiak urgentziazko neurri fiskalak hartuko ditu alokairuen prezioak mugatzeko.
- Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzari eskatuko dio bere parke publikoa handitu dezala Araban.
- Foru Aldundiak, herrialdeko udaletxeak lagunduko ditu, subsidiaritate printzipioan oinarrituta, alokairu sozialak eta komunitarioak bultzatzeko.
- Foru Aldundiak erabilerarik gabe dituen eraikinekin, plan bat osatuko dugu. Gerora, tokian-tokiko udaletxeekin batera gazteen etxebizitza problematikari erantzuteko erabiliko direnak.

- Buru-osasuna

- Arabako Gazteri Foru Erakundeak, heziketa emozionala lantzeko eskola-programa bat martxan jarriko du. Horrela, eskolarrek euren osasun-mentala zaintzeko estrategiak eta teknikak garatzeko aukera eduki ditzaten.
- Arabako Foru Aldundiak indartuko du gizarte- eta hezkuntza-eskuhartze zerbitzua. Ulertzen baitugu gazteen eta haurren osasun-mentaleko arazoak detektatzeko, horien jarraipena egiteko eta artatzeko garrantzi bereziko tresna dela.
- Arabako Foru Aldundiak indartuko du familien gizarte- eta hezkuntza-eskuhartze zerbitzua.

- Kultura

- Arabako sortzaile gazteak sustatu, saretu eta ezagutzera emateko helburuarekin, urtean behin Gazte Plaza ekimena antolatuko dugu herrialdeko koadrilen, udaletxe eta kontzejuekin elkarlanean. Azoka formatuan, erakusketa, hausnarketa, ideiak elkar-trukatzeko espazioak eta aisialdia

uztartuko dituen tokian-tokiko sortzaile gazteen egun bateko ekimena.

- Kulturaren munduko gazte sortzaile eta produktoreen sare bat osatzeko urratsak emango ditugu. helburuarekin. Horrela sormena sustatu eta bultzatzeko baliabideak aktibatzea, baliabide ekonomiko eta azpiegiturak eskuragarri jarritz eta ideiak deskargatzeko gune birtualak sortuz.
- Gazteak euskarazko kultur produkziara hurbiltzeko asmoz, zuzeneko edota ikus-entzunezko emanaldietarako kultur-bonu bereiztuak eskaintzea proposamena garatuko du Foru Aldundiak.

- Hezkuntza

- Hezkuntza ez-formala
 - I. Gazteontzat eta gazteekin egindako politiken bidez komunitate hezitzaileak eraikitzeke apustua egingo dugu.
 - II. Hezkuntza ez-formaleko eragileen prestakuntza eta gaitzea bultzatu eta diruz babestuko dugu.
 - III. Aisialdia eta honi lotutako proiektu hezitzaileak gizarte politiken parte ere izan behar direnez, gazteen parte-hartze aktiboa erraztuko foru eta udal programen garapenean.

- Hezkuntza formala

- Despopulazioa ekiditeko asmoz eta gazteok gure herrietan erroztzeko bidean, Eusko Jaurlaritzarekin eta EHUrekin elkarlanean herri edo eskualde ezberdinetan hezkuntza sistema berriak arakatuko ditugu, hezkuntza eskaintza dibertsifikatu eta tokian-tokiko beharrei erantzuteko.
- Euskal Dantzak sustatu: Hiru helburu betetzearen: neska eta mutilen parte-hartze orekatua lortzea, lehiakorrak ez diren jardura osasuntsuak bultzatzea eta euskal kulturaren transmisioan aurrera egitea.

2. Gazteen artean ahalduntze prozesuak aktibatzea

○ Gazte Parte-Hartzerako Foru Kontseilua

Kontseiluaren araudia aldatu egingo dugu, arabar gazteoi benetako erabakitzeke ahalmena emateko. Partaidetza eta solaskidetza politikorako espazioen osaketa bat beharrezkoa da. Bai gazte mugimenduekin zein udal eta kontzejuekin. Gune lostesle bat. Ez dugu uste organo aholku-emailea bat nahikoa denik, eragiteko gaitasuna izango duen gune bat izan behar du, kobernamentuaren oinarrituta, elkarlanean. Eztabaidak eta hausnarketak ezarri eta proposamenak landu eta zehaztuko dituen.

- Gazteak proiektu propioak garatzeko gune, tresna eta baliabideak zehatzak jarriko ditugu martxan.
- Garatu beharreko foru politiketan parte hartzeko prozesuak jarriko dira martxan, haien norainokoa eta edukiak malgutzatuz, eta eremu bakoitzean parte-hartzea zehar-lerro bihurtuko da
- Instituziotik gazteongana hurbiltzea eta kolektibo informalean eta elkarte arautetan parte hartzen duten gazteen parte-hartzerako bideak bultzatzea, euren proiektuak abian jar ditzaten.
- Gazteen autokudeaketarako guneak lagatzea, gazteek beren proiektuak modu autonomoan garatzeko aukera izan dezagun.

○ Euskara

- Gazteen artean euskararen erabilera bultzatzeko neurri errealak sustatzera goaz. Arreta berezia eskainiko diegu gazte etorkinen euskalduntzeari, euskal gizartearen kohesiorako daukan garrantzi estrategikoagatik.
- 18 urtetik beherakoekiko Arabako foru Aldundiaren harreman eta jardueretan euskara lehentasunezko hizkuntza izan dadin neurri zehatzak ezartzea. Hau ere jaso behar da Euskara Planean, baita neurgailu zehatzak ezarri ere horren gauzapeanaren jarraipen egokia egiteko. Honi dagokionez, bi lerro hauek landuko ditugu lehentasunez:
 - I. Arreta berezia eskainiko diegu Gazte Foru Erakundearen jardunari, haur eta gazteen artean euskararen erabilera areagotzen eragile aktiboa izan dadin.
 - II. Euskal Kulturgintzaren transmisiorako berariazko programa landuko du Gazte Foru Erakundeak, eremu

horretan lanean ari diren eragileekin elkarlanean, eskola jarduerari lotuta ez ezik, aisialdian gauzatzeko ere bai (batez ere azken honetan).

- Arabako gazte euskaltzaleak saretzeko eta ahalduentzeko plangintza
- Feminismoa
 - Kultura feminista batean heztea zeharkako ardatza izango da gazteontzako politiketan, eta dauden genero desberdintasunak etengabe salatuko ditugu, sentsibilizazioaren mesedetan. Hala ere, parekidetasun heziko duen hezkuntza sinisten dugu, horregatik aukera berdintasunean eta errespetuzko harremanetan heztearen alde lan egingo dugu.*

3. Jarduera instituzionala gazteokiko lankidetzara egokitzea

- Neurri hauek guztiak abiarazteko ezinbestekoa da errotik eta sakonki Gazte Foru Erakundea berrantolatzea, Arabako gazteekin eta gazte eragileekin adostuta. Berrantolaketa horrek ezinbestean zeharkako politikak (enplegua, aisialdia, kultura, kirola, etxebizitza, lehen sektorea eta abar) ezartzeko gaitasuna eragin behar du, besteak beste. Gauzak horrela konprometitzen gara Gazteria Foru Erakundea (Instituto Foral de la Juventud) behetik gora eraldatzeko asmoarekin Batzar Nagusietan ponentzia parte-hartzaile bat abian jartzera.

1.4. Kultur aniztasuna

Legealdiko balantzea. Egungo egoera

Lehenik eta behin, erabat baztertzeko dugu jaioterria kategorizazio irizpide gisa erabiltzea, herri honetan bizi garen guztiok euskal herritarrek garelakoan baikaude, jaio garen lekua, sexua, sexu-orientazioa, sinesbidea, etnia eta abar edozein izanik ere.

Sistema kapitalistak herrialde anitz pobretu ditu gutxi batzuk aberasteko. Horrek migratze-beharra eragin du eta behar hori baliatu du sistema kapitalistak jatorri desberdinetako langile klaseak elkarren kontra jartzeko.

Arrazoi ekonomiko, politiko, kultural eta sozialek eraginda, jatorri askotako pertsona eta talde ugari iritsi dira Euskal Herrira. 2022ko Enplegu Institutu Nazionalaren (EIN) datuen arabera, Espainiar Estatutik kanpo jaiotako biztanleria %13,5ekoa da Araban; hori bai, kontuan izan behar dugu datu horien arabera iparraldeko herritarrek ere atzerriarrak direla.

Horren ondorioz, arlo horretako politikei era integralean ekiteko beharrezkoak diren eskumenak eduki ez arren, migrazioaren eta aniztasunaren eremuan paradigma aldatzea eta ikuspegi propio, zeharkako eta integral bat txertatzea proposatzen dugu. Hau da, pertsona guztientzat eskubide guztiak eta aukera berdintasuna aldarrikatzen ditugu.

Beraz, instituzioak askoz ere gehiago inplikatu beharko lirateke kultur aniztasunaren, bizikidetzaren eta pertsona migratu eta arrazializatuen eskubide eta premien arretarako defentsan. Are gehiago kontuan hartzen badugu elkarbizitza oasi bat izatetik oraindik ere oso urrun gaudela, eta jarrera arrazistak herritarren zati handi batean sakonki sustraituta daudela.

Aurrera begirako ildo nagusiak

Aurretik aipatutakoak, berresten dute ez gaudela egoera puntual baten aurrean. Horrek esan nahi du migrazioaren erronak euskal gizarteak aurrean duen erronka nagusienetako bat dela. Hori dela eta, herri gisa landu behar dugu, horrelako erronka batek eskatzen duen lehentasuna eta garrantzia kontuan izanda; izan ere, horren arabera izango baita, halaber, berdinen arteko herrialde justu bat eraikitzeko gizarte-kohesioa, hizkuntza-normalizazioa edo kulturen arteko bizikidetzaren artikulazioa.

Nahiz eta desabantaila egoera argi batetik abiatzen garen, Euskal Herriak ez baitu eskumenik migrazio politiketan, hainbat esparrutan badago zer egin:

- » Egungo jatorri eta kultur aniztasuna kohesio elementu bihurtzea, elkarbizitza sustatuz:
 - Arabako elkarteak eta Foru Aldundiaren arteko lankidetzak ziurtatzeko mekanismoak aktibatu.
 - Jendartearen parte hartzeko programa diseinatu eta inplementatzea, Arabako kultur aniztasunaren isla diren errealitate guztiak aintzat hartuz.
 - Elkarbizitza sustatzeko programa propioak garatzea elkarrekiko ezagutzan eta aitortzan oinarrituta, jarrera paternalistarik gabe eta xenofobiaren aurka borrokatuz.
- » Herritar guztien parte-hartze politiko eta soziala bermatzea:
 - Arabako eragile sozial, politiko eta instituzionalen arteko lankidetzak eta koordinaziorako gune misto bat sortzea, aniztasun eta migrazio alorreko politikei buruzko erabakiak hartzeko eta lankidetzak eta elkarlanerako eta elkarri laguntza, babesa eta aholku emateko.

- » Arau, ekimen eta politika publiko guztiek pertsona guztientzako eskubide guztien inplementazioa ziurtatzen dutela bermatzea:
 - Administrazio publikoetan aurrera eramaten diren politika orotan zehar-lerro gisa lantzea ezinbestekoa da eta beharrezko dugu mota anitzetako harrera, elkar ezagutza eta bizikidetza planak diseinatu eta martxan jartzea, instituzio-arteko elkarlanean oinarrituz.
 - “Arrazakeria instituzionala detektatu eta desagerrarazteko behatokia” sortzea, arau, ekimen eta politika publiko guztiek pertsona guztientzako eskubide guztien inplementazioa ziurta dezatela bermatzeko.
 - Foru administrazioaren politika eta zerbitzuak Araban bizi diren pertsona guztiei irekitzea, haien jatorria edo lege egoera kontuan hartu gabe. Administrazioaren zerbitzu eta baliabideak hainbat hizkuntzatan argitaratzea.
 - Errolda bermatzea, Araban bizi den pertsona ororen berezko eskubide gisa. Horretarako, bizilekua frogatzeko bideak askotarikoak izango dira, irekiak, pluralak eta errazak. Ezin daitezke soilik lotu pasaportea edukitzearekin edo etxebizitzaren alokairu edo jabetza kontratu bat aurkeztearekin.
 - Kultur Aniztasunari buruzko prestakuntza programa espezifikoak instituzioetako langileentzat, balio eta printzipioetan heziz herritarrekiko harremanetan inolako diskriminaziorik izan ez dadin.
- » Herritartasuna: euskal herritartasun efektiboa sustatzea, jatorria edozein izanik ere:
 - Araban bizi diren pertsona guztiek, euren jatorria edozein izanik ere, botoa emateko, elkartzeko eta politikan parte hartzeko dituzten eskubideak babesteko erabil daitezkeen tresna juridiko-politikoaren gaineko azterlanak egitea.
 - Inplikazio instituzionala, salaketa eginez eta Arabako herritarrak proaktiboki defendatuz, eskubide politiko eta zibilen urraketa larriak gertatzen direnean. Herritarren babesa bermatzea, migrazio legeek eta araudiek urratutako eskubideak baliatzeko aukera izan dezaten.
 - Emakume migratzaileen aitortza, ikustarazte eta ahalduntzerako jardunak, euren kulturaren espezifikotasuna kontuan hartuz.

- Euskara irakaskuntzaren hurbilketa eta doakotasun unibertsala, Araban bizi diren gazte eta heldu guztientzat, euren jatorria edozein izanik ere.
- » Gure lurraldean bizi diren pertsona guztientzako eskubide guztiak ziurtatzea:
 - Harrera sare bat sortzea Arabako udalerriekin elkarlanean, asistentzialismo soiletik haratago zeharkako ikuspegi integral batetik jardungo duena, orientatu eta informatu beharreko gaiak osotasunean landuz eta etxebizitza bilatzeko akonpainamenduari arreta berezia eskainiz.
 - Aholkularitza eta arreta legal eta soziokulturaleko zerbitzu bat sortzea, harrera sareari lanean lagunduko diona, administrazio egoera irregularrean dauden pertsonak barne.
 - Itzulpen zerbitzu bat sortzea, harrera sareari lanean lagunduko diona.
 - Harrera gida bat argitaratzea hainbat euskarri eta hizkuntzatan, hainbat alorretako (politika, kultura, gizartea, lana, osasuna, hezkuntza, etab.) egoeraren gaineko informazioa eta orientazioa emango duena.
- » Xenofobiaren eta arrazakeriaren aurkako borroka, bereziki lege eta neurri arrazista instituzionalei aurre egiteko:
 - Jendartea sentibilizatzeko kanpainak, zurrumurru eta estereotipo arrazista edo xenofoboek aurkako informazio eskainiz.
 - Xenofobia eta arrazakeria gainditzeko diharduten gizarte eragileekiko lankidetzaren indartzea.
 - Arrazakeria eta xenofobia gaien gaineko salaketak jasoko dituen eta jardun horietako biktimei laguntza eta aholku emango dien bulego bat sortzea
 - Kalitatezko zigilu bat sustatu eta esleitzea, diskriminaziorik gabeko gune gisa eratzeko mekanismoak bermatzen dituzten guneentzat.
 - Tokiko komunikabideekin kontratu sozial bat sinatzeko ekimena sustatzea, argitaratutako informazioa arrazakeriarik eta xenofobiarik gabe eman dadin.

Proposamen zehatzak

- » Arabako eragile sozial, politiko eta instituzionalen arteko lankidetza eta koordinaziorako gune misto bat sortzea, aniztasun- eta migrazio-alorreko politikei buruzko erabakiak hartzeko.
- » Harrera-sare bat sortzea, diziplinarteko aholkularitza zerbitzu batez hornitua (arreta legala, soziokulturala, itzulpen zerbitzua...), asistentzialismo soiletik harago zeharkako ikuspegi integral batetik jardungo duena: iristen diren, iragaitzazkoak diren edo iritsi berri diren pertsona guztientzat, orientatu eta informatu beharreko gaiak bere osotasunean landuz.
- » Euskara-irakaskuntzaren hurbilketa eta doakotasun unibertsala, lurraldean bizi diren pertsona heldu guztientzat, haien jatorria edozein izanik ere.

1.5. Garapenerako lankidetza

Legealdiko balantzea. Egungo egoera

Gaur egungo krisi sistemikoa aintzat hartuta, inoiz baino beharrezkoagoa da euskal lankidetzaren eta garapenaren aldeko apustua aldarrikatzea. Lankidetza, bizikidetza eta garapena sustatzeko jendartearen tresna behar du izan. Garapen hau ordea, Giza Garapenaren eta iraunkortasunaren paradigmatik landu behar da.

Egoera honen aurrean, egun ez da proposamen askatzaile eta alternatiboen alde apusturik egiten; ez dira politika koherente eta integralak martxan jartzen. Lankidetza politikak, gizarte politika publiko bat izan behar du, izaera egonkor eta iraunkorra duena. Honetarako, nazioarteko elkartasun eta justizia sozialean oinarritutako borondate politikoa ezinbestekoa da. Baita koherentzia ere. Ikuspegi koherente batetik begiratzuz gero, erreferentziazko esparru bat eta irizpideak izango ditugu eta hainbat arlotako politikek (merkataritzaren, energiaren edo zergen arloko politikek, esaterako) beste herrialde batzuetan eragiten dituzten ondorio negatiboak saihestu ditzakegu.

Hau da, herriek euren natura-baliabideak eta kultura-jakintza kontrolatzeko duten eskubidea errespetatu egin behar da, baita subiranotasunak eta libre erabakitzeak aukera ere.

2007ko Lankidetzaren Euskal Legea mugarrira izan zen lankidetza-politikan. Adostasun sozial handia lortu zuen, baina 16 urte beranduago bere osotasunean garatu gabe jarraitzen du. Legeak ezartzen duen funtsezko elementuetako bat aurrekontua da, guztizko aurrekontu bateratuaren %0'7a alegia. Politika publiko askatzaile eta eraldatzaileak martxan jartzeko, ezinbestekoa den oinarria. Tamalez, Arabako Foru

Aldundia urruti dago hau betetzeaz. Are gehiago, ez dauka inolako borondate ez konpromisorik xede hori betetzeko.

Aurrera begirako ildo nagusiak

Garapenaren bidez mundu zuzenagoa eta jasangarriagoa lortzen laguntzeko tresnarik garrantzitsuena koherentzia da; horretarako gure herrian lortu nahi dugun garapen motarekin bat datozen politika publikoak diseinatzeko eta erabakiak hartzeko irizpideak ezarri behar dira. Norabide honetan, hauek izango dira lan ildo nagusiak:

- » Lankidetza solidario eta eraginkorra garatzea:
 - Legez ezarritako aurrekontuaren %0,7a lortzeko neurriak aktibatu.
 - Gizarte-eragileekin batera lankidetza-plan bat egitea, jarraitu beharreko estrategia zehaztuko duena.
 - Lankidetza-agenteeekin elkarriketa politikoa izateko ahalmena eta borondatea duten egitura politikoak sortzea, baita kontsultak egiteko eta erabakiak hartzeko guneak ere.
 - Proiektuen jasangarritasuna bermatzeko neurriak aktibatzea, baita euren jarraipenerako eta ebaluaziorako mekanismoak definitu.
 - Administrazio publikoen kontratuetarako baldintza-agirietan, lan-eskubideen, genero- berdintasunaren, giza eskubideen eta ingurumen-eskubideen arloetako baldintzak txertatzea.
- » Justizia sozialaren arabeko lankidetza garatzea:
 - Lankidetza-politiketan genero-ikuspegia txertatua duten erakundeekin lan egiteari lehentasuna ematea.
 - Beste herrialde batzuekiko harreman multilateralak bultzatzea.
 - Estaturik ez duten edo hizkuntza gutxituak dituzten herriekiko lankidetza areagotzea, giza eskubideen nazioarteko esparruaren aitortza integrala lortu nahi duten nazioekin aliantza estrategikoak sortzeko asmoz.
 - Protokolo bat aktibatzea administrazioaren ordezkarietarako, non Giza Eskubideen Zuzendaritzak beti izango du ordezkariaren bat, sinatu behar diren kontratuetan baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko.
- » Elkartasunaren kontzientzia soziala sortzea:

- Herriarren artean elkartasunaren kultura sustatzea, garapenerako lankidetzaren, garapenerako hezkuntzaren eta herriarren sentsibilizazioaren bitartez.
- Lankidetzaz-politika bat bultzatzea, herrien eta gizarte-sektoreen arteko desoreka eragiten duten arrazoien gaineko kontzientzia kritikoa sortzeko helburuarekin.
- Erosketa publiko etikoa inplementatzea, banka etikoari, energia-kontratuei, materialak erosteari, software libreko programa informatikoei, jasangarritasun ekologikoari eta beste zenbait alderdiri dagokienez.
- Urte bakoitzeko lehen seihilekoan Garapenerako Lankidetzaren jardueren memoria argitaratzea; memoria horretan, burututako ekintzen laburpena, zer emaitza lortu diren eta aurrekontu-likidazioa aurkeztuko dira.

Proposamen zehatzak

- » Aurrekontu konpromisoa: Guztizko aurrekontu bateratuaren %0,7a bideratu gutxienez garapenerako lankidetzara.
- » Administrazio publikoetako garapenerako lankidetzarako politika koherente eta konprometituak bideratu: Garapenerako Lankidetzaz politika publiko egonkor gisa ulertzen dugu eta gizarte zibil antolatuaren erakundeekin batera indartu eta betearazi behar dela uste dugu. Horretarako elkarlanerako eta elkarriketarako gune bat sortuz.
- » Horretaz gain, Ekonomia Garapenaren sailarekin koordinazio gune bat zabalduko da, garatzen dituen nazioartekotzeko politikak koherenteak izan daitezen Garapenerako Lankidetzakoekin. Hau da, Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapena, Berrikuntza eta Erronka Demografikoko Sailak bultzatzen dituen enpresa nazioartekotze politikek, giza garapen jasangarriarekin bat egiteko estrategia lantzeko esparrua bultzatzea Garapenerako Politiken Koherentzia printzipioa oinarri hartuta.

1.6. Memoria Historikoa

Memoriaren eta Giza Eskubideen Lurralde Bulegoa

Memoriaren eta Giza Eskubideen arloan, EH Bilduk berariazko organo bat jarriko du abian Araban, frankismoaren errepresioaren (1936-1978) biktimei dagozkien Egia, Justizia, Erreparazioa eta Ez Errepikatzeko Eskubideekin lotutako zerbitzuak, jarduerak eta proiektuak bultzatu, koordinatu eta kudeatzeko. Memoriaren eta Giza Eskubideen Lurralde Bulegoak honako ardatz hauetan beteko du bere eginkizuna, gutxienez:

- » **Arabako memoria-tokiak seinalatzeko sarea:** Memoria ezinbesteko tresna da gizarte bidezkoago eta berdintasunezkoago baten eraikuntzan aurrera egiteko. Memoria bide askotatik transmititzen da, baita terroreri eta indarkeriari lotutako lekuetatik eta Araban frankismoaren biktimen oroimenez eraikitako memorialetatik ere. Duela hamarkada batzuetatik hona, errepresio frankistaren biktimen familiek eta kolektiboek bultzatuta, mota askotako oroigarriak eraiki dira, Arabako memoria antifaxistaren mapa zedarritzen dutenak. Horri guztiari 1936ko estatu-kolpeari eta lau hamarkada luzez odolez eta suz ezarritako diktadurari aurre egiteko adierazpenak eta espazioak gehitu behar zaizkio. Azken urteotan, Arabako hainbat udalen ekimenez, marka berriak sartu dira antolatzeke dagoen katalogo honetan. Bulegoak babesa bermatuko die, seinaleak bateratuko ditu eta informazioa zabalduko du.
- » **Ibilbide handiko bidexka bat egitea (GR) Araba antifaxista - Arabako memoria antifaxistaren ibilbidea:** Arabako iparraldetik, gudarien eta milizianoen erresistentziaren markak oraindik ikusgai baitaude, Amurrioko San Pedron edo Oketa edo Albertiako lubakietan bezala, Arabako Errioxan atzeguardiako errepresio basatiaren biktimei edo Lautadako maisu errepublikarrei egindako memorietaraino; Murgia edo Langraitz kontzentrazio-esparruetatik igaroz eta Azazeta, Trebiñu edo Añanako gure memoria antifaxista betirako seinalatu zuten exekuzio estrajudizialen tokiak ahaztu gabe. Gure lurraldea txikia da, baina askotarikoa paisaian, eta errepresio frankistak adierazpen ugari ditu Araban; eta guztiak lotzen ditu memoria antifaxistak. Hainbat etapatan puntu horiek guztiak zeharkatzen dituen GR bidezidor bat egitea baliagarria izango da gertakari horiek guztiak zabaltzeko eta horiei buruz kontzientziatzeko, baita erresistentziaren protagonista izan ziren eta askatasunarekiko konpromisoaren ondorioak jasan zituzten pertsonak omentzeko ere.
- » **Jarduerak koordinatzea lurraldeko ikastetxeekin/unitate didaktikoak:** Planteatutako tresnetan oinarrituta, eta euskarri gisa Memoriaren Tokiak Seinalatzeko Sarea eta Araba Antifaxista Bidezidor Handia erabiliz, Memoriaren eta Giza Eskubideen Lurralde Bulegoak jarduera-programa bat koordinatuko du ikastetxeekin, Arabako ikasleek errealitate horiek in situ ezagutu ditzaten. Horretarako, Arabako errepresio frankistari buruzko unitate didaktiko espezifikoak landuko dira. Horrela, irteeren aurreko ariketa osagarri gisa, ikastetxeek testuinguru errepresiboa eta horren ondorioak landu ahal izango dituzte, tokiko eta hurbileko ikuspegitik.

- » Ikerketa-bekak
- » Arreta, informazio bilaketa eta artxibo zerbitzua
- » Omenaldiak koordinatzea eta antolatzea lurraldeko udalekin

Arabako LGTBI+ pertsonek eta bereziki trans pertsonek instituzioen eta gizarte osoaren aldetik pairatutako erasoak eta bazterketa jaso, aitortu eta erreparatu

- » Arabako LGTBI+ eta trans pertsonen memoria historikoa jaso, gorde eta ikertzeko urteko beka bat sortuko dugu.
- » Jasotako lanaren ondorioz, Arabako LGTBI+ eta trans pertsonen memoria historiko zabaltzeko komunikazio ekimenak garatuko ditugu Araba osoan zehar eta 2024ko ekainaren 28aren testuinguruan Arabako LGTBI+ eta trans pertsonek pairatutako erasoak eta bazterketa aitortzeko ekitaldi instituzionala burutuko dugu.

Frankismoaren krimenen aurkako kereila bateratua

- » Mugimendu memorialistaren eskariari erantzunez, EH Bilduk kereila judiziala bultzatuko du Arabako Aldunditik, errepresio frankistaren biktimekin eta haien senideekin batera.

1.7. Laikotasuna

Legealdiko balantzea. Egungo egoera

Laikotasuna EH Bilduk Arabako daukan proiektu politikoaren parte da. Hau horrela, laikotasunak kontzientzia askatasuna, eskubideen parekidetasuna eta politika publikoen unibertsaltasuna ditu oinarri. Laikotasuna ezinbestekoa da edozein gizarte demokratiko eraikitzeko, eta administrazio publikoen lana da bide horretan aritzea. Era berean, lurralde laiko bat ezinbestekoa da giza eskubideen benetako bermea emateko, instituzio laikoek soilik bermatu baitezakete askatasunaren, berdintasunaren eta aniztasunaren errespetua.

Laikotasunak erakunde publikoak eta erlijio ororekin lotutako jardunak bereizten ditu, erlijioa pertsonen esparru pribatura (partikularra edo kolektiboa) mugatuz. Beraz, administrazio publikoen zeregina da pertsonek erlijioekiko duten jarrera askea errespetatzea eta bermatzea, hori edozein izanda ere, eta esparru publikoan gauzatzen den jardunak irizpide demokratikoak gauzatzen dituela bermatzea.

Aurrera begirako ildo nagusiak

Sistema laikoa oinarri, gizarte zibilaren interes orokorrak sinestunen interes partikularren gainetik ezarri dira. Horrela, erlijio jarduna ez da gizarte osoan onura duen zerbitzu publikotzat jotzen.

Proposamen zehatzak

1. Laikotasuna, kohesio sozial eta herritar guztien interesen babes gisa
 - » Sinbolismo erlijiosoa kendu egingo da eraikin eta izaera publikoko ekitaldi guztietatik.
 - » Ordezkaritza publiko gisa, ez da parte hartuko izaera erlijiosoko ekitaldietan.
2. Berdintasuna bermatzea legearen aurrean
 - » Neurriak aktibatzea konfesio erlijiosoei zuzenean edo zeharka bideratutako dirulaguntza publikoak desagerrarazteko.
 - » Oraindik ere 1976ko Concordatoaren ondorioz Eliza Katolikoak dituen pribilegioak murrizteko eta, ahal balitz, guztiz ezabatzeke, neurriak hartuko ditu Arabako Foru Aldundiak politika fiskalaren bidez.
 - » Diru publikoekin zaharberritutako interes kultural edo historikoko ondare erlijiosoa helburu publikoekin erabiliko da, jasotako dirulaguntza publikoaren arabera.
 - » Urteko erregistro publiko bat sortuko da, eliza katolikoaren esku dagoen ondare historiko-artistikoari buruzkoa.
 - » Eliza katolikoaren esku dagoen interes orokorreko ondarea desamortizatzeari hasiera emango zaio, onura publikoko ondare izan dadin.
 - » Neurriak aktibatzea 1946-2015 aldiko urteei dagozkien atzeraeraginezko immatrikulazioak kentzeko, eta hori ez errepikatzeko bitartekoak ezartzea.
 - » Elizaren barruan sexu indarkeriaren edo pederastiaren biktima izan diren pertsonen laguntzeko bitartekoak ezarriko dira.

2. Herritarron Ongizatea

2.1. Gizarte Zerbitzuak

Legealdiko balantzea. Egungo egoera

Gasteizko eta Arabako gizarte-politiken inboluzioa argia da. Gobernu eskuindarrek (EAJ-PP), legegintzaldi honetako gehiengo osoarekin, Arabako gizarte-zerbitzuen debaluazioak eta izen ona galtzeak gora egin dute.

Pandemiak agerian utzi zuen EAJ-PSEk zaintza-lanetan Arabarako nahi duen bide pribatizatzailea ez zela egoeraren parekoa izan, eta profesionalek dena eman bazuten ere, gure gizarte-zerbitzuen sistemak ez zituen erabiltzaileak, haien familiak eta gizarte-arloko profesionalak babestu.

Pandemia aukera bikaina izan zitekeen Arabarako gizarte-zerbitzuen eredu berri bat sortzeko, baina Foru Gobernutik itxaron-zerrenda luzeak, prestazioak eta gizarte-zerbitzuak jasotzeko epeen luzapena, baliabide askoren saturazioa eta egoitza-plazen ezabapena, hala nola San Prudentziokoak edo gizarte-bazterketa larrian dauden pertsonak, artatzen zituzten 5 etxebizitzak baino ez zuen ekarri.

Legegintzaldia amaitzear dagoela, oso egoera kezagarria dugu Arabako Gizarte Zerbitzuetan: dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako arreta-baliabideak gainezka daude, adinekoentzako plaza publikoak desegin dira, arreta goiztiarra jasotzen duten landa-eremuko familiek tratu-diskriminazioa pairatzen dute Arabako gainontzeko familiekiko, itxaron-zerrendak luzatzen dira inolako konponbiderik eskaini gabe eta zainketa-lanetako prekarizazioak ez du mugarik.

Legegintzaldi honetan, Gasteizko Udaleko burkideekin batera, zaintza-plan estrategikoak egin ditugu, BiziOn izeneko sortakoak. Herri Programa honen helburua, beraz, da gure proposamenak Araban eta Gasteizen gauzatzea.

Aurrera begirako ildo nagusiak

Ongizatearen 4. oinarria izango den Gizarte Zerbitzuen Sistema ezartzea, pertsonak erdigunean kokatuz, haiek ahaldunduz eta gizarte-zerbitzuak eta prestazioak sistema patriarkalak eta neoliberalak berak sortutako egoerak arintzeko berezko eta beharrezko eskubide gisa ulertuz.

Proposamen zehatzak

Legegintzaldi honetan zehar EH Bilduk BiziOn sortako plan estrategikoak landu ditu Foru Erakundetik artatzen diren kolektiboek arreta eta zaintza emateko. Gure proposamen guztiek bizitza duinak eta kalitatezko zerbitzuak bermatzea dute oinarri.

2.1.1. BiziOn Adinekoak

- » Ikuskapenak: Zentro pribatuetako ikuskapen-zerbitzuko plantilla lehenbailehen handitzea. Ikuskapen-eredu berria, gardenagoa eta bermatzaileagoa
- » Zaintza-etxeak: Zaintza-etxeen eredua ezartzea makroegoitzetan. Ariznabarra zaintza-etxe publikoa.
- » Mendekotasuna duten pertsonentzako egoitza-zerbitzu eta eguneko zentro berriak sor daitezen bultzatzea, Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoek (PEVS direlakoak gaztelaniaz) Araban duten eragina murrizteko.
- » Mendekotasuna duten pertsonentzako prestazio ekonomikoak bultzatzea.
- » Zerbitzuak eskuratzeko itxaron-zerrendak murrizteko dauden estaldurak handitzea

2.1.2. BiziOn Desgaitasuna

(https://ehbildu.eus/herriak/araba/dokumentuak/EU_1651654720.pdf)

- » Mendekotasunaren eta desgaitasunaren balorazio- eta orientazio-zerbitzuak indartzea, besteak beste, erantzun epeak murrizteko.
- » Arreta goiztiarra: Zerbitzuaren deszentralizazioa eta landa-eremuan bizi diren familientzako finantzaketa bera bermatzea.
- » Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako arreta, programak eta arreta-zerbitzuak bizi-kalitatearen eredura, pertsonarengan oinarritutako plangintzara eta laguntzen paradigmara egokitzea.
- » Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako egoitza-arretako plaza kopurua handitzea, bai iraunkorrak, bai atsedendikoak. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen arreta emateko eguneko arreta-baliabideak dibertsifikatzea eta erabiltzaileen behar eta profiletara egokitzea.
- » Atsedeen hartzeko pisu pilotua. Urte osoan irekita egongo den eta dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako egonaldiak eskainiko dituen etxebizitza bat sortzea proposatzen dugu. Pertsona horiek zerbitzu hori denbora laburrerako erabiltzen dutela aprobetxatuko da, bizitza aktibo eta osoa erraztuko duten jardura terapeutikoak indartzeko.

- » Eguneko arretarako zentroak: Plazak handitzea eta asistentzia- eta integrazio-eredu berri bat ezartzea proposatzen dugu, hainbat eremutan laguntzak eskaini ahal izateko: lan-zentro okupazionalak, bizitza independentea babesten duten zentroak, gizarte-, harreman- eta kultura-arretarako zentroak eta zentro espezifikoak.
- » Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako aisialdia sustatzeko eta bermatzeko hitzarmena. Gaur egun, dibertsitate funtzionala duten pertsonak edota familiak ordaintzen dituzte aisialdiko jarduerak. Familia batzuek ezin diote aurre egin jarduera mota horrek dakarren koste handiari, eta, beraz, Hirugarren Sektoreko erakundeekin hitzarmen bat egitea proposatuko genuke, koste ekonomikoa murrizteko.

2.1.3. BiziOn Inklusioa

- » Errolda soziala normalizatzea, herritartasun eskubideak eskuratzeko bide gisa.
- » Erroldatzeko lekuak gehitzea eta errolda lortzeko baldintzak malgutzea.
- » Kalteberatasun-egoeran eta gizarte-bazterketa larrian dauden pertsonentzako arreta-plaza gehiago sortzea. Baliabide eraginkorrak eta gizarte-arriskuko egoeratik ateratzeko lagungarriak, pertsonak euren bizitzaren eta gizarteratze-ibilbideen protagonista izan daitezen.
- » Osasun Sailarekin batera, gaixotasun mentala eta egoitza-bazterketa duten profilei arreta egokia emateko koordinatzea.
- » Eguneko zentro bat eta gaueko arretarako zentro bat sortzea gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonentzat

2.1.4. BiziOn Adin Txikikoak eta Familia

- » Familia-harreraren ereduaren aldeko apustua; besteak beste, familia-harrerako bulego bat sortuko litzateke, etxetik irten behar diren adingabeak beste familia batzuek har ditzaten, familia-ingurunean, harrera-pisuetan hartu beharrean.
- » Egoitza-baliabideen eredua aldatzea: Egoitza-harrerako programak familietan esku hartzeko programekin lotu; izan ere, adingabeak egoitza-harrerako sarean sartu arren, helburua da familia gaitzea adin txikikoa kalitate- eta segurtasun-baldintzetan itzul dadin. Egoitza-baliabideak izan behar dira azken baliabidea, kaltegarriena delako. Baliabide txikiak izango

dira, plaza gutxikoak, ingurune normalizatueta eta adingabea bere ingurunean (auzoan, eskolan...) egotea ahalbidetuko dutenak.

- » Emantzipaziorako prestatzeko pisu bat eta emantzipatzeko beste bat sortzea proposatzen dugu, lehendik dauden pisuekin bat egiteko. Arretaren gehieneko adina igotzea ere proposatzen dugu, gure ustez, gazte horiek, adin-nagusitasunarekin, kalteberatasun-egoeran jarraitzen dutelako. Horregatik, behar diren kasuetan, pertsona horiek etxebizitza horietan bizi ahal izango dira, baita 23 urte bete arte ere. Arreta berezia jarri behar zaie 18 urte betetzean kalteberatasun izugarriko egoeran geratzen diren gazte migratzaileei.
- » Harrera osteko jarraipen-programak: Prestazio ekonomikoen estaldura zabaltzeaz gain, programa honen arreta-denbora gehienez 23 urtera luzatzea proposatzen dugu (21 urte, lehen urrats gisa), eta programa horrek erreferentzia espazio bat izatea. Biztanleria talde honentzako babes- eta segurtasun-topagune bat, bulego batekin, egongela gisa elkartzeko gune batekin, ordenagailuarekin gazteen eskura jartzeko, tailerrak, hitzaldiak, jarraipena eta laguntza emateko.

2.1.5. Gizarte Ongizatearen Foru Erakundea (GOFÉ)

- » Enplegu Publikoko Eskaintzen bidez GOFÉko plantilla finkatzea, bitarteko langileen tasa eta langileen zahartze-maila handia murrizteko.
- » Zerbitzuak berrantolatzea eta Herri Programa honetan proposatutako aldaketetara egokitzea.
- » Zerbitzu berrien kudeaketa zuzenaren aldeko apustua.
- » GOFÉren zerbitzu propioen eta azpikontratatu lanbide-kategoriak arautzea.
- » GOFÉko langile guztiei sexu- eta genero-aniztasunari buruzko prestakuntza espezifiko eskaintzea eta bermatzea.
- » GOFÉren mendeko Gizarte Zerbitzuetara jotzen duten LGTBI+ pertsona guztiek kolektiboarentzat eskuragarri dauden baliabide guztiei buruzko informazioa jasoko dutela bermatzea.

2.1.6. INDESA

- » INDESaren hasierako filosofia berreskuratzea eta dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat lanpostu duinak sortzea proposatzen dugu. Lan-ildo berriak eta okupazio-eremu berriak irekitzea proposatzen dugu, egungo gizarte-premietara eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen egungo beharretara egokituta.
- » Enplegu Lagundurako Aholkularitza sortzea, lanpostu lagunduak koordinatu, ikuskakatu eta bilatzeko unitate bat izango da. Desgaitasuna duten pertsonei enplegu arrunta bilatzen laguntzea izango du helburu.

2.1.7. BiziOn Landa Eremua

- » Autonomia handiagoa ematea Arabako udalerriei euren eskumeneko gizarte-zerbitzuak garatzeko (eguneko arretarako landa-zentroak, etxebizitza komunitarioak, tutoretzapeko apartamentuak, etxez etxeko laguntza-zerbitzua, etab).
- » Alde biko mahai bat sortzea udalen eta Foru Aldundiaren artean, euren eskumenen kudeaketa hobetu nahi duten udalerriak diskriminatuko ez dituen finantzaketa-eredu bat adosteko.
- » Udalei dagozkien Gizarte Zerbitzuak Ezartzeko Aparteko Funtza kudeatzea.

2.2. Dibertsitate Funtzionala

Legealdiko balantzea. Egungo egoera

Herritar guztiei bermatu behar zaie erakundeetarako irisgarritasun unibertsala, horretarako beharrezkoak diren zerbitzu publikoak eta elkarteak sortuz. Lehentasuna eman behar zaio dibertsitate funtzionala duten pertsonei eskubideen eta betebeharren subjektu izateari, eta horretarako dauden oztopoak murriztu behar dira, bazterketa ekonomikoa saritu/arindu beharrean. Erakunde publikoen jarduera ezinbestekoa eta premiazkoa da helburuok bermatu eta helburu horiek lortzeko bideratzen diren baliabideak behar bezala eta zorrotz erabiltzearen.

Ezin dugu onartu behin-behineko salbuespena iraunkor bihurtzea. Ildo horretatik, guztiok lagundu behar dugu errealitatea eraldatzeko. Erakundeek dibertsitate funtzionala duten pertsonen eskubideak eta aukera-berdintasuna bermatu behar dituzte, diskriminaziorik eta bazterkeriarik eza oinarritzko giza eskubideak direlako, eta hala adierazi behar diete herritarrei. Beraz, hori guztia legeetan ez ezik, pentsatzeko moduetan ere islatu behar da, eta eragina izan behar du eguneroko bizitzan eta gizarte-harremanetan. Horregatik, dagozkion mekanismoak ezarri behar dira

kontzientziazteko, errespetua sustatzeko eta dibertsitate funtzionala giza aniztasunaren beste elementu bat dela onartzeko.

Dibertsitate funtzionala duten/desgaitasun-egoeran dauden emakume-gizonen egoera (biztanleriaren % 10) zeharka eta sektoreka lotuta dago administrazioen kudeaketak barne hartzen dituen eremu guztiekin: hezkuntza, osasuna, enplegua, garraioa, etxebizitza, aisialdia, parte-hartzea, etab. Beraz, ezinbestekoa da dibertsitate funtzionalaren ikuspegia nahitaez presente egotea administrazioen proiektu eta jarduera guztien diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan, eta ez bakarrik tradizioz dibertsitate funtzionalari lotuta egon diren eremuetan, hala nola Gizarte Ongizatean eta Osasunean.

Aurrera begirako ildo nagusiak

Dibertsitate funtzionala duten pertsonen aurkako aurreiritzi, estereotipo edo segregazio oro desagerraraztea dugu helburu, benetako aukera- eta posizio-berdintasuna bermatuz. Gainera, eremu honetako talde guztiei politiken definizioan, kudeaketan eta ebaluazioan parte hartzeko aukera bermatu behar zaie, baita haietan eragiteko aukera ere. Dibertsitate funtzionalak prozesu guztietan duen eraginari buruzko txosten bat egin behar da, **bai arauak egiterakoan, bai politikak diseinatu eta garatzerakoan**. Aurreko guztia kontuan hartu behar da dibertsitate funtzionala duten pertsonen prestakuntza eta enplegua sustatzerakoan, baita lurralde-antolamendua eta mugikortasuna ikuspegi integral batetik diseinatzerakoan ere.

Bizimodu independentea izateko eskubidea bermatzea

Arabako erakunde publikoek eta, kasu honetan, Arabako Foru Aldundiak, euren eskumenen esparruan, barneratu eta ulertu behar dute beharrezkoa dela politikak, proiektuak, ekintzak eta abar bultzatzea bizitza autonomia garatzeko eskubidea bermatzeko, Desgaitasun-Egoeran dauden Pertsonen Eskubideei buruzko NBERen konbentzioan jaso bezala. Horretarako, konpromisoa hartu beharko dute bizitza independenteko proiektu bat hasi nahi duten kolektiboko gizon-emakumeen autodeterminazio-eskubidea eta bizi-proiektuaren autokudeaketa benetan garatu ditzaten beharrezkoak diren laguntzak, prestazioak, zerbitzuak eta bitartekoak esleitzeko.

Laguntza horiek bermatzea funtsezko kontua izan behar da disfuntzionalitate organikoak dituzten edota desgaitasun-egoeran dauden gizon-emakumeen Giza eta Herritartasun Eskubideak betetzera eta haien ongizatea bermatzera bideratutako politiketan; disfuntzionalitate organikoak/dibertsitate funtzionala dituzten pertsonen beharrei erantzun dieten sailek garatutakoetan ez ezik, Bizitza Independenteko proiektuen garapenarekin lotutako edozein eremutan eskumenak dituzten sail eta erakunde guztietan: etxebizitza, garraioa, enplegua, hezkuntza, kultura eta kirolak, osasuna, ongizatea, laguntza pertsonala, laguntza-produktuak, irisgarritasuna.

Kontua da Bizitza Independenteterako eskubidea gauzatzea eta aitortzea, Desgaitasun-Egoeran dauden Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren 19.

artikuluak xedatzen duenaren arabera (modu independentean bizitzeko eta komunitatean sartzeko eskubidea, hau da, desgaitasuna duen pertsonak bere existentziaren gaineko erabakimena gauzatu eta bere erkidegoaren bizitzan aktiboki parte hartzen duen egoera, nortasuna askatasunez garatzeko eskubidearen arabera).

Beraz, EH Bilduk sustatuko du Arabako Foru Aldundiak bizimodu eredu independente bat sortu dezan dibertsitate funtzionala duten Arabako biztanleentzat, autodeterminazioa eta komunitatean parte hartzea bermatzeko gizarteratze-baldintza eraginkorretan. Horretarako, beharrezko baliabide eta laguntza egokiak sortu eta garatuko dira.

Horrek zera esan nahi du:

- » Dibertsitate funtzionala/desgaitasun-egoera duten gizon-emakumeen eskura jartzea autodeterminaziorako eta herritarren eta komunitatearen partaidetzarako eskubideen garapen osoa bermatuko duten beharrezko baliabideak eta prestazioak, foru-eskumenen esparruan.
- » Irigarritasun unibertsala, herritarren eskura dauden eta zuzenean edo zeharka foru administrazioak kudeatzen dituen baliabide, ondasun eta zerbitzuen erabilera eta gozamena baldintza berdinetan bermatzen duena.

Proposamen zehatzak

1. Gizarte-kontzientziazioa

- » Urritasunei buruzko sentsibilizazio-, kontzientziazio- eta hezkuntza-kanpainak abiaraztea aldizka, sistematikoki eta lurralde historikoko biztanle-talde guztiei zuzenduta.
- » Kolektiboari eta desgaitasun- eta diskriminazio-egoerei buruzko kontsiderazio moralak, sozialak, kontzeptualak eta terminologikoa eguneratzea: kapazitatismoa, “mikrokapazitismoak” eta “makrokapazitismoak”.

2. Irigarritasun orokorra

- » Laguntza-txakurren figurak hala eskatzen duen foru araudian sartzea, eraikin, lokal eta garraioetan txakur-gidarien baldintza berberetan sartu ahal izateko aukera bermatzeko.
- » Herritarrei zuzendutako eta Arabako Foru Aldundiak antolatutako jarduerak guztietan zeinu-mintzairako interpreteak egongo direla bermatzea, eta Aldundiak babestutako jarduerak masiboetan horien presentzia bultzatzea.

3. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen enplegua eta prestakuntza sustatzea
 - » Erreserba kuotak handitzea eta foru administrazioak kontratatutako enpresek kuota horiek benetan betetzen dituztela bermatzea.
 - » Enplegu formulak arautzea eta sustatzea, hala nola enplegu lagundua, eta gizarte sentsibilizazioa egitea, funtzio publikoko arduradunei, funtzionarioei eta sindikatuei helarazteko.
 - » Teknologiak lortzeko eta erabiltzeko aukera erraztuko duten neurriak abian jartzea.
 - » Prestakuntzari, lan orientazioari, eskura dauden baliabideei eta aurrekoarekin lotutako beste alderdi batzuei buruzko informazioa lortzeko aukera bermatzea.
 - » Berdintasuna bermatzeko enplegu ekintza positiboak sustatzea.
 - » Enplegu publikoan diskriminaziorik ez dagoela bermatzea, kuotak ezartzea eta betetzea, lanpostuetara egokitzen laguntzea, prestakuntzarako laguntzak ematea, etab.
 - » Sektore publikoaren kontratazioan klausula sozialak ezartzea, dibertsitate funtzionala duten pertsonak baldintza duinetan kontratatzen dituzten enpresei lehentasuna emateko. Betetze mailaren jarraipena egitea eta berau kontrolatzea
4. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen informazioa lortzeko aukera ematea
 - » Foru Aldundiak sortzen dituen material didaktiko guztietan azpigituluak jartzea eta zeinu hizkuntza eta audio deskribatzaileak sartzeko, eta praktika horiek orokortzeko laguntzak ematea.
 - » Edukien euskarriari eta izapideak egiteari buruzko informazio publiko osoa lortzeko aukera erraztea.
5. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen irisgarritasun urbanistikoa erraztea
 - » Irisgarritasunari eta haren jarraipenari buruzko azterlan bat egitea Arabako Foru Aldundiak sustatutako obra proiektu guztietan.
6. Foru garraio publikoaren irisgarritasuna bermatzea

- » Foru garraioko zerbitzu publiko guztiak – ibilgailuak, geltokiak eta geralekuak, leihatilak eta informazio-zerbitzuak – herritar guztientzat irisgarri izango direla bermatzea, eta horien erabileran diskriminaziorik edo desgaitasunazirik edo konparaziozko bidegabekeriarik egingo ez dela bermatzea, erabilgarritasunari edota koste ekonomikoari dagokienez.
 - a. Taxiak: Arloko foru-araudia berrikustea indarrean dauden araudiak eta, batez ere, aurreko helburua betetzea bermatzeko.
 - b. Hiriarteko autobusak: Hirugarren pertsona baten beharra edo menpekotasun maila aitortuta duten pertsonen laguntzaileei txartela ordaintzetik salbuestea Foru Araudian.
 - » Eskualde Garraioko ibilgailuak pertsona guztientzat irisgarriak direla bermatzea.
7. Berdintasunezko inklusiorako politikak sustatzea, betiere partaidetzakoak eta kalitatezkoak
- » Politika eta sail guztietan dibertsitate funtzionala duten pertsonen irisgarritasuna, aukera berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzea, ikuspegi integratzaile eta ez-asistentzialista bati jarraiki.
 - » Eragile guztien parte-hartze aktiboa sustatzea eta erraztea, bai erakundeetan, bai gizartean, kolektibo honetako emakumeen eta talde espezifikoaren zailtasun bereziak kontuan hartuta.
 - » Dibertsitate funtzionala duten pertsonen bizitza independenterako programak abian jartzea, eta bizitza independenterako erreferentziazko zentroak sortzeko aukera sustatzea.
 - » Fiskalitatea berrikustea eta hobetzea dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat, batez ere %65etik gorako desgaitasun maila duten pertsonentzat, euren baitan dibertsitate funtzionala duten pertsonak dauzkaten familientzat eta haien elkarte eta kolektiboentzat.
8. Kirolaren, kulturaren eta aisialdiaren esparruetan neurriak bultzatzea
- » Aisialdirako programa publiko egokituak sustatzea.

- » Familia-aldagela irisgarriak foru titulartasuneko kirol zentroetan.
- » Museo, arte-zentro, gizarte-etxe, kultur-etxe eta kirol instalazio guztien irisgarritasuna bermatzea.
- » Kirol egokitua sustatzea maila guztietan: eskolan, eskolatik kanpo, oinarritzko mailan, afizionatuetan eta profesionaletan.
- » Herritarrei zuzendutako inprimatutako materialak erraz irakurtzeko formatuan editatzea.
- » Euskara: Euskara ikasteko materialen sorkuntza bultzatzea formatu eskuragarrietan: irakurketa erraza, Braille, audioliburuak, etab.
- » Ignacio Aldecoa liburutegian irakurketa errazean eta Braille zein audioliburu formatuan argitaratutako materialak eskaintzea.

2.3. Osasungintza

Arabako Foru Aldundiak Osasun arloan eskumenik ez duen arren, uste dugu garrantzitsua dela Herri Programa honetan islatzea EH Bilduk Foru Gobernu berritik Eusko Jaurlaritzari planteatuko dizkion eskaerak, Arabako herritarrek arlo honetan dituzten behar eta eskakizunei erantzun egokia emateko.

- » Arabako lurraldean baditugu aspaldidanik aintzat hartu ez diren gaiak, eta areagotu egin da horien beharra. Adibidez, Lezako Ospitalea behingoz eskualdeko ospitale bihurtzeaz ari gara. Ildo horretatik, Errioxa ESko gaixo kronikoentzako ohe-kupo bat mantentzearekin batera, zentro hori oinarritzko ospitale-zerbitzuez hornitzea proposatzen dugu.
- » Gaur egun, Errioxako eta Arabako gainerako landa eremuetako emakumeak behartuta daude Gasteizera etortzera, mamografia bat bezain ohikoak baina oso garrantzitsuak diren kontuak egitera. Lezako ospitalea egokitu bitartean, eta landa eremuko gainerako lekuetarako modu iraunkorrean, mamografo ibiltari bat martxan jartzea proposatzen dugu, arazo hori konpontzeko.
- » 40.000 biztanle baino gehiago ditu Aiaraldeak, eta osasun arloan konpondu gabeko arazo nabarmenak ditu. Besteak beste, Usansoloko ospitalera joateko egungo garraio publikoa ez da eraginkorra, behar den denbora dela-eta. Gainera, Kuadrilla bera hainbat ESltan banatuta dago (Artziniega Gurutzeta ESkoa da, eta gainerakoak Galdakaora joaten dira). EH Bilduk etorkizuneko

Laudioko Osasun Zentroari eskualde-ikuspegia ematearen alde egin du, eskualdeko egungo osasun gabeziak konpontzen lagun dezan. Horretarako, azterketa sakon bat egin behar da, egungo osasun ibilbide amaigabeen azterketatik abiatuta eta herritarren parte-hartzearekin, eskualdearentzat beharrezkoak diren zerbitzuak eraginkortasun eta hurbiltasun irizpideetatik zehazteko.

- » Araban hirugarren anbulantzia medikalizatu bat izatea ere premia larria da. Eta ez da nahikoa ibilgailu hori edukitzea. Ramiro Gonzalezek duela hilabete batzuk prentsurreko batean iragarri zuen arren, oraindik ez da erosi. Anbulantzia zerbitzurako behar diren bost ekipo profesionalak ere jarri behar dira, zerbitzu aktiboa izan dadin eta herritarren eskura egon dadin 24 orduz egunean, larrialdi-kasuetarako berme gisa. Gure ustez, anbulantzia honen kokapenik logikoen Lezako ospitalea da, horrela Herrialdearen hegoaldeari zerbitzua emango zaio eta Gasteizko arreta indartuko du beharrezkoa den guztietan.
- » Konpondu eta indartu beharreko beste konstante bat lehen mailako arreta da. Herrialde osoan zehar ordutegi eta zerbitzu murrizketen adibideak ditugu. Oro har, lehen mailako arretaren azterketa orokorra egin behar da Arabako lurralde osoan. Lehen mailako arretako sare osoa etengabe indartzea planifikatu behar da: espezialista falta detektatzea eta horri irtenbidea ematea, erizaintzako zerbitzuak indartzea, hitzorduen kudeaketa hobetzea... Halaber, ezinbestekoa da etxean ospitaleratzeko aukera lurralde historiko osora zabaltzea, gaur egun Gorbeialdeko, Mendialdeko eta Añanako udalerri batzuk aukera horretatik kanpo baitaude.
- » Azkenik, kezkatuta gaude Arabako ospitale psikiatrikoan izan daitezkeen murrizketei buruzko albisteekin, eta zentro horretako profesionalekin eta Osakidetzako ordezkariak sindikalariekin batera, erne egongo gara murrizketarik gerta ez dadin eta edozein antolaketa-aldaketa beti egin dadin asistentzia psikiatriko publikoa hobetzeko eta handitzeko helburuarekin, pandemiaren ondorengo egoerak eta krisi sozioekonomikoak biztanleria osoaren arreta psikiatrikoaren beharrak eta, bereziki, gazte eta haurrenak, areagotu dituzten une honetan,.

2.4. Kultura

Sarrera:

Kultura ez da atal bat gehiago edo azken tokian uzten den atal bat, pertsona gisa eta herri gisa libre egiten gaituen ondarea baita. Kultura tolerantziaren eta errespetuaren oinarria da, baina baita espiritu kritikoa ere, gaur egun inoiz baino beharrezkoagoa

dena bereizten jakiteko, egungoak bezalako garai gorabeheratsuetan. EH Bilduk kultura bere zentzu zabalean ulertzen du, gure hizkuntza, historia, literatura eta musika ezagutzetik gure lurraldean elkarren ondoan bizi diren kultura eta hizkuntza guztiak ezagutu eta errespetatzeraino. Kulturatzat hartuta artea, musika, literatura, zinema, arte eszenikoak, adierazpen kultural eta artistiko guztiak, arkitektura eta ondare materialaren eta immaterialaren babesa. Eta ondare immaterialaz mintzo garenean, belaunaldiz belaunaldi transmititu diren tradizio, ohitura eta jakintza guztiez ari gara.

Kultura pertsona guztien esku egon behar dela. Kultura ezin da utzi elite batzuen esku, ezta kultura “erabili” egiten duen klase politikoaren gidaritzapean ere, talentu berriak aurkitu eta bide berriak urratzeko hura oinarritik sustatu eta bultzatu baino gehiago.

Legealdiko balantzea. Egungo egoera

Krisi soziosanitarioak kolpe latza eman zion kulturari eta kultur eragileei, hainbat hilabetez erabateko etena pairatu baitzuten. Kultur sailak egoera leuntzeko hainbat neurri hartu zituen, tartean formatu txikiko emanaldiak edo Gasteizko Iradier Arena suspertuz Kultur Bizia elkartearen kudeaketapean.

Halere, esan daiteke bere horretan jarraitzen dituztela egiturazkoak diren arazoak. Kezka eta ezinegona zabalduta dago kulturgile gehienen artean. Orohar, ez dira behar bezala baloratuak sentitzen. Duela urte batzuk, PPK jaitsi zituen %46a diru laguntzak, zerbait errekuaratu zen gero, baina inola ez nahikoa. Gabezia estrukturala da. Urteak joan, urteak etorri, egoera ez da aldatzen. Egoera prekarioa da nagusi. Lehentasunetan ez dago kultura.

Krisi honek agerian utzi du zein egoera kaxkarra bizi duten sektore honetako langileek, eta zein zaurgarriak diren. Diru laguntzak eta aurrekontuak nahikoak ez izateaz gain, hainbat sortzaile eta kulturgile diru laguntzeetatik kanpo geratzen dira. Batzuk, kultur adierazpide anitzak lantzen dituztelako, nolabait kultura hibridoa lantzen baitute, edo sorkuntzan edo berrikuntza sozialean oinarritzen direlako, eta dauden diru laguntzak ez daude pentsatuak sortzaile hauentzat. Vital Kutxak ere oso diru gutxi ematen dion kulturari.

Ematen du Kultura sailak baduela asmoa dirulaguntzetan aldaketak emateko eta, beraz sorkuntza eta berrikuntza kulturala kontuan hartzeko. Aldaketaren bat eman da zentzu honetan.

Kultur sailak argi ilunak izan ditu. Komunikazioa eman da zenbait kultur eragileekin eta neurri eta erabaki batzuk norabide egokian joan dira. Adibidez, elkarlana eman da Artziniegako museo etnografikoarekin. Arabako kultur plan estrategikoa 2023-2028 ez dute aurkeztu agindu bezala, bai egin dutela prozesu parte hartzailea eta aurrerapen bat. Hurrengo legealdian honen jarraipena egin beharko da.

Kexaako monumentu multzoa erosi eta konponbidea emango diote hemendik aurrera. Gune hori museo bat izateaz gain, baditu bestelako eraikuntzak eta eskualdeko kultura eta turismorako erreferente izan beharko litzateke. Legealdi hasieran aurrekoan bezala,

ehbildu

guk eskatuta Riberako eliza eta pinturak zaharberritu zituzten. Gure beste ekimen batzuk onartu dituzte ere: Legardagutxi berreskuratzea, Arabako Errioxako lagareak eta haitzetan egindako paisaia babestea, Assa gaztelua, Gaubaeko ondare historiko-arkeologikoa balioan jartzea...Iragarri zuten Zientzia Naturalen museoa Eskoriatza Eskibelen, baina kronogramaren arabera 2030 urterako da, badirudi dirua lortu nahi dutela Europa edo Madrildik eta hau iristen ez bada ez dute egingo. Laudioko Lamuzako jauregia eta kultur etxean urratsak eman dituzte, baina ez dute bete agindutako epea.

Arkeologian, trikuharriak balioan jarri dituzte, Pariburu trikuharria, guk eskatuta induskatu zuten, diru asko lortu dute Iruña Veleiarako, ikusi beharko da zer egiten duten. Aurreko plan zuzentzailea desastre xamar izan zen, ez zituzten jarritako epeak eta helburuak bete. (Nire ustez, ez diote konponbide egokia eman grafitoen kontuari. Azterketak independenteak egin beharko lituzkete, oraindik itxi gabe baitago eta ez direlako argitu zalantza guztiak). Arkeologia jarduerak arautzeko Foru Araua egin behar zuten legealdi honetan , baina hasi baino ez dute egin. Diputazioak egindako hainbat aktuzio zalantzazkoak dira. Batzorde bat egon beharko litzateke aztarna arkeologikoak azaltzen direnean erabakitzeke zer egin. Kasu gehienetan estali dute aurkitutakoa (Memoria plaza, Villanañe, Villodas). Arkeologoen lan egoera kaxkarra da. Bermatu beharko litzateke egonkortasun eta iraunkortasuna. Ondarearen aurkako delituak ere ugaritu dira, metal detektagailuak direla eta, bitarteko nahikorik ez dagoela agerian geratu da.

Euskararen aldeko politika aktiboa zehar lerro moduan presenteago egon beharko luke. Legealdian ez diote arreta berezirik jarri euskararen sustapenari.

Kultura landa eremuan

Zailtasunak dituzte programazioak aurrera ateratzeko. Normalean landa eremuko udalek (bereziki udal txikiek) ez dute baliabide nahikorik (materialak: aulkiak, eszenatokia, gradak, etc.) jaialdi bat aurreraeramateko. Honez gain, Diputazioak ateratzen dituen dirulaguntzen oinarriekin ez daude ados. Kriba asko pasa behar dituzte, orokorrean, eta 0€ jasotzeko arriskua dute (puntuazio minimo batera heltzen ez badu aurkezten duzun proiektua).

Positiboki baloratu behar dira landu eremuan antolatzen diren kontuak. Batzuekin hitzarmenak sinatzen dira, eta beste batzuek deialdietara aurkeztu behar dute. Bereizketa hori ez da justua, ez dago irizpide argirik. Bestalde, dirulaguntzen tramitazioa azkartu, erraztu eta hobetu behar da. Izan ere, urte amaieran ez dakite zenbateko dirulaguntza jasoko duten (ezta zerbait jasoko duten ere). Hau da, jaialdia asko antolatzen dira jakin gabe zenbateko aurrekontua izango duten. Zailagoa da kulturarekin lotutako enpresa bat martxan jartzea landa eremuan. Laguntzak berezituak behar dira

Aurrera begirako ildo nagusiak

ehbildu

- » Beste paper bat aitortu behar zaio kulturari. Lan eta baldintza duinak bermatu behar zaizkie kulturgileei. Baliabideak eta diru laguntza handiagoak behar dira.
- » Kulturaren papera errekuperatu behar da. Bere balioak eta papera aldarrikatu gizartean. Herriak biziberritzeko eta komunitatea sendotzeko duten papera balioan jarri behar da . Hainbat talde herrietan bizi eta lan egiten dute, baina ez dira behar bezala kontuan hartzen.
- » Kultur politiketan eredu eta egitura parte-hartzaileak bultzatuko dira. entzuteko eta kontsultatzeko ez ezik, baita erabakietan parte hartzeko, kgestioa eta benetako elkarlana bermatzeko ere.
- » Kontuan izanik gure lurraldeko sakabanaketa eta desoreka demografikoak, EH Bilduk bultzada emango die sortzaileek, herritarrek, kultura-elkarteek eta beste eragile batzuek osatutako sareei, kultura-jarduerak Arabako txoko guztietara irits daitezen, baita landa eremura ere.
- » Kultura eskubide bat denez, herritar guztiei ziurtatu behar zaie. Kultura gizarte integrazio, kohesio eta ongizaterako tresna da eta beraz, sustatu behar da Arabako gizartea kohesionatuagoa, hobea eta kritikoagoa lortze aldera.
- » Kultura aisialdiaren funtziotik haratago joan behar du, Arabako gizartea eraldatzeko eta feminismoan, elkartasunean, aniztasunean, naturzaletasunean eta partehartzearen aldeko baloreetan sakondu behar du.
- » Euskal kultura eta Arabako adierazpen kulturalak ezagutarazi eta balioan jarriko dira lurralde osoan, baita Araban presente diren beste kulturak eta aniztasuna ere.
- » Arabako ondare immateriala babestea, kontserbatzea, ezagutaraztea eta hurrengo belaunaldiei helaraztea izan behar da helburu nagusienetakoa. Herriaren jakinduria osatzen duten elementuak: etnografia, kantak, dantzak, herri inauteriak, esaerak, ahozko literatura, toponimia, ohiturak,... bildu behar dira, gal ez daitezen eta hurrengo belaunaldiek ezagutu ditzaten.
- » Ondare materiala babestea, kontserbatzea, ezagutaraztea eta tokiko erakundeekin batera balioan jartzea eta datozen belaunaldi berriei helaraztea

Proposamen zehatzak

- » Arabako Kultur Mahaiaren eta plan estrategikoaren jarraipena eta sustapena egingo da kulturgileekin batera. Helburuak bete daitezzen neurriak hartu eta ebaluatuko dira.
- » Taldeak, kulturgileak eta sortzaileak entzun, kontuan hartu eta zaindu behar ditugu. Ezagutza eta elkar lan handiagoa sustatu behar da foroak eta komunikazio bideak bermatuz
- » Muntaketa eta ekoizpen eszenikoetarako dirulaguntza handiagoak eta bideratuagoak.
- » Programazio eskaintza zabalagoa eta ausartagoa. Gazteak erakartzeko programa berezia egin.
- » Kulturarako sarbidea bermatzea sektore pobretu eta prekarizatuenei (langabeak, gazteak, erretirodunak...) kultura arloan trebatu, parte hartu eta gozatzeko aukera izan dezaten.
- » Kultur deialdi “orokorretan” euskarari eta euskal kulturari toki eman. Kultur ekoizpenetan euskara sustatzea, baita euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea ere. Zeharkakoa izan behar da euskara.
- » Kultur sorkuntzan eta jardueretan emakumeen parte hartze ekitatiboa bermatu behar da.
- » Arabako foru kultura zentroyen kudeaketa parte-hartzailea eta kudeaketa partekatua sustatzea kultura ekimenekin, sortzaileekin eta abarrekin, gune publikoen kudeaketa pribatua saihestuta. Autokudeketan oinarria duten proiektuak lehenestea laguntza publikoak ematean; eta neurriak hartzea autokudeatutako guneak sustatzeko, hala nola lokalen lagapena eta talde artistikoentzat entseguko lokal publikoak sortzea.
- » Sortzaile berriek azterlanak, antzerkiak, arte eszeniko lanak, musika emanaldiak egin ditzaten sustapen eta behar besteko laguntza bermatu beahr da.
- » Sinergiak sortu behar dira Arabako Musika Eskolen eta Gasteizko Kontserbatorioaren artean, trukeak eta elkarlana sustatu Arabako museoan eta erakusketa-aretoen artean. Erakargarri nagusiak –Artium, Santa Maria Katedrala edota Gatz Harana– beren konfort-eremutik atera eta elkarlanean aritu behar dira beste egitasmo batzuekin.
- » Mezenazgo lege berria behar da, Europako herrialde batzuetan bezala, kultura laguntzen dutenei dedukzioak egiteko.

- » Kulturean lan egiten duten pertsonei etengabeko prestakuntza ziurtatuko zaie.
- » Gizartean sentsibilizazioa ere landu beharko litzateke.

Ondarea:

- » Arkeologia Foru Arau berria gauzatu behar da sektorearen eskakizunak kontuan hartu.
- » Lurraldean diseinatuko diren errepide, obra eta azpiegituren proiektuak egin aurretik behar bezalako indusketa eta azterketa arkeologikoak egingo dira eragin eremuetan.
- » Arabako Ondare Immateriala ezagutarazteko: publikazioak bultzatzea; Hezkuntza kurrikulumerako materialak prestatzea; Kontzeju, Udal eta Kuadrillei laguntzea ondare immateriala kontserbatzeko har dezaketen ekimenetan.
- » Ondarea babesteko, kontserbatzeko, balioan jartzeko eta ezagutarazteko plan estrategikoa egingo da. Bertan irizpideak, lehentasunak, finantzazio bideak eta ekimen nagusiak zehaztuko dira.
- » Plan estrategiko hori zuzentzeko batzorde bat osatuko da Diputazioa, arkeologoak, ondare eragileak eta toki erakundeen ordezkariak baten artean.
- » Interes berezia duten aztarnategiak txukundu, balioan jarri, seinalizatu eta informazio-panel egokiak jartzea.
- » Gaubean ondarea berreskuratzeko eta balioan jartzeko plangintza (Gaubeako udalean aho batez onartu zena) gauzatzeko da inguruko herritar eta toki erakundeekin batera.
- » Urteroko indusketa plana egitea: baimenak, diru-laguntzak, irizpideak finkatzea, kontrolak, kalitate neurgailuak, erantzukizunak, emaitzak... o Ondarearen ardura erakunde publikoena da, toki erakunde guztiekin (Kontzeju, Udal eta Kuadrillak) eta jendarte osoarena. Arabako Foru Diputazioak diseinatu eta garatzeko du plangintza Arabako eragile guztiekin batera, tartean ondare eragileekin, toki erakundeekin, Kuadrilletako turismo arduradunekin eta interesa erakusten duten bestelako eragileekin batera.

- » Obra publikoari zuzendutako aurrekontuaren % 1 erabiliko da ondarea babesten eta kontserbatzen. o Lurraldean diseinatuko diren errepide, obra eta azpiegituren proiektuak egin aurretik behar bezalako indusketa eta azterketa arkeologikoak egingo dira eragin eremuetan. o Ondarearen errehabilitazioa lanetan herritarren parte-hartze aktiboa bultzatuko da.
- » Museoak: Etengabe eguneratu, hobetu eta promozionatzearekin batera (La Hoya...), museoen ordutegiak eta bisitatzeko baldintzak hobetzea . Itxita dauden museoak irekitzeko edo berriak zabaltzeko azterketa egitea toki erakundeekin batera, turismo aukera berriak zabaltze aldera eta tokiko garapena lagunduz. Honekin batera, gure museoak dibulгатiboagoak eta malguagoak izateko bidea egin.
- » Kexaako monumentu gunea. Behin Diputazioak bere gain hartuta. Datorren legealdian abiatuko beharko da plan bat gune hori sustatzeko:
 - o Guneak dituen elementu historiko eta artistikoak bisitatzeko eta ezagutarazteko plangintza eta behar diren egokitzapenak egin.
 - o Eskualdeko turismoa eta ondarea ezagutarazi eta sustatzeko gunea izan behar da.
 - o Hainbat eraikin dituela kontuan hartuta, abiatu beharko litzateke prozesu parte hartzailea eskualdeko eragile kulturekin, guneak erreferente kulturala izateko eta bere espazioak kultur eragileek erabil ditzaten.
- » Lamuza parkea. Kulturlab eta Laudio kultur eragileekin batera, plan integral berezia egitea eduki eta funtzionamendu kulturala adostua eta partekatua abian jartzeko Lamuza parkean.
- » Ondare industrialak sailkatu, babestu eta balioan jartzea.
- » Ondare immateriala ezagutarazteko plan berezi bat abian jarri ikastetxeekin eta toki erakundeekin.
- » Guardiako Samaniego jauregia gune kulturala eta museistiko bihurtuko da . Bertan Amigos de Laguardia elkartearen materialak erakutsiko dira (Samaniego alegigilea, kultura, arkeologia, gerra zibilaren material...). Konbenio berezia egingo da elkarte horrekin Artziniegan indarrean dagoen modukoa.
- » Artzeniegako museo etnografikoa sustatuko da elkarlanean Diputazioa eta udalaren artean.

- » Liburutegiak: Liburutegi publikoetan euskarri berrietara egokitutako eskaintza zabaltzea. Beste Diputazioekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera Euskal Herriko Liburutegi Nazionalaren proiektu bultzatzea.
- » Ignacio Aldecoa kultur-etxean LGTBI+ literaturari eskainitako berariazko saila
- » Artxibategiak ezagutaraztea eta Artxibo historiko nazionala sustatzea. Elkarlana eta koordinazioa bultzatzea beste artxibategiekin: Apaiztegiko Artxibategia, Antso Jakintsua Fundazioarena, herrietakoak eta artxibategi pribatuak.
- » Euskal kultura sorkuntzaren historia osoan emakumeek egindako sormen lanak ahanzturatik ateratzea, eta garrantzi berezia ematea gaur egungo emakume sortzaileek egindako obrei

2.5. Kirola

Legealdiko balantzea. Egungo egoera

Hego Euskal Herriko 10 herritarretik 7 sedentario dira, eta jendartearen %40aren mugikortasun premiak ez dira oso aintzakotzat hartuak izaten kirol-politiken garapenean. Gainera, kirola ez dago krisi sistemikotik salbu; bere garapena kirol-egitura eta jardueretan zentratuta egiten du; eta ez kirolari eta pertsonak ardatz hartuta. Kirolak, jarduera fisikoak, bizitza aktiboak zehaztapen kontzeptuala behar dute. Kirolaren ikuspegi zabala proposatzen dugu. Jarduera fisikoa gure bizitzetan txertatzea proposatzen dugunean giza mugimenduaren adierazpen guztiak hartzen ditugu: Lehiatzeko entrenatzen den kirolaria, kiroldegira igeri egiten doan herritarra, bizikletaz lanera doan langilea, egunero paseatzera irteten dena edota aisialdirako baratza duena. Guretzat, denak izango dira helburu.


Izatez legegintzaldi honetan, eskola-kirolari dagokionez, aldaketa nagusi bat emateko aukera begiztatzen zen Foru Gobernuan, izan ere, 2020an 21/2020 Eskola-Kirolaren Foru Araua onartu genuen aho batez batzarkide talde guztien babesarekin. Bertan norabide aldaketa baten asmoak ikus zitezkeen. Elementu interesgarriak txertatu ziren bertan, horietako asko EH Bilduren ekimenari esker, hala nola egun klubek edota ikastetxe kontzertatu handiek, eskola txikien aurrean duten indar posizioa eta pisua arindu beharraren onarpena, egun Eskola Kirolak sortzen dituen arrakala sozialak leundu behar zirela, nesken/emakumeen benetako parte-hartzea sustatzeko asmoa edota euskararen normalizazioa eta erabilpena sustatzeko apustua. Balorazio azkar bat egiteko momentuan gaude, izan ere, ia 3 urte igaro dira Foru Araua onartu zenetik eta balizko noranzko berriaren garapenean, ez dira apenas aurrera pausorik eman.

Esan bezala, ekintza oso gutxi aurrera eramán ditu Foru Aldundiak zaharkituta dagoen eskola-kirola ereduari buelta emateko. Alorrik positiboena aipatzearren, neska-mutilen arteko berdintasunaren sustapena dago, bereziko 2022ko ekainean Emakumea kirolean jaialdiaren lehen edizioaren ospakizunarekin. Baina tamalez, beste alor gehienetan inolako ekintza konkreturik egin gabe aurkitzen da FA momentu honetan. Gauzak horrela, ez dugu askorik aurreratu lehiaketa soilera bideratuta dagoen eskola-kirola gainditzeko, kirol-anitzeko eskola-kirolaren sustapenean, EK ikastetxearen hezkuntza proiektuan eta urteko planean integratuta egon dadin edota euskararen erabileran.

Gainera Arabako Diputazioaren kirol politika, estrukturalak diren beste parametroetan murgilduta jarraitu izan du: kirol profesionalerako ohiko dirulaguntza politika, batez ere Arabako klub eta kirol nagusien mesedetan. Horrela sortzen ari den bi abiaduretako eskola-kirolari erantzuteko inolako estrategiarik gabe, Arabako eskola askotan dauden segregazio arazoak borrokatzeko tresna eraginkorra izan badaiteke ere eta herrietako kirol azpiegituretan eta aukera eskasetan eragiteko asmorik gabe.

Analisiarekin bukatzeko, ezin aipatu gabe utzi Covid-19ak sortutako krisia eta bere eragina eskola-kirolean eta gizartearen kirol ohituretan. Hilabete luzeetan bizi izan genituen debeku eta zentzugabekeria nagusienak kirol munduan eduki zuten bere islarik nabarmenena. Kirol profesionala eta enpresa handientzat diru-etekina suposatzen zuten praktika deportiboak baimendu zituzten bitartean, jendeari kirola egitea debekatzen zioten; kirol federatua baimendua zegoen bitartean, eskola-kirola debekatu zuten. Momentu hauetan agerian geratu zen, foru gobernu honentzat kirola bigarren mailako kontu bat dela. Izan ere, pandemiari nola aurre egin ez zekiten uneetan, ume eta nerabeek kirola egiteko duten eskubidea urratu zuten, erabakiak hartzen ari zirelako plantak egiteko. Esan bezala, mundu guztiak ikusi zuen Ana Del Val andereak zuzentzen zuen sailak zer nolako pisu eskasa eduki duen Ramiro Gonzalezen gobernu foralean. Egoerari aurre egiteko “bultzatza kirola!” plataforma sortu zen eta EH Bildutik aitzindaritzat hartu genuen, eskola-kirola martxan berriro jarri zedila eskatuz eta balizko egoera berrien aurrean berriro ere petxero izan ez zedin bermeak exijituz. Azkenean lortu genuen, guztion lanari esker, foru gobernuari iritziz aldaraztea. Hala ere hartu ziren erabakien ondorioz, ume eta nerabe askoren kirol ohituraren arrasto handia utzi da eta oraindik ere ez ditugu berreskuratu pandemia aurretiko lizentzia kopuruak. Hona hemen legislatura honen bilakaeraren datuak:

ESKOLA KIROLA LIZENTZIA KOPURUA			
	GUZTIRA	MUTILAK	NESKAK
2019-20	20.712	12.373	8.339
2020-21	14.031	8.380	5.651
2021-22	18.268	11.265	7.003
2022-23	19.127	11.722	7.405



Aurrera begirako ildo nagusiak

Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiari dagokionez, EH Bildurentzat honako arlo hauek dira funtsezkoenak hurrengo legealdirako:

- » Eskola-kirola, umetatik desberdintasun oro (jatorri, hizkuntza, genero, funtzionalitate eta abarrei lotutako guztiak) gainditzeko tresna ezin hobe da.
- » Eskola-kirola pertsona ororen garapen intelektual, emozional eta fisikoan berebiziko garrantzia hartzen du.
- » Kirola euskaraz, batez ere haur eta gazteen erabilerari begira daukan balio estrategikoagatik.
- » Kirola eta genero berdintasun politika, umetatik genero berdintasunaren balioak landu eta neska zein mutilengana txertatzeko.
- » Arabako kirol azpiegituren mapa orekatua, erabilgarria eta irisgarria eskuratzea, arabar guztiok aukera izan dezaten euren nahi eta beharrei egokitutako kirol jarduera burutzeko.

Helburu hauek lortzeko, funtsezkoa iruditzen zaigu Arabako Foru Aldundiak ikuskaritzalanak indartzea eta lan horren emaitzen arabera aholkularitza eta dirulaguntzak fintzea, jarduera onak sarituz eta jarduera okerrak zuzentzen lagunduz. Horrek dakar, besteak beste, ikuskari taldea handitzea.

Proposamen zehatzak

1. Eskola-kirola elementu sozial aglutinatzaile gisa bultzatzea

- » Eskola-kirola elementu sozial aglutinatzaile gisa bultzatzea
 - » Eskola-kirolaren plan estrategikoa behar dugu, abiapuntutzat hartuta Denon Eskolak egindako azterlana. Helburua berdintasun-printzipioa eta sortzen diren arrakalak gainditzeko neurri zehatzak ezartzea izango da. Horrela, erakunde ezberdinek beren proiektu eta plan estrategikoak egin ahal izango dituzte.
 - » Denon Eskolarekin hitzarmen bat sinatuko du Foru Aldundiak. Horretarako berariazko partida bat sortu beharko da, sare publikoko eskola guztietan eragina izateko anbizioarekin.
 - » "Konplexutasun indize handia" duten ikastetxeetan Ikasleen Guraso Elkartek diruz-lagunduko ditugu eskola-kirol hezitzailea izan dezan.
 - » Sarbidean ekitaterik eza ikusten da, honek segregazioa sortzen duelarik. Alde handiak daudenez errenta-mailaren arabera, hauek non ematen diren aztertu eta beka-sistema progresibo bat martxan jarriko dugu.
 - » Foru Aldundiak baliabideak eskainiko ditu lehen hezkuntzako etapa bukatzerakoan, ikasleek bigarren hezkuntzara igarotzerakoan aukera berdinak izan dezaten eskola-kiroleko modalitatearekin jarraitzeko. Horretarako, zentroetan eskaintzen diren aukerak koordinatzeko laguntza emango duelarik.
 - » Gobernantza kolaboratiboan aurrera-urratsak emango ditugu. Izan ere, jakin-badakigu sektorean inplikaturik dauden pertsonak direla bertan aurkitzen diren hutsune eta potentzialak hobekien ezagutzen dutenak. Norabide horretan ikas-zentroetako Eskola-Kiroleko koordinatzaile edota guraso-arduradunekin mahai bat eratuko dugu, gutxienez urtean bitan batuko dena. Bestetik, alor ezberdinetako ordezkariak (federazioetako presidenteak) batuko dituen espazioa eratzeko asmoa dugu. Marko hau gutxienez urtean behin batuko da eta helburua egoeraren ikuspuntu kolektiboa eraikitzea izango da.
 - » Sentsibilizazio kanpainak antolatuko dira berdintasuna eta lankidetzaren sustatzeko eskola-kirolaren esparruan.
2. Eskola-kirola pertsonaren garapen integralaren elementu gisa.
- » Arabako Eskola Kirolaren Oinarrizko Gida egitea, baliabide, aukera, dirulaguntza eta bestelako kontu guztiak modu argian jasota

- » Kirol jarduera inklusiboak eskainiko dira, betiere helburu pedagogikoekin. Topaketak sustatuko ditugu.
 - » Kirol anitzeko praktika bultzatuko dugu, presio lehiakorra saihestuz, mutilak eta neskak nahastuta eta kultura aniztasuna kontuan izanda. Egun diru-laguntzen bidez kirol-anitza sustatzen da. Hala ere, hori mantentzeaz gain, modalitate honen garrantzia, ezagutza eta onurak publizitzatzeko kanpainak abiatuko dira Foru Aldunditik.
 - » Administrazioaren, federazioen, klubien, elkarten, ikastetxeen eta ikasleen Gurasoen Elkarten arteko hitzarmenak sustatzea kirol modalitate desberdinak sartzeko eskolaz kanpoko jardueren bidez (curriculumean sartzeari).
 - » Eskola-kirola, ikastetxeen proiektu eta curriculum eskolarraren baitan egon dadin bultzatuko dugu.
 - » Partaidetza-araudi zehatzagoak behar ditugu. Federazioen araudiak aztertuko ditugu, eskola-adinean dauden umeen artean, parte hartzeari dagokionez desberdintasun handirik egon ez dadin.
3. Kirola, euskara eta euskal kultura.
- » Arabako kirol eta klubetan euskarazko jarduerak sustatzeko eta ezartzeko diru-laguntzen deialdia egonkortzea eta diru kopurua handitzea.
 - » Arabako kirol eta klubetan hizkuntza normalizaziorako planak ezartzeko diru-laguntzen deialdia sortuko dugu.
 - » Entrenatzaile eta epaile elebidunen prestakuntza sustatuko da.
 - » Esku-hartze berehalakoa eta urgentea behar duten kirol modalitate guztiekin hitzarmenak sinatzea, batez ere iraunkortasun arazoak dauzkaten Araban tradizio handia daukaten kirolei dagokienez: euskal pilota, herri kirolak, txirrindularitza...
 - » Euskarazko arnasguneetan kirol jarduera informalak sustatu (futbito txapelketak, 3x3 saski-baloia...).
 - » Egun Espainiako Kirol Selektzio ezberdinetan parte hartu nahi ez duten kirolariak ditugu Araban. Euskal kirolari asko ataka larrian jartzen dituzte Espainiako edota Frantziako kirol selekzioen deia jasotzerakoan. Izan ere ezezkoek mehatxu ezberdinekin erantzun ohi dira. Gauzak horrela,

instituzioetatik, uko egiten duten kirolariei, babes politikoa emateko konpromezua publiko adieraziko dugu.

4. Genero berdintasuna sustatzea kirolean eta bizitza aktiboan

- » Genero berdintasunean eta aniztasunean oinarritutako kudeaketa ereduak ezartzea Araban diharduten kirol erakundeetan, lankidetzat hitzarmen bidez.
- » Arabako kirol eta klubetan berdintasun planak ezartzeko diru-laguntzen deialdia egonkortzea eta diru kopurua handitzea, emakumezkoen egungo kirol esparruak sendotzeko eta gehitzeko, erabateko berdintasuna helburutzat hartuta baliabide material eta ekonomikoei dagokienez.
- » Kirol jardueretatik eta bereziki eskola kirolek jarrera sexistak (matxistak zein LGBTBI+fobikoak) ekiditeko protokoloak eta kanpainak.
- » Emakumezkoen jarduera fisiko, kirol eta txapelketak babestu, koordinatu, sustatu eta bultzatzea, informazio eta sentsibilizazio kanpainen bidez.
- » Emakumezkoen kirol jarduera ezagutaraztea, emakumezkoen kirol erreferentziak ere sortzeko.
- » Emakumeak entrenatzaile aritzeko sustapen kanpainak eta dinamika federazioekin elkarlanean.

5. Instalazioak, giza baliabideak eta azpiegiturak hobetzea

- » Eskola-kirolean diharduten hezitzaileen lan-baldintzak duintzeko konpromisoa, eragile ezberdinekin elkarlanean, gida bat osatzea sustatuko dugu.
- » EHUekin eta kirolarekin lotutako titulazioak ematen duten ikas-zentroekin akordioak egingo ditugu, ikasleek kredituak lor ditzaten, eskola-kirolean lan egin ezker.
- » Foru Aldunditik sustatuko dugu Eskola-kirolean diharduten hezitzaile guztiek jaso dezatela gutxieneko prestakuntza pedagogikoa.
- » Foru Aldundiaren kirol instalazioen katalogo hutsetik haratago, horien erabilera errealari buruzko azterlana burutzea, jakitearren zeintzuk dauden azpierzarritasunak eta zeintzuk dauzkaten masifikazio arazoak.

- » Toki Erakundeekin elkarlana, itxita dauden kirol instalazioak berriro martxan jartzeko.
 - » Babesa oinarrizko kirolari eta eskola kirolari, batez ere eskola-publikoetan, instituzio desberdinen instalazioen erabilera erraztuz.
 - » Foru kirol instalazioetako auditoria energetikoa egitea eta energia berriztagarrien bidez hornitzeko plangintza zehaztea.
6. Kirol jarduera gizarte osoari zabaltzea eta gizarte kolektibo guztientzat eskuragarri bilakatzea.
- » Bizimodu aktiboa sustatzeko instituzio arteko mahai bat sortzea proposatzen dugu, Arabako instituzio guztien artean lankidetzaren dinamika eta elkarlan-estrategia ezartzearen.
 - » Garrantzi berezia ematen diogu nerabeek kirol jarduera uzteko arrazoiak aztertzeari eta plangintza bat egiteari fenomeno hori ekiditeko, bereziki kezkagarria delarik neska gazteen kasuan ematen den egoera.
 - » Familia adiskidetzarako tresnak martxan jartzea foru kirol instalazioetan (ludotekak, familiarekin bateragarriak diren jarduera eta ordutegiak, besteak beste).
 - » Gune naturaletan egiten diren kirol jardueri buruzko sentsibilizazio kanpainak, gune naturalak zaintzeko eta erabiltzaile desberdinen arteko bizikidetzaren lasaia ziurtatzeko.
 - » Kirol lehiaketetan beharrezkoak diren egokitzapenak sartzea premia fisiko zein psikologiko bereziak dituzten pertsonen lehiaketa horietan parte hartzeko aukera izan dezaten.
 - » Hirugarren adinari zuzendutako jarduera fisikoa sustatzeko berariazko kanpainak, estrategia prebentibo, moderatu eta osasungarria gisa, biztanleriaren talde hori etengabe handitzen ari baita.

2.6. Arabako Suhiltzaileak Foru Erakundea

Legealdiko balantzea- Egungo egoera

2016an akordio politiko zabal baten bidez sortutako Arabako Suhiltzaileak Foru Erakundea sendotzeko legealdia izan behar zen 2019-2023koa, besteak beste, Foru Erakundearen hornidura teknikoa (ibilgailuen eta ekipamenduen erosketa) eta humanoa (suhiltzaile plantilla handitu eta, batez ere, egonkortu) erabateko lan gatazka batekin amaitu da:

- » Lan hitzarmenaren negoziazioa, sei urte pasa eta gero, guztiz apurtuta dago eta suhiltzaileak mobilizazio dinamika etengabea murgilduta.
- » Plantilla egonkortzea helburu nagusi izan behar zuen EPE bateratua (Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera egin beharrekoa eta Arkauteko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak antolatua) porrot ikaragarria izan da (bertara aurkeztu ziren behin-behineko suhiltzaileen %70k ez zuen gainditu Arkautek goitik behera diseinatu zuen proba psikoteknikoa, haietariko askok urteak Foru Erakundean lanean eraman arren eta batzuk kaboak izan arren), egungo plantilla egonkortzeko prozesua garai kritikoeneraino (udaldia) luzatuko baita, sartuko diren suhiltzaile berri asko Erakundean eta Araban inoiz lan egin gabeak izango baitira eta suhiltzaileen eta Zuzendaritza politikoaren arteko gatazka areagotu baino egin ez baitu.
- » Bestaldetik, eta organismoaren sorreran hartutako konpromiso politiko argiena (suhiltzaileak bikoteka aritzea, beti ere dotazio-buru baten zuzendaritzapean, eta, horrenbestez, irteera garrantzitsuetan lau suhiltzaile gehi dotazio-burua (gutxieneko segurtasun-dotazioa deitzen dena nazioarteko parametroetan) egotea, bilakatu da gehienetan lau suhiltzaile egotea (dotazio-burua barne, dotazio kritikoa deitzen dena aipatu nazioarteko dokumentuetan) eta, batzuetan ere, hiru izatea (dotazio-burua eta bi suhiltzaile, nazioarteko parametroetan guztiz ez-nahikoa kontsideratzen dena). Honen arrazoia da plantilla motz geratzen dela, ez-egonkortze tasa handia daukalako, besteak beste. Arazo hau konpontzeko saiatu diren neurriak (funtsezkoena, parke txikietako dotazioetan egondako hutsuneak betetzeko parke nagusitik suhiltzaile bat bidaltzea lanera edota bigarren parke batetik irteera ere egitea laguntza emateko) partxeo hutsak izan dira, arazoaren muina (suhiltzaileen zein herritarren segurtasuna bermatzea eta larrialdietan zerbitzu eraginkorra ematea) konpondu ez dutelako eta barne lan gatazka are gehiago muturtu dutelako.

Aurrera begirako ildo nagusiak

- » Lehenik eta behin, EAJ-PSEren Gobernuak erakutsitako negoziatziorako gaitasun, enpatia eta prestutasun ezak eragindako lan egoera gatazkatsua baketu behar da, eta horretarako elkarriketa zintzoa eta akordiorako gogoia funtsezko elementuak dira. Ia-ia zazpi urte pasa eta gero, lan hitzarmenaren negoziatzia ixtea erabateko lehentasuna da.
- » Hornidura materialean beharrezkoak diren inbertsioak bezain garrantzitsua da Foru Erakundearen giza baliabideen beharrak eta eskakizunak artatzea. Horretarako, lehenik eta behin, plantilla egonkortzeko prozesuak sindikatuarekin negoziatu eta adostu behar dira. Bigarrenaz, behar diren EPE guztiak egin behar dira gaur egungo behin-behineko tasa jasanezinak (%70 goi-arduretan, %30 dotazio-buruei dagokienez, %40 suhiltzaileen kasuan) murrizteko.
- » Parke txikietan (Agurain, Kanpezu, Espejo eta Biasteri) lau suhiltzaile eta dotazio-burua eta Laudiokoan sei suhiltzaile eta dotazio-burua egotea bermatu behar da txanda guztietan, urteko egun guztietan. Honek, ezinbestean, eskatzen du plantilla handitzea eta horretarako berrikusi behar da uztailaren 13ko 8/2016 Foru Araua berrikusi behar da, bertan beharrezko egokitzapen guztiak egiteko.

Proposamen zehatzak

- » Arabako Suhiltzaileak Foru Erakundearen lan egoera gatazkatsua konpontze aldera, EH Bilduk konpromisoa hartzen du bertako ordezkariak sindikalararekin lan hitzarmenaren negoziatzia zintzotasun osoz berrartzeko, 2023 urtea amaitu aurretik lan hitzarmenaren negoziatzia ixteko.
- » Martxan dauden EPEak amaitu bezain laster ordezkariak sindikalararen EPE eta prozedura berriak negoziatzea eta adostea, Arabako Suhiltzaileak Foru Erakundearen plantilla, bere kategoria guztietan, ahalik eta azkarren egonkortzeko.
- » EPE guztiak Arabako Suhiltzaileak Foru Erakundeak berak antolatzea eta, beste instituzio batzuekin batera antolatuz gero, kontrol eta parte-hartze zuzena izatea frogatzea desberdinen lanketan eta ebaluazioan.
- » 2023 amaitu aurretik uztailaren 13ko 8/2016 Foru Araua berrikusteko prozedura abiatzea, parke guztietan gutxieneko segurtasun-dotazioak bermatzeko (lau suhiltzaile + dotazio-burua Agurain, Espejo, Biasteri eta Kanpezun eta sei suhiltzaile eta dotazio-burua Laudioan), beste indar politikoekin adostasuna bilatuz horretarako. Horrekin batera, eta behin foru araua berrikusita, plangintza berezia egitea 2023-2027 legealdia amaitu

aurretik prozesu hori burutu dadin, horretarako behar diren EPEak antolatzeaz gain, 2024ko aurrekontuetatik aurrera behar diren egokitzapenak egingo dira funtzionamendu berriaren nahikotasun ekonomikoa bermatzeko.

3. Aberastasunaren Banaketa

3.1. Politika Fiskala

3.1.1. Balantzea

Beste lau urte igaro dira zerga-arloan ezer aurreratu gabe. EH Bilduk zerga arloan lortu nahi dituen helburuak dira zerga justizia, aberastasunaren benetako birbanaketa, ekonomia eta inbertsio arloko muskulua indartzea eta kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzea. Amaitu berri den legegintzaldian, aipatu helburuak betetzeko ez da inolako pausorik eman.

Lau urte hauetan, ekonomia etengabeko ziurgabetasunean bizi izan da hainbat egoeraren ondorioz: lehenik eta behin, COVID-19a dela eta, bai mundu mailan bai Euskal Herri mailan jasandako osasun-, gizarte- eta ekonomia-baldintzak. Ondoren, itzelezko inflazioak eta Ukrainako gerraren hasierak areagotutako prezioen igoerak. Denbora-tarte honetan, EH Bilduk krisiaren aurkako neurriak ezartzeko beharra defendatu du, eta horrela erakutsi du krisiaren aurkako neurriak proposatuz eta beste esparru instituzional batzuetatik (bereziki Espainiako Gobernutik, Kongresuaren bidez) etorri direnak babestuz. Hori guztia helburu bakar batekin: sektore sozial eta ekonomiko ahulenak eta okerren pasatzen ari direnak babesteko premia larria.

Baina, aldi berean, EH Bilduk hasieratik adierazi du ez dela nahikoa neurri aringarri horiekin. Behin baino gehiagotan salatu izan dugu Foru Erakundeek Madrilen onarturiko zerga-arloko proposamen jakin batzuk EAEn ezartzeko orduan Espainiako Gobernuaren ildo beretik jarraitu dutela, eta, horrela, frogatuta geratu da Euskal Ogasunek Ekonomia Itunaren arabera zerga-arloan duten autonomia fiskala gauzatzeko borondaterik ez dutela.

2022. urteko diru-bilketak errekor historikoa izan du, baina hori ez da gizartean islatu. Egia esan, denbora horretan gizarte-desberdintasunak areagotu egin dira. Familiei, sektore ahulenei, enpresa txikiei eta autonomoei eragiten dien prezioen igoera izugarria izan da; beste batzuek, berriz, irabaziak biderkatu dituzte, batez ere bankuek (Banco Santander, 5.000 milioitan) eta energia-enpresa handiek (Iberdrolak, 2.075 milioitan handitu ditu irabaziak, Repsolek 2.539 milioitan). Era berean, bereziki kezkatzen gaitu

etxebizitza eskuratzeko zailtasunak (alokairua eta/edo erosketa) eta alokairuen prezioen igoerak ez ezik hipoteken kuoten igoerak ere. Lau urte horietan ere ez da neurri eraginkorrik ezarri hazkunde horiek arintzeko eta geldiarazteko, eta errealitatea da familia askok ikusten dutela egoera horrek beren pobretze maila handitzen duela. Bestalde, oinarritzko zerbitzuetako sistema publikoa desagiten ari da, hala nola osasungintza edo Aldundien eta Udalen menpeko gizarte-zerbitzuak.

Ondoko hiru datuek berresten dute lehen aipatutakoa:

- » Diru-bilketa, batez ere, PFEZan eta BEZean oinarritzen da, hau da, langileen nominetan eta kontsumoan. Eta gainera kontuan hartu behar da BEZa guztiz atzerakoia dela, berdin ordaintzen baita edozein ahalmen ekonomiko izanda ere.
- » Madrilgo Erkidegoaren atzetik, Bizkaia eta Araba dira enpresa handiek edo fortuna handiek gutxien ordaintzen dituzten beste bi lurraldeak.
- » Gehien dutenei begirako zerga-presioa aztertuta, Euskadiko Autonomia Erkidegoa Espainiako Estatua baino 2 puntu gutxiagokoa da, Europa baino ia 5 puntu gutxiago, eta Europako herrialde aurreratuenekin (Frantziako Estatua, Danimarka edo Alemania, besteak beste) alderatuta, oso urrun gaude.

Horrek guztiak esan nahi du ez gaudela koiunturazko krisi baten aurrean, konbentzitzen saiatzen diren bezala. Gizartea konbultsio ekonomiko handiek markatutako garai batean murgilduta dago, eta, beraz, une honi ezin zaio ohiko errezeta ekonomikoen bidez aurre egin, mirari batek aurreko "normaltasunera" itzultzea esperoan.

EH Bilduk, hasieratik esan duen bezala, beste behin errepikatzen du: Etorkizuna prestatu behar da eta, ziurgabetasun handiko agertoki globalaren aurrean, gure erresilientzia areagotuko duten eraldaketa-prozesuei herri bezala ekin behar diegu.

Horretarako, EH Bilduk ezinbestekotzat jotzen du zerga-politikari buruzko eztabaida abiaraztea, helburu nagusitzat herri honetan sortutako aberastasuna zuzen banatzea izango duena, horrela pertsona guztien eskubideak zerbitzu publiko unibertsal eta kalitatezkoen bidez babesteko.

Ez da soilik neurri aringarriak hartzeko unea; beharrezkoak eta premiazkoak dira egiturazko aldaketak. Bada garaia zerga-erreforma justu, progresibo eta integral bati ekiteko, batez ere honako alderdi hauei eragingo diena:

- » Aberastasunaren birbanaketa sakona, 2008az geroztik gertatzen ari den laneko errentak kapitaleko errentetara aldatzea eteteko.
- » Aberastasuna metatzeko prozesuaren lehengoratztea, euskal gizarte osoaren ongizatearen oinarriak bermatzeko.

- » Diru-bilketa handiagoa, bidezko eran eta era progresiboan jasota, herritarrei eskubide eta zerbitzu publikoak bermatzeko, bai eta euskal erakundeek hamarkada honetako erronka estrategiko handiei (klima-alaketaren aurkako borroka eta trantsizio energetikoaren bultzada, eredu sozioekonomikoaren eraldaketa, digitalizazioa, demografia-erronka, ...) aurre egiteko beharrezkoak diren inbertsioak ere egin ditzaten.

3.1.2. Berehalako neurriak 2024rako

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

Goiko tarteetan artean, beste bi tarte ezartzea, tipoa handituz, bai likidazio oinarri orokorrean bai aurrezkiaren likidazio oinarrian.

Likidazio Oinarri Orokorrenak, 2024rako:

Oinarri likidagarria	Kuota osoa eurotan	Gainerako oinarri likidagarria	Tipo portzentajetan
0	0	17.280,00	23
17.280,00	3.974,40	17.280,00	28
34.560,00	8.812,80	17.280,00	35
51.840,00	14.860,80	22.190,00	40
74.030,00	23.736,80	28.500,00	45
102.530,00	36.561,80	34.140,00	46
136.670,00	52.266,20	62.570,00	47
199.240,00	81.674,10	150.000	49
342.240,00	155.174,10	200.000	50,5
542.240,00	256.174,10	Gainerakoa	52

Aurrezkiaren Likidazio Oinarriaren tipoak²:

Aurrezkiaren oinarria eurotan	Tipoa portzentajetan
2.500,00 eurora arte	20
2.500,01tik 10.000,00raino	21
10.000,01etik 15.000,00raino	22
15.000,01etik 30.000,00raino	23
30.000,01etik 150.000,00raino	25
150.000,01etik 300.000,00raino	27
300.000,00tik aurrera	28

Sozietateen gainerako Zerga

Dibidenduen %95 salbuetsita eta gainerako %5aren (kudeaketa gastu ez kengarriak) gainean, dagokien tipoa aplikatuko da³.

Enpresek ordaintzen duten gutxieneko tipo efektiboa % 15 izatea, emaitza kontable gehi dibidenduetatik zenbatuta.

Ondarearen gainerako Zerga

Enpresa-partaidetzen salbuespena %95, egungo %100-en ordeztu.

Zerga-ekutua ezabatzea.

Oinordetzak eta Dohaintzen gainerako Zerga

Enpresa-partaidetzen salbuespena % 90, egungo %95-en ordeztu.

Murrizpena 250.000 eurokoa izatea eta progresibitatea sartu %1,5etik aurrera

Fortuna Handien gainerako Elkartasun Zerga

Ekonomia Ituna aldatzen duen apirilaren 3ko 9/2023 Legeak arautzeko eskumena aitortzen digu. Ondarearen gainerako Zergaren erreforma sakona egin arte, indarrean sartuko da.

Hondakinak Zabortegietan uztearen, errausketaren eta hondakinak batera erraustearen gainerako Zerga

² Nafarroan eta Estatuan 2023an aplikatu duten moduan

³ Nafarroan eta Estatuan dagoen moduan

Apirilaren 3ko 9/2023 Legearen bitartez itundu da. Estatuaren eskumena izan arren, %20an igotzeko aukera daukagu. Klima aldaketan duen eraginagatik, Batzar Nagusiek 2023ko abendua baino lehen arautzeko eta bertan % 20ko igoera aplikatzeko eskatuko dugu.

3.1.3. Zerga erreformarako proposamenak

Zerga-sistemari buruzko eztabaida publikoa bultzatu behar da. Helburuak, baliabideak eta proposamenak eztabaidatu behar dira, eragile ezberdinen proposamenak kontuan hartuz.

Hona hemen, EH Bilduk, hainbat zergaren inguruan egiten dituen proposamenak:

Pertsona Fisikoaren gaineko Zergan:

- » Lan-errentak eta kapital errentak batu eta tipo bakarra ezarri.
- » 74.030 €-tik gorako diru-sarrerak dituztenei tipo handiagoak ezarriko zaizkie.
- » PFEZren progretsibitatea mantentze aldera, egun dauden kenkariak berraztertuko dira, errenta altuen kasuan, kenkariak murriztuz, eta errenta baxuenen kasuan, handituz, edo itzulgarri bihurtuz.
- » Kenkarien artean, bere biziko garrantzia du etxebizitzako alokairuari loturikoak. EH Bilduk finkatua du aspalditik alokairuen gehiegizko prezioei muga jartzea ezinbestekoa dela, inork ez lukeelako bere diru sarreraren %30a baino gehiago etxebizitza gastuei aurre egiteko erabili beharko, ezta diru sarreraren %15a baino gehiago egoera zaurgarrienetan aurkitzen direnen kasuan ere. Horri begira, honako proposamenak egiten ditugu:
 - Etxebizitza alokairua ordaintzen duten herritarren kenkariak egokitu eta haztatu behar dira errenta mailaren arabera. 17.280 € arte, kenkaria % 35ekoa izango da eta joango da gutxitzen 199.240 € arte, % 5 izango dena. Hortik gora ez da egongo kenkaririk.
 - Alokairutik errenta jasotzen duten pertsonen zergaren tipo altuagoak eta progresiboagoak ordaintzea, errenta mailaren arabera. 17.280 € arte, tipoa % 23koa izango da eta joango da handitzen % 49 izan arte, 199.240 € baino gehiago jasotzen dutenentzat.

Sozietateen gaineko Zergan:

- » Enpresek dituzten etekinak zergapetu behar dira, kontabilitate-emaizten gehi dibidenduen arabera. Eta lorturiko etekinen arabera tipo ezberdinak ezarri behar dira. Esate baterako, kontabilitate-emaizten arabera, 200.000 € arteko etekinak dituzten enpresen tipo nominala % 24 izango da; 200.000 € eta 1.000.000 € arteko etekinak dituzten kasuan, tipo nominala % 26 izango da; eta 1.000.000 € baino gehiagoko etekinak dituzten enpresen tipo nominala % 28 izango da.
- » Tipo nominalak baina askoz garrantzitsuagoak dira enpresek ordaintzen dituzten benetako tipoak. Helburua da enpresek ordaindutako benetako tipoa gutxienez % 15 izatea, beti kontabilitate emaizten gehi dibidenduen arabera. Etekinen arabera, gutxieneko tipoak igoko dira, esate baterako, % 17 eta % 19, aurrekoan zehazturiko etekinen tarteen arabera.
- » Gutxieneko tipo horiek ordaintzen direla bermatzeko, egun dauden kenkariak murriztu beharko dira eta muga orokor bat ezarri. Kenkari guztien batura ezin da kuota likidagarriaren % 25 baino handiagoa izan. Horretaz gain, oinarri negatiboak konpentsatzeko epea egungo 30 urtetik 5 urtera murriztuko da.

Ondarearen gaineko Zergaren orde, Aberastasun eta Fortuna Handien gaineko Zerga

- » Zergadunen aberastasun osoa zergapetzeko neurria. 2011-2015 legegintzaldian Gipuzkoako Foru Aldundiak indarrean jarritakoa hartuko da oinarri.

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga.

- » Salbuetsitako zenbatekoa, 250.000 €.
- » Tasak era progresiboan ezarriko dira, zenbatekoaren eta ahaidetasun-mailaren arabera. Eredu gisa, Nafarroan dauden tasak har ditzakegu:

HILDAKOAREKIKO AHAIDETASUNA

Bikotekidea			
Likidazio Oinarria GEHIENEZ (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)		Tipoa
250.000	0	Gaineratikoa	0,80%
Odolkidetasunezko lerro zuzeneko aurreko edo ondorengo ahaideak, adoptatzaileak edo adoptatuak			
Likidazio Oinarria GEHIENEZ (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Gaineratikoa GEHIENEZ (eurotan)	Tipoa
250.000	0	250.000	2%
500.000	5.000	500.000	4%
1.000.000	25.000	800.000	8%
1.800.000	89.000	1.200.000	12%
3.000.000	233.000	Gaineratikoa	16%

LIKIDAZIO OINARRIA (eurotan) (**)	Aurrekoa edo ondorengoa, ahaidetasunagatik	2. mailako albokoak	3. mailako albokoak	4. mailako albokoak	Albokoak, gradu urrunagokoak eta arrotzak
7.813,16 € arte	0,80%	0,80%	0,80%		
7.813,16tik gorakoa					
6.010,12 € arte	6%	8%	9%	11% (*)	11% (*)
6.010,13 €-tik 12.020,24 € arte	7%	9%	10%	12%	12%
12.020,25 €-tik 30.050,61 € arte	8%	10%	11%	13%	14%
30.050,62 €-tik 60.101,21 € arte	10%	11%	13%	15%	16%
60.101,22 €-tik 90.151,82 € arte	11%	13%	15%	17%	18%
90.151,83 €-tik 120.202,42 € arte	13%	15%	17%	20%	21%
120.202,43 €-tik 150.253,03 € arte	14%	17%	20%	23%	24%
150.253,04 €-tik 300.506,05 € arte	16%	20%	23%	26%	29%
300.506,06 €-tik 601.012,10 € arte	17%	23%	26%	31%	36%
601.012,11 €-tik 1.803.036,31 € arte	18%	26%	30%	35%	40%
1.803.036,32 €- tik 3.005.060,52 € arte	19%	30%	34%	39%	45%
3.005.060,52 €- tik aurrera	20%	35%	39%	43%	48%

Fiskalitate berdea.

Ingurumenaren proposamen integralaren barruan zergek atala bat izan behar dute. Klima aldaketari (tenperatura igoera eragotzi behar da) aurre egin behar zaio, neurri zorrotzak behar dira, eta zergek bide horretan akuilu lana egin behar dute.

Bitartekoen ustiaketa sostengarria (ura, lurra, etab.) eta energia eta garraio garbiak behar dira. Hots, trantsizio energetikoan lagungarri direnak mesedetuko dira zergetan eta zamatuta kutsakorrak diren energiak, garraioak, eta orohar jarduera ekonomiko edota pertsonal guztiak.

Plan integral horretan nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza berriak sustatu behar dira, ekologikoak, eta zuhaitz autoktonoen landaketa iraunkorra, kontuan hartuta horiek CO2 isurketan duten zeregina.

Halaber, industria arloan ere energiaren eta orohar baliabide natural guztien erabilera efizientea eta garbia bultzatu behar da, hau da, aldaketa klimatikoa areagotzen duten jarduerak eragotzi behar dira. Era berean, garraioaren antolakunde berria bultzatu behar da era horretan (garraio publikoa, elektrikoa, kotxe partikularren erabilera mugatu, KMO elikagaietan, etab.).

Trantsizio ekologikoa bultzatzeko, eta deskarbonizazio bidean, zerga berriak behar ditugu eta hori topo egin dugu gure zerga-subiranotasun falta, zerga asko Estatuaren eskumenak direlako. Beraz, lehenengo aldarrikapena da, zerga-subiranotasun osoa aldarrikatzea.

Hala ere, Ekonomia Itunaren arabera, Estatuaren eskumenak diren hainbat zergen (hondakinena hidrokarburoen edota garraiobideen) tipoak % 15 edo % 20 handitzeko aukera dugu eta lurralde historikoek ez dute aukera hori gauzatu. Deskarbonizazioa bultzatzeko, ezinbestekoa da tipo horiek handitzea.

Eta egon badaude Estatuko Elkarte Autonomoen kompetentziak ingurumen-zergetan (ura, atmosferara isuritako gasak, itsasertzetako isuriak, hondakin biltzeak, argindarraren garraioa eta banaketa, merkataritza gune handien gaineko zerga, etab.). Hau bigarren mailako kutsadura da. EAEn ez da eskuduntza hori garatu. Nafarroan bai (uraren kanona, merkataritza gune handiena...). Eta baita Udal Zergetan ingurumen-ikuspegi txertatu beharra dugu, eta gure eskumenekoa da.

Azkenik, zerga neurri hauek prezioen garestitze orokorra ekarriko dutela kontuan hartuta, berriro azpimarratu behar dugu, ekonomiaren sektore ezberdinetan zein garraio arloan, plan integralak diseinatu behar direla, trantsiziorako ibilbideak marraztuz.

Eta ezin dugu ahaztu zerga-proposamen hauek duten izaera erregresiboa; izan ere, kalefazioko gasoleo edo kotxeko gasolinaren prezioen igoerak eragin handiagoa (errentaren portzentaje handiagoa) dute familia-unitate pobreen artean, aberatsen

artean baino. Horrek eskatzen du erregresibotasun hori konpentsatzeko neurriak hartzea.

Horregatik, ingurumeneko zergen bidezko diru bilketak bi erabilera izango ditu:

- » Lehenik eta behin, herritar zaugarriari diru-laguntzak bideratzea izango da, jakinda erregai fosilen garestitzeak beraiek kaltetuko dituela bereziki. Baita ere, beharrezkoa izan daiteke funts bereziak sortzea ekonomiako sektore ezberdinetan bultzatu behar den trantsizioa bultzatzeko.
- » Bigarrenik, unibertsitate publikoekin gobernuak hitzarmenak sinatu beharko dituzte, diruz hornitu, ikerketan urratsak emateko, alternatibetan ikertzeko eta ura eta lurren birgaitzeak bermatzeko.

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen Gaineko Zerga

Tipoak handituko dira, bai Ondasun Eskualdaketen kasuan, ohiko etxebizitza barne, Sozietate Eragiketetan edota Egintza Juridiko Dokumentatuen kasuan.

Zenbat Garraiobideen gaineko Zerga berezia.

Ekonomia Itunaren arabera, Batzar Nagusiek aukera dute %15eko igoera egiteko. Deskarbonizaziorako bidean, honako aldaketak egitea proposatzen dugu:

- » 3. epigrafea: CO₂ isuri ofizialak 160 eta 200 gramo/km artekoak dituzten ibilgailuentzat, %9,75⁴.
- » 4. epigrafea: CO₂ isuri ofizialak 200gramu/Km gorakoak dituzten ibilgailuentzat eta beste batzuentzat, %15⁵.
- » 5. epigrafea: Aurreko epigrafeetan sartzen ez diren ibilgailuentzat, itsasontzientzat eta hegazkinentzat: %12⁶.
- » 9. epigrafea: 140gramo/Km gorako CO₂ isuriak dituzten motorrak, % 16⁷.

Jokoei buruzko Zergak

- » Joko-jardueraren gaineko Zerga: Ekonomia Itunaren arabera, zergaren bidez kargatutako jarduera gauzatzen duten operadoreek, antolatzaileek edo hura

⁴ Kantabrian bezala

⁵ Katalunian, Asturiasen, Balearretan eta Valentzian %16koa da

⁶ Andaluzian eta Kantabrian bezala

⁷ Katalunia, Asturias, Valentzia, %16; Murtzia, %15,9; Andaluzia, %14,75)

garatzen duten bestelakoek egoitza fiskala Euskadin dutenean, %20ko igoera aplikatzeko aukera dugu.

- » Gure eskumenak diren Kasinoko joko, Bingo, Apustu, Jokorako makina, Zozketa, Tonbola, eta abarren tipoak errebisatu behar dira.

Eremu guztietan erabateko subiranotasun fiskala eskatzea

Bereziki eskumen arauemailea BEZari eta zerga bereziei dagokienez, zeharkako zergek zuzeneko zergekiko duten pisua murriztea ahalbidetzeko eta beharrezkoak diren politika eraldatzaileak bultzatu ahal izateko.

Tokiko zergak.

Tokiko zergei dagokienez, Aldundiak arautzen duen zerga-markoan ondokoa eskatzen dugu:

- » Ondasun Higiezin Zergaren kasuan, hobariak ezartzeko aukera ematea Udalei, ondasun horren jabearen egoera sozioekonomikoa kontuan hartu ahal izateko.
- » Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren kasuan, salbuetsita dagoen urteko eragiketa bolumena, 1.000.000 €-koa jaistea. (Bizkaia)
- » Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Foru Araua aldatu behar da tipoa, ibilgailuen kutsatze mailaren arabera ezarriz.
- » Tokiko zerga ezberdinetan, ingurumen-ikuspegia txertatu behar da.
- » Halaber, euren lurraldea zeharkatzen duten energia azpiegituren jabe diren enpresak (goi tentsioko lineak, gasbideak...) tokiko jabaria erabiltzeagatik tasa baten bidez zergapetu nahi dituzten toki erakundeei laguntza juridiko, ekonomiko eta tekniko eskaintzeko konpromisoa hartuko du Aldundiak.
- » Tokiko zerga guztietan, Udalek aukera izan behar dute hobariak ezartzeko, zergadunen egoera ekonomikoa kontuan hartuta.

Eliza Katolikoak eta bestelako erlijio-erakundeen zerga-trataera.

Oraindik ere 1976ko Konkordatuaren ondorioz Eliza Katolikoak dituen pribilegioak murrizteko eta, ahal balitz, guztiz ezabatzeko neurriak hartuko dituzte Foru Aldundiek dagozkien zergei buruzko Foru Arauen eta Irabazteko asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko Foru Arauaren erreformaren bidez.

Iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko neurriak areagotzea

- » Giza baliabide eta baliabide teknikoak areagotzea, informazio-gurutzaketa masiboak ugalduz, eta arauak emateko eta ikuskatzeko gaitasun handiago baterantz aurrera eginez nazioarteko eragiketa eta enpresa handiei dagokienez.
- » EAEko ekonomia ezkutuan dauden 6.214 milioi € (2020ko datuak, EUSTAT) merkatura sartzeko neurriak hartzea.
- » Iruzur eta Saiheste Fiskalaren aurkako Euskal Behatokia sor dadila sustatzea.
- » Iruzurtutako zergak berreskuratzeke neurriak aktibatzea.
- » Zordunen zerrendan sartuko dira 250 mila € edo gehiagoko zorra dutenak, nahiz eta zatikatuta izan.

Zerga politikan genero ikuspegia txertatzeko tresnak garatzea

- » Egungo zerga-sistemaren eragina aztertzea generoaren arabera eta dauden ezberdintasunen zergatiaz sakontzea, neurri zuzentzaileak hartu ahal izateko.
- » Generoen arteko diskriminaziorik sortuko ez duen zerga-politikaren oinarriak zehaztea.

3.2. Funtzio Publikoa

Legealdiko balantzea-egoera

Balantzea egitean badira legealdia baldintzatu duten hainbat faktore Enplegu Publikoaren Eskaintzak garatzerakoan, hala nola, eta bereziki, bi hauek:

- » Covid-19aren pandemia, batez ere aurreikusitako EPEetan honek eragindako geldialdia dela-eta.
- » 20/2021 Estatu Legearen onarpena, aldi baterako enplegua murriztekoa

Orain hainbat deialdi abian daude; dena den, badago faktore kezkarri bat, eta da joera dagoela soilik goi mailako taldeentzako deialdiak deitzearena, eta ez beheko taldeentzakoak. Horrekin lotuta, beheko taldeko lanpostuak amortizatzeko joera dago goi mailako lanpostuak sortzeko. Beraz, Arabako Foru Aldundia “teknifikatzeko” joera dago, eta ez dira egonkortzen teknikoak ez diren lanpostuak, eta ondorioetako bat da horiek betetzen duten pertsonen lan baldintzak prekarizatzea; horren ondorioa izan da mantentze arloko langileekin gertatutakoa, Epaitegira jo behar izan dutela. Bestaldetik, legealdi honetan lanpostu zerrenda eguneratua egiteko asmoa zegoen, bide erdian geratu dena. Ondorioz, konpromisoetako bat izan beharko litzateke Enplegu Publikoaren Eskaintza egitea kategoria guztietan, bitartekotasuna ahalik eta gehien murrizteko.

Mantentze langileen afera negoziazio kolektiboaren egoerarekin lotu dezakegu; izan ere, praktikan ez da negoziazorik ematen, Arabako Foru Aldundiak bere erabakiak gauzatzen dituelako Langileen Batzordearen erabakiak kontuan hartu gabe eta askotan ere sindikatuetik harremanak zailduz (materiala berandu bidatzea, delegatuek lana egiteko zailtasunak -ordezkapen eza-) hala nola, leku-aldatze lehiaketen kasuan edota langile kolektiboen eskakizun zehatzak egiterakoan. Praktikan uzten duten irtenbide bakarra da epaitegietara joatea eskubideak gauzatu ahal izateko, eta horrek negoziazioa hustu egiten du.

Azken boladan Lanbide bidez kontratazioak egiteko eskaerak ugaritu dira, eta Langile Batzordeak moduan lan poltsak zabaltzea eskatu du, baita horien araudia berritzea ere, berauek hobeto kudeatu ahal izateko, bai langileei begira, bai Arabako Foru Aldundiari dagokionez, izan ere, eskaintzak ondo bideratuta badaude hainbat parametroen arabera, langileek eskaintza egokiagoak jasoko lituzkete, eta Arabako Foru Aldundiak esfortzu gutxiago egingo luke. Horren ondorioz, eta lanpostuak aldi baterako betetzeari begira, lan poltsen araudia berritzea garrantzitsua da.

Pandemiaren ondorioz, badago tresna bat legealdi honetan aurrera atera dena, eta langileek eurek oso ondo baloratu dutena: telelana. Halere, eta pandemiaren ostean, emandako urratsetan atzerakada batzuk egon dira, esate baterako telelana aukera langile batzuei.

Aurrera begirako ildo nagusiak

EH Bilduren ustez, lehen esan bezala, Arabako Foru Aldundiaren Giza Baliabideen kudeaketak honakook bildu behar ditu bere baitan:

- » Enplegu Publikoaren Eskaintzak egin, bitartekotasun tasa ahalik eta gehien murrizteko
- » Lan poltsen araudi eraginkorra egin.
- » Leku-aldatze lehiaketak burutu
- » Langileen karrera profesionala garatu (barne sustapena, etab.)
- » Benetako negoziazio kolektiboa, aldebakartasunez hartutako erabakiak baztertuz eta ordezkaritza sindikalarerekin elkarlan zintzoa eta eraginkorra bilatuz

Proposamen zehatzak

- » Lanpostuak betetzeko ezinbestekoak dira Enplegu Publikoko Eskaintzak eta lan-poltsen kudeaketa eraginkorra
 - Enplegu Publikoaren Eskaintzetan kategoria guztiak kontuan hartu behar dira, eta soilik plazak amortizatu lan hori beharrezkoa ez dela frogatuta geratzen bada.
 - Lan poltsen araudia berritu, ordezkaritza sindikalarerekin negoziatuta.
 - Leku-aldatze lehiaketak egitea
- » Negoziazio kolektiboari dagokionez, lehenik eta behin, negoziazio mahaiak behar besteko denborarekin deitu behar dira eta aztertu beharreko dokumentazioa garaiz bidali.
- » Akordio kolektibo berri bati begira, hiru gai hauei arreta berezia eskaintzeko konpromisoa hartzen dugu
 - Kontziliatorako aukera berriak aztertu
 - Langileen artean zaintza eta kontziliazio neurrien banaketa emakume eta gizonen banaketa aztertu eta neurriak hartu, baita aztertu soldata arrakalaren eragina, ekidite bidean.

- 4 eguneko lan asteari buruzko azterlan independentea ordezkaritza sindikalarekin adostu eta burutu
 - Telelana sustatzeko bide berriak jorratu eta erraztasun handiagoak eskaini
- » Lan eskubideak aldebakartasunez ez murrizteko konpromisoa
- » Sail eta zerbitzu guztietako langileei, eta bereziki jendaurrean aritzen direnei edota herritarrekin harreman zuzena daukatenei sexu eta genero aniztasunari buruzko berariazko prestakuntza eskainiko zaie.
- » Antolaketa eredua: Zeharlerrotasuna eta politika publiko feministak egikaritzen direla ziurtatzeko baliabide nahikoak bermatzen dituen antolaketa eredua garatu. Hau da, berdintasun politika publikoen kalitatea bermatuko duen egitura indartu eta sexu-genero identitate guztien arteko berdintasuna bultzatzeko. Horretarako hurrengo egiturak sortzea ezinbestekoa da:
 - Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Foru Organoa
 - Emakumeen eta gizonen berdintasunerako departamentu unitateak
- » Zerbitzu iraunkorren pribatizazioak (garbiketa, adibidez) ekidin eta arlo publikora itzuli ahal bezain laster.
- » Lan Osasunari buruzko neurriak zorrozki beteko ditu Arabako Foru Aldundiak bere zerbitzu eta sail guztietan, baita bere menpeko azpikontratetan betearazi ere. Ildo horretatik, batzuetan zein besteetan gerta daitezkeen lan istripu larri edota oso larrien aurrean, ordezkaritza sindikalarekin jarduera protokolo bat adostuko da. Lan istripu batean hildakorik egonez gero, Arabako Foru Aldundia akusazio partikularra gauzatuko du.
- » Aldi Baterako Enplegu Enpresekin kontratazioak egiteko debekua. Halaber, Lanbidera jotzea ezinbestekoa baino ez denean, eta egin behar izatekotan prozedura adostu Langileen Batzordearekin.
- » Gutxieneko soldata kobratzen dela bermatu azpikontrata guztietan.
- » Aurrekoarekin batera, azpikontraten esleipenetan klausula sozialak ezarri, prekarizazioa ekiditeko, baina baita euskaldunon hizkuntz eskubideak bermatu eta edozein diskriminazio (sexuagatik edo sexu orientazioagatik, jatorriagatik, adinagatik...) ekiditeko ere. Arlo horietan guztietan praktika

positiboak erakusten dituzten enpresak esleipenetan sarituko ditugu, besteak beste honako kontuetan:

- Gizon eta emakumeen arteko berdintasun planak eduki
 - Indarkeria matxistaren eta LGTBI+fobiaren kontrako protokoloak ezarri
 - Bai Euskarari edota Bikain ziurtagirien jabe izan
 - Dibertsitate funtzionala duten pertsonak kontratatu
- » Arabako Foru Aldundiaren menpeko obra publikoetan jarraipen berezia egingo da, azpikontratazioei buruzko 32/2006 legea zorroztasunez betetzen dela bermatzeko.

3.3. Oinarrizko produktuen prezioen kontrola

Legealdiko balantzea. Egungo egoera

Pasa den urtearen amaieran, eta inflazioari aurre egiteko neurri berrien artean, Espainiar Gobernuak oinarrizko elikagai batzuen BEZa ezabatu zuen (%4ko BEZa zeukatenena) eta beste batzuen murriztu (%10etik %5era) behin-behinean (ekainaren 30era arte). Halere, neurria hartu zenetik kritika eta salaketa ugari egon dira neurri horren benetako eraginari zein ezarpenari dagokienez. Kritikei dagokienez, funtsean bi izan dira: BEZaren jaitsierak diru-bilketan izango duen eragin negatiboa, populismo fiskala delakoaren baitan kokatuz (PPren aspaldiko eskaera zen neurri hau), eta Lehen Sektorearen aldetik, neurriak batez ere ekoizleak (are gehiago) kaltetuko dituela, elikagaien banaketa kate handiek, euren marjinei eusteko, are gutxiago ordainduko dietelako, Elikadura Katearen Legea are gehiago urratuz; horrez gain, arraina eta haragia premiazko elikagai moduan kontuan ez hartzea ere kritikatu da lehen sektoretik. Salaketei dagokienez, berriz, kontsumitzaile elkarteek lehen egunetan banaketa kate handien kontra egindako salaketa zehatzetaz gain, argi dago administrazioaren aldetik ez dela kontrolatzen ari neurri horren ezarpen praktikoa, ezta Elikadura Katearen Legearen urraketa etengabea ere. Legez kanpoko jardura horiek inpunitate osoz garatzen ari dira, eta, gainera, praktikan neurri horren eraginkortasuna ezer ezean geratzen ari da.

Hilabete batzuk pasa eta gero, oso begi-bistakoa da herritarrok ez dugula inolaz ere nabaritu BEZaren jaitsiera horrek ekarri behar zituen onurak; aldiz, banaketa handiek euren etekinak handitu egin dituzte, eta inolako lotsarik gabe orain dela aste batzuk MERCADONAREN jabe den Juan Roig enpresari espainiarrak zera zioen: “Hemos subido los precios una burrada; sino, hubiera sido un desastre” (desastre horrek, jakina, ez zien eragingo ez herritarrei, ez nekazari eta abeltzainei, banaketa-enpresen etekinei baizik). Egoerak lotsatuta-edo, lehenik Eroskik eta gero MERCADONAK berak, oinarrizko

elikagaiak jasotzen omen dituzten “saski bereziak” martxan jarri dituzte, Estatu Frantsesean orain dela hilabete batzuk hango enpresek jorratutako bide beretik. Halere, eta martxoko azken datuen arabera, elikagaien prezioak urtebetean %16,5 igo egin dira, eta gero eta argiagoa da BEZa jaitsi izanak ez du inolako eragin positiborik orain arte.

Honekin batera, hipoteken eta alokairuen prezioen igoerak ere kinka larrian jarri ditu herritar asko eta asko, euren bizitza proiektuak guztiz baldintzatzeraino, esaterako, emantzipatu nahi duten gazteen kasuan edota pisua egoera eskasean konpartitzera behartuta dauden lagunen kasuan. Eta hemen ere gobernuek (Espainiakoa, Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundia, bakoitza dagokion mailan) gai hauei aurre egiteko erakutsitako pasibitate erabatekoa eta adre eza guztiz salagarria da, eta ondo baino hobeto islatzen du bankak handiarekiko eta etxebizitza espekulatzailerakiko PNV eta PSEren menpekotasun konplizea.

Proposamen zehatzak

- » Arabako Foru Aldunditik Eusko Jaurlaritzari eskatuko diogu elkarlanean ezartzea zerga berezi bat elikadura banaketa kate handien gehiegizko etekinak zergapetzeko, enpresa energetikoekin eta bankarekin egin den moduan.
- » Arabako Foru Aldunditik Eusko Jaurlaritzari eskatuko diogu Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren eta, besteak beste, Kontsumobideren eskumenen bidez modu proaktiboan zaindu dezala BEZaren jaitsieraren garapena, beharrezkoak diren kasuetan isunak jarrita ere.
- » Arabako Foru Aldunditik Eusko Jaurlaritzari eskatuko diogu Elikadura Katearen Legea betearazi dezala, Aldundiaren Nekazaritza Sailarekin elkarlanean, horretarako behar diren baliabide eta neurri guztiak ezarrita ere.
- » Arabako Foru Aldunditik Eusko Jaurlaritzari eskatuko diogu areagotu dezala alokairu publikoko parkearen eskaintza Araba osoan, eta horri laguntzeko Aldundiaren eskumenen baitan behar diren neurri guztiak hartzeko konpromisoa hartzen dugu.
- » Alokairuen gehiegizko prezioei muga jartzeko norabidean eta 2023a amaitu aurretik, etxebizitza alokairua ordaintzen duten herritarren kerkariak errenta mailaren arabera egokitu eta haztatze konpromisoa hartzen dugu, baita alokairutik errenta jasotzen duten pertsonen kobratutako alokairuaren prezioaren arabera zergaren tipo altuagoak eta progresiboagoak ordainaraztekoa ere.

- » Euriborren eta hipoteken igoerari dagokionez, eta argi edukita, zoritxarrez eta gure burujabetza faltaren ondorioz, horretan eragiteko inolako aukerarik ez daukagula, foro instituzional guztietan (Eusko Legebiltzarrean, Espainiako Kongresuan eta Senatuan zein Europako Parlamentuan) igoera hori mugatzeko eta herritar gehienon interesak defendatzeko konpromiso irmoa adierazten dugu.

4. Lurralde Oreka

4.1. Despopulazioa

4.1.1. OREKA - Arabako Landa Eremuaren Biziberritze Agentzia

Landa eremua biziberri dezagun!

EAEko lurraldeen artean, Araban gertatzen da hiri-eremuan eta landa-eremuan bizi diren pertsonen arteko desorekarik handiena. Gasteiz hiriburuan bizi da herritarren % 75,8, baina lurraldearen % 8,5 baino ez du hartzen udalerri horrek. Aitzitik, lurraldearen zatirik handiena landa-eremua da, herri txiki eta sakabanatuz osatua. EHUren “Arabako despopulazio-prozesuaren ikerlan demografikoa, azterketa eta diagnostikoa” lanaren arabera, Arabako egungo herri askoren ezaugarriak dira populazio-bolumen apalak eta dentsitate demografiko ahulak.

Arabako 51 udalerrietatik 18k dute 500 biztanle baino gutxiago, eta biztanleria osoaren % 1,51 baino ez dira. Araban, 426 biztanle-entitate daude orotara; horietatik, erdia baino zertxobait gehixeago, 232, ez dira 50 biztanlera iristen, eta 372 (% 87,3) ez dira 200 biztanlera iristen. Azken horiek Arabako populazio osoaren % 5,73 dira, eta lurraldearen azaleraren % 77,23 hartzen dute.

Biztanle-dentsitateari dagokionez, 11 udalerrik (% 21,56) ez dute gainditzen kilometro koadroko 10 biztanleren langa, eta horietako 5 daude 5 Biz./Km²-tik behera. Herriei dagokienez, 134 biztanle-entitatek (% 31,45) ez dute gainditzen 5 Biz./Km², eta 220k (erdia baino gehiago) 10 Biz./Km² baino gutxiago dituzte. Arabako Mendialdeko kuadrillak 6,08 Biz./Km²-ko dentsitatea du, eta Añanakoak, aldiz, 9,8 Biz./Km²-koa. Kontuan hartu behar da Europako Batasunak 12,5 Biz./Km²-tik beherako dentsitateak despopulazio-arriskua duten gunetzat jotzen dituela.

Dentsitate apal horri gehitu behar zaio 2001. eta 2019. urteen artean izandako biztanleria-jaitsiera Arabako udalerrien % 27,5ean (51 udalerrietatik 14tan), baita 187 herritan ere (% 44an). Aurreko horri erantsi behar zaio epealdi horretan izandako

biztanleriaren zaharkitzea, biztanle-entitateen % 52,6an batez besteko adina 55 urtekoa edo hortik gorakoa baita.

Despopulazio demografiko arrisku oso handia duten 45 biztanle-entitate eta bi udalerri (Harana eta Lagran) daude (% 10,56), eta lau herritatik eta lau udalerritatik batek du despopulazio-arrisku handia.

Arazorik handienak daude Arabako Mendialdean, Añana mendebaldean eta Trebiñun, baita Arabako Errioxako zenbait herritan ere. Mendialdean, nabarmentzekoa da Harana udalerria, 14 urteko epean 336 biztanle izatetik 235 izatera pasatu baita, biztanleriaren heren bat galduta. Nabarmentzekoa da, halaber, Bernedon, Kanpezun edo Lagranen izandako biztanleria-jaitsiera. Añanan, Gaubeak eta Erriberagoitiak dute biztanleria-jaitsierarik handiena, eta Arabako Errioxan, aldiz, Eskuernaga, Moreta eta lekora dira biztanle gehien galdu dituztenak.

Desoreka demografikoari beste desoreka batzuk ere gehitu behar zaizkio, hala nola oinarritzko zerbitzuen desoreka (etxebizitza, hezkuntza, ekipamenduak, garraioa...), baita garapen ekonomikoaren desoreka ere. BPGaren % 71,8 Gasteizen sortzen da, beste % 11 Aiaraldean, eta gainerako kuadrilletan, % 5 edo gutxiago baino ez da sortzen. Ehundura ekonomiko horretan, industria-jarduera bi biztanleria-gune handi horietan eta A1 errepidearen ardatzean pilatzen da. Beraz, garapen erabat irregularra gertatzen da, horrek lurraldearen gainerakoari dakarzkion ondorio ekonomikoekin. Gaindegiak egindako Arabaren Ikerketa Sozioekonomikoaren arabera, nabarmentzekoa da kuadrilla batzuetako I+D+i tasa apala: Añanan, esaterako, % 0,28koa da, eta Arabako Mendialdean, % 0,35koa. Tasa horiek EAEko batezbestekoaren oso azpitik daude, une hartan % 1,87koa baitzen, eta are urrunago EBko batezbestekotik, % 2,03koa baitzen.

Berrikuntzaren eta gizarte-ekintzailatzaren aldeko apustu eskasaz gain, nabarmentzekoa da lehen aipaturiko zaharkitzea eta emakumeen eta gazteen presentzia eskasa. Horrek eragin du jarduera berriak ez sortzea eta beste hainbat jarduera albo batera uztea, lehen sektorearekin loturikoak, horien artean. Egoera horren aurrean, beharrezkoa da joera hori iraultzeko neurriak hartzea, herri eta kuadrillen tokiko garapen endogeno eta naturala bultzatzeko. Horrek erraztuko luke herriak biziberritzea eta biztanleak egonkortzea, garraioaren, gizarte-zerbitzuen, eskaintza kulturalaren eta aisialdikoaren eta bizilagunen arteko harremanen hobekuntzarekin batera.

Lehentasunezkoa da Trebiñu gainerakoen aukera bereko kuadrillatzat hartzea, eta horretarako, diskriminazio positiboko neurriak hartu beharko dira.

Lurraldeak nekazaritzarekin izan duen harreman historikoa aspaldi dago krisian: lehen sektorean ari diren herritarren kopurua nabarmen jaitsi da eta bistakoa da belaunaldi arteko aldaketa egiteko ezintasuna. Beharrezkoa da, beraz, eredu agroalimentarioaren aldaketa. Elikadura-sistema bidezkoa eta jasangarria bihurtzea ahalbidetuko duen paradigma-aldaketa. Horretarako, berebizikoa da tokiko elikagai-kateak sendotzea, gazteak babestea eta lurraldearen aliantza ekosistemikoetan sakontzea, baita herri

txikien iritziari lehentasuna ematea ere. Gainera, behar-beharrezkoa da jarduera berriak sustatzea, hainbat ikuspegirekin: ekintzailatza, digitalizazioan oinarritutako jarduera ekonomikoak, turismo jasagarria, gizarte- eta kultura-berrikuntza...

OREKA - Arabako Landa Eremua Biziberritzeko Agentzia

Agentzia honen lehentasunezko helburua izango da Arabako landa-eremuen eraldatze ekonomiko, sozial eta demografikoa sustatzea, bereziki desorekarik handienak eta despopulazio-arrisku handienak dituzten inguruneetan. Horretarako, behar besteko baliabide politiko, tekniko eta ekonomikoak izango ditu. Helburu hori lortzeko, marko estrategiko orokorra diseinatuko da, baita bestelako marko lokalagoak ere, tokiko entitate guztiekin eta sektoreko eta landa-eremuko eragileekin elkarlanean, etorkizunerako ideiak eta proposamenak txertatzeko eta proiektuaren parte senti daitezen.

Zuzendaritza-batzordea izendatuko da AFaren eta tokiko entitateen artean adostuta, eta hautatutako pertsonak kualifikazioaren eta lan-gaitasunaren arabera hautatuko dira, hautapen-prozesu irekian. Agentziak bildu beharko lituzkeen profil profesionalak denetarikoa izango dira: abokatuak, enpresariak, teknikariak, irakasleak, finantzetako adituak eta ekonomistak, kazetariak, kultura-teknikariak...

Agentziak izaera autonomia izango du, herriko administrazio eta eragile ezberdinei aholkularitza emango diena, eta horiekin aliantzak sortuko dituena. Hala, inpaktu positiboa izatea lortuko du, dentsitate txikieneko eta biztanleria-desoreka handieneko inguruneak biziberritzeko, landa-ingurunera pertsonak erakartzeko eta bertakoak joatea saihesteko.

Era berean, legeak eta foru-arauak eskualde horien errealitatera egokitu ahal izateko beharrezkoak diren lege-aldaketak planteatu behar ditu, eta landa-eremuan inbertsioa erraztuko duen zerga-esparru berri bat planteatu behar du.

Lurralde-mailan ezarritako agentzia publiko-komunitarioa izango da, eta lurraldeko herrien eta eskualdeen arteko sinergiak sortzea izango du helburu, baita zenbait eremutako gainbehera demografikoa eta sozioekonomikoa iraultzea ere. Agentzia multipolarra izango da, eta bulegoak izango ditu Mendialdean, Arabako Errioxan, Añanan eta Trebiñun. Bulego horiek leihatila bakartzat hartuko dira, eta bertan zerbitzu pertsonalizatua emango da, kudeaketak egiteko, proiektuak aurkezteko, prestakuntza eta informazioa jasotzeko eta beste eremu eta proiektu batzuetatik informazioa transmititzeko aukera emango da.

Dauden LGEekin etengabeko lankidetzan jardungo du, haien arteko koordinazio eta harreman zuzena bilatuz, bikoiztasunak saihestuz eta helburuak partekatuz. Arreta berezia eskainiko die tokiko erakundeei, erakunde publikoei, enpresei, landa-elkarteei, tokiko eragileei, kultura-elkarteei eta hezkuntza- eta ikerketa-zentroei, gizarteko estamentu guztietara iristeko.

Beren jardueraren finantzaketan parte hartu behar duten erakundeen artean egon behar dira Arabako Foru Aldundia bera, Eusko Jaurlaritza eta Europar Batasuna. Haren ekintzak urtero ebaluatuko dira, zerbitzu publiko eta funtsezkotzat hartuta, eta, beraz, haren emaitzak modu kualitatiboan hartuko dira kontuan, etorkizuneko inbertsioztat hartuta.

Lankidetzak funtsezkoa izango da agentziaren eta enpresa pribatuen, landa-eremuan lan egiten duten elkarteak, ikastetxeak, enpresa-sarearen eta goi-mailako erakundeak artean, eta lehentasuna emango zaio eragile horiek guztiek despopulazioaren aurkako borrokan parte hartzeari, proiektuak abian jarri eta haien emaitzak baloratuz. Landa-komunitateei aholkularitza egokia eskainiko zaie ekonomikoki bideragarriak diren inbertsio-proiektuak diseinatzeko, komunitateak ahalduz lagunduz eta ekintzaileak eta enpresa-proiektu berriak abiarazten lagunduko duen lege-esparrua eskainiz. Gizarte-ekonomia lehenetsiko da, etekinak lurraldearen beraren eta bertan lan egiten dutenen eta bizi direnen alde itzultzeko berme gisa, bai eta ekonomia zirkularra, energia-autokontsumoa, energia-kontsumoaren efizientzia eta murrizketa, deskarbonizazioa eta mugikortasun jasangarria bultzatzen dituzten proiektu komunitarioak ere.

“Ikuskatzaile” ibiltarien talde bat sortuko da, biziberritzea gidatuko duena. Horretarako, dagoeneko herrietan bizi direnei lagunduko die, irtenbideak eskainiko dizkie eta proiektuak eta lana erraztuko dizkie, haiek herrietatik joatea saihesteko eta beren herrian etorkizunerako aukera bat eskaintzeko. Arreta berezia jarriko da gazteengan, beren bizi-proiektua garatu ahal izan dezaten, beren herrietan edo ingurunean lan- eta bizitegi-alternatibak bilatuz. Era berean, belaunaldien arteko erreleboa bultzatuko da nekazaritza-jardueretan, bai familia-inguruneak gazteen kasuan, bai gazte berrien kasuan, lurrekiko politika protekzionistak bultzatuz eta horretarako lur publikoak gaituz.

Agentziaren ibilbide-orria ezartzeko eta garapen ekonomiko dibertsifikatua eskaintzeko ardatz estrategikoak eta lehentasunak:

1. Lehen sektorea:

- » Nekazaritza eta abeltzaintza ustategien errolda ingurune bakoitzean:
 - Jabeak, adina, egungo egoera, eta bideragarritasun-plana.
- » Nekazaritza eta abeltzaintzako industriaren errolda
 - Egungo egoera, sektorea eta merkatu-mota.
- » Landa-eremuan lan egiteko eta ekintzaile izateko prest dauden pertsonen lan-poltsak.

- » Lurra: herri-lurren eta pribatuen zerrenda eta horren eguneratzea, baita roturoena ere, eta horietarako sarbide-gaitasuna.
- » Trantsizio agroekologikoak sustatzea.
- » Tokiko elikagai osasungarriak kontsumitzea ahalbidetuko duen eredu agroalimentarioa.

2. Ekipamenduak:

- » Funtsezko azpiegitura, ekipamendu eta hornigaiak, arazoizko baldintzetan.
- » Egin beharreko presazko lanen zerrenda.
- » Elkar-topatze komunitarioko lekuak indartzea.

3. Etxebizitza:

- » Etxebizitza hutsen zerrenda eta egungo egoera udalerriz udalerriz.
- » Landa Etxebide, etxebizitzetarako sarbidea eta birgaitzea errazteko.

4. Herritarrentzako oinarrizko zerbitzuak:

- » Hezkuntzan, osasungintzan eta gizarte-zerbitzuetan dauden beharrianak baloratzea.
- » Hezkuntzarako, osasungintzarako eta gizarte zerbitzuetarako sarbidea erraztea, eskatzen diren ratioak landa-errealitatera egokituz eta malgutuz.
- » Konektagarritasuna: Interneteko banda zabala, telefonia mugikorra eta mugikortasuna. Egoera erreala.
- » Kultur eta kirol-eskaintza.

5. Enplegua eta ekonomia:

- » Arauak landa-errealitatera egokitzea eta horietara birbideratzea, horiek abian jartzea errazteko.
- » Gizarte-ekintzailetzarako pertsona eta kolektibo aktibo eta prestatuak identifikatzea balioak zabaltzeko, euren sinesgarritasunean, ospean, eraginean edota gizarte-lidergoan oinarrituta.

- » Ekintzaitzaren kultura eta lurraldearen potentzialtasunak baliatzeko berariazko hezkuntza sustatzea.
- » EHUrekin elkarlanean aritzea talentua sortzeko, ingurunearen beharrezanez egokitutako ikasketak eta proiektuen bilduma eskainiz.
- » Gizarte-berrikuntza sustatzea.

6. Mugikortasuna:

- » Garraio publikoa sustatzea. Trena biziberritu eta modernizatzea.
- » Garraio publikoa beste bitarteko batzuekin, hala nola bizikleta, konbinatzeko gune intermodalak, eta bide-sare seguruak eskualde guztietan.

7. Kultura eta aisialdia

- » Gizarte-berrikuntza sustatzea, kulturari eta kultur proiektuei lotuta.
- » Ondare materiala eta immateriala sustatzea, baita balioa ematea ere.
- » Komunitatearen kultura eta antolaketa sustatzea, jarduera sozial, kultural eta aisialdikoetarako.
- » Euskal hiztunen artean euskara erabiltzea sustatzea, hizkuntza-biziberritzea eta gizarte-kohesioa errazteko.

Horregatik, ezinbestekoa da agentziak jarrera proaktiboa izatea landa-komunitateekin harremanetan jarritz, herriz herri, bakoitzaren benetako beharrak eta aukera zehatzak ezagutzeko eta Mendialde, Trebiñu eta Añanako eta Arabako Errioxako zenbait herritako ekonomia eta demografia suspertzeko.

Azkenik, ezinbestekoa da lurraldea biziberritzeko estrategian alderdi psikologiko eta kulturalak txertatzea, “landa-harrotasuna” berreskuratuz. Horretarako, sentsibilizazio-programak garatuko dira, landa-eremuan zein hiri-eremuan, eskola-ingurunean arreta berezia jarritz, pertsonen artean lurraldean bertan geratzearen aldeko apustua egitera edo bizi-proiektu baten agertoki gisa herri bat aukeratzera eramango dituen sentimendua errotzeko.

4.2. Toki Erakundearen ahalgintza

4.2.1. Toki Erakundeak

1. Legegintzaldi honetako errealitatea eskasa izan da Jaurlaritzarekin lortutako emaitzei eta akordioei dagokienez. Hala ere, Legebiltzarraren jarduera oparoa izan da, eta EH Bilduk ekimen garrantzitsuak aurkeztu ditu, mozioen bidez, baita Foru Arau proposamenak ere. Legealdi honek zapo garrantza utzi du lorpenei dagokienez, baina gozoa EH Bilduren Batzarkide Taldearen proposamenei eta lanari dagokienez.
2. Hiru dira EH Bilduk 2023-2027 legegintzaldiari begira toki-erakundeentzat planteatzen duen aldaketaren ardatzak: gobernantza, finantzaketa eta guztien babesa.
 - » EH Bilduk Gobernantza Kooperatiboaren proposamena egin du, ulertuta baterako lanak alderdien inplikazioa dakarrela helburu komun batera iristeko. Administrazio desberdinen (autonomikoa, forala eta tokikoa) arteko lankidetzaren parte-hartzailea da aldaketaren oinarria. Gainera, Erronka Demografikoko Zuzendaritza bat sortzea proposatzen dugu, Diputatu Nagusiaren mendekoa, gainerako sailek bete beharreko gutxieneko lerro bat markatuko duena Foru Arauei, laguntzen deialdiei eta abarri dagokienez.
 - » Finantzaketari dagokionez, funtsezko aldaketa bat proposatzen dugu: Ez dezala handiak (urrutikoak) egin txikiak (hurbilekoak) egin dezakeena, hau da, subsidiarotasun-printzipioa deritzona aplikatzea. Toki-erakundeek egin ditzaketen politikak transferitzea eta ekonomikoki hornitzea, ondo funtziona dezaten.
 - » Guztion babesa espekulazioaren aurrean. Lurraren defentsa okupazioaren aurrean. Banaketa sustatzea metatzearen aurrean. Toki-erakundeek mendiak eta herri-lurzuak biodibertsitatearen, uraren kalitatearen, airearen eta abarren berme dira.
3. Etorkizuneko Proposamenei dagokienez, ABAGUNE Plana, EH Bilduk 2021eko azaroan proposatua eta legegintzaldi honetan landu diren gainerako planekin lotua (gizarte-politikei buruzko BiziOn dokumentu sorta, Lehen Sektorerako UztaAraba Plana), gure landa-guneak biziberritzeko ibilbide-orria da, lehen aipatutako Oreka Agentzia abian jartzearekin eta hurrengo puntuan planteatzen ditugun lege-aldaketekin batera. Labur ditzagun Abagune Planaren puntu nagusiak:

4.2.2. Abagune Plana

Abagune Arabako landa-guneak Berritzeko, Birgaitzeko eta Biziberritzeko Plan Berezia izan nahi du, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak (HAPN) dituzten udalen aurrean. Udalerriak osatzen dituzten guneez ez dute inoiz izan beren beharrak, kezkak, ahalmenak eta itxaropenak biltzen dituen azterketa-diagnostiko xehatua. Funtsezkoa da oinarri horiek zehaztea, nukleo horietako bakoitzak bere ibilbide-orria zehaztu dezan, gabeziak konpontzeko eta bere baliabideei balioa emateko.

Arabako Toki Erakundeek, urteetan zehar kudeaketarako eta berrikuntzarako gaitasun handia erakutsi duten arren, ez dute gaitasun ekonomikorik horrelako azterketak eta diagnostikoak egiteko, egungo egoeraren analisia eta garatu beharreko etorkizuneko erronken proposamena egiteko. Hala, Arabako landa-guneak Berritzeko, Birgaitzeko eta Biziberritzeko Plan Berezi bat abian jartzeko unea dela uste dugu; orain arte, Araban ez da horrelakorik egin. Beraz, eta toki-erakunde bakoitzaren errealitatea kontuan hartuta, hiriguneak birgaitzea, babestea eta berritzeaz gain, hiriguneak hainbat ikuspuntutatik biziberritzea da helburua, honako alderdi hauen azterketa xehatua abiapuntu hartuta: hiriguneak, etxebizitza, zerbitzu publikoak, merkataritza-ehuna, lan-espazioak, mugikortasuna, energia-nahikotasuna eta ondarea.

Arabako Foru Aldundiari dagokio Plan Berezi hau egitea, eta Eusko Jaurlaritzak eta toki-erakundeek hartuko dute parte, guztiek baitituzte eskumenak proposatutako gaietan. Nolanahi ere, Plan Berezi hau zeharka egin behar da, proposatutako gai guztiak elkarren artean lotuta baitaude. Gainera, Udal Plan Orokorrekin koordinatuta egin behar da, azken horien oinarritzko printzipioak errespetatuz, jarduteko neurriak aztertu, aztertu eta proposa ditzan, udalek eta kontzejuek, adostasunez eta bakoitzak bere jardun-eremuan, beren aurreikuspenen arabera jarduketa-kronograma egin dezaten. Plan horiek plan endogenoak eta nukleo bakoitzera egokituak izan behar dute, eta eragindako herritarrak prozesuaren parte aktiboak izango dira hasieratik. Prozesu hori, lehen aipatutako egungo egoeraren diagnostikoarekin hasiko da, ondoren hautemandako aukeren eta beharren zerranda egingo da, eta horiek gauzatzearen gutxi gorabeherako kostua ezarriko da. Horretarako, legegintzaldiaren lehen bi ekitaldietan (2024-2025) Arabako herrigune populatu guztietan plana egitea proposatzen da. Finantzaketa Foru Aldundiaren kontura izango da, eta 1.000.000 euroko aurrekontu-partida esleitu du ekitaldi bakoitzean. Ondoren, toki-erakunde bakoitzak bere ibilbide-orria egingo du, bere gunearen azterketa zehatzetan eta planean jasotako ondorioetan oinarrituta.

Batzar Nagusien hurrengo legegintzaldian, ezinbestekoa da lurraldeko toki-erakundeei zuzenean eragiten dieten hainbat foru-arau aldatzea eta eguneratzea. Aldaketa horiek ezinbestekoak eta atzeraezinak dira EH Bilduren ustez, lurralde-politika orekatua eta herri programa honetan jasotako planteamenduekin koherentea lortzeko. Hauek dira 2023-2027 legegintzaldia hasi bezain laster aldatuko ditugun foru-arauak.

- » Kontzejuen Foru Araua. Foru Arau honen kasuan, besteak beste, ikuspegi feministatik ere ekin behar zaio haren erreformari, Arabako landa eremuetako emakumeen ahalduntze kolektiboa bermatzeko eta toki-erakunde horiek berdintasun-politiken diseinuan parte har dezaten bultzatzeko.

- » Kuadrillen Foru Araua
- » Mendiei buruzko Foru Araua
- » Toki Erakundearen Finantzaketarako Foru Funtza (FOFEL) arautzen duen Foru Araua, FOFELaren guztizko kontsignazioa eta Udalentzat dagoeneko erabilgarri dagoen kopuru finkoa handitzeko eta Kontzejuetarako kopuru finko bat ezartzeko.
- » Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen Foru Araua.

4.2.3. Zerbitzuen unibertsalizazioa

Argi dago gutxieneko zerbitzuen zerrenda bat egin behar dela, lurraldeko herri jendetsu guztietan. Obra eta Zerbitzuen Foru Planean auzotar guztiek, bizi diren lekuan bizi direla, izan behar dituzten zerbitzuei buruz egin zen akordioa ukitu eta eguneratu behar da. Era berean, eskualde guztiek izan behar dituzten zerbitzu osagarriak adostu behar dira. Toki-erakundeek beren betebeharrak betetzeko baldintzarik gabeko finantzaketa indartzeaz eta handitzeaz gain, Arabako errealtate administratiboak (kontzejuak eta udalerritxikiak) Obra eta Zerbitzuen Foru Plana mantentzea eskatzen du, XXI. mendera egokituta.

4.2.4. Arabako Toki Erakundeak indartzea

Egia esan, legegintzaldi honetan aurrekaririk gabeko erasoak egin du EAJ-PSEko Foru Gobernuak toki-erakundearen aurka, kontzejuen aurka bakarrik, baita udalen eta ur-partzuergoaren aurka ere. Erasoaldi horretan bereziki erasokorrak izan dira Lurralde Oreka, Ingurumena eta Gizarte Zerbitzuen Sailak.

- » Uraren zikloa. Urbideren agerpena gauzak nola ez diren egin behar erakusteko erakustaldia izan da. Aldundiak esan du ez dela Foru Partzuergoa, baina errealtatea da Aldunditik ura kudeatzen duten erakundeekiko jazarpen- eta eraispen-politikak izan direla legegintzaldiko errealtatea.
- » Energia berriztagarriak, Energia Komunitateen aurka ez daudela dioten arren, kontzejuetikiko presioa jasanezina eta guztiz maltzurra izan da. Kontzejuetan energia komunitateen sorreraren inguruan zalantzak eragitea eta atzeratzea lortu badute ere, ezin izan dute haien zabalpena ekidin. Azpimarratzekoa da Aldundiaren diru-laguntzetan Ekiolen eta Energia Komunitateen artean dagoen alde eskandalagarria.

- » Hondakinen kudeaketa. Arabako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planarekin argi geratu zen Aldundiak kudeaketa zentralizatzeko asmoa zuela, eta kudeaketa hori gauzatzeko partzuergo bakarra sortzeko aukeraz ere hitz egin zen. Horri gehitu beharko litzaizkioke Aldundiak lurraldean eskualdeko tratamendu-plantak ezartzeko edo hondakinak kudeatzeko eta errentagarri bihurtzeko beste eredu eta modu batzuk garatzeko jarri dituen eta jartzen ari diren oztupoak.
- » Gizarte Zerbitzuak. Udalerriei xantaia egiten zaie etengabe CRAD eta etxebizitza komunitarioak diruz laguntzeari eta kudeatzeari dagokionez, horien inguruko erabakiak hartu nahi dituzten udalei laguntzak ukatzeaz gain.

4.3. Landa Eremuko Etxebizitza Politika

Egoeraren azterketa

Etxebizitzarena herritar gehienek kezka nagusietarikoa (eta zer esanik gazteen kasuan) dela esatea pellokeria hutsa bada ere, landa eremuan egoerak ezaugarri eta arazo bereziak ditu, **etxebizitza eta, bereziki, alokairua eskuratzerakoan**. Izan ere, berariazko politikarik ez izateak Arabako despopulazio-arazoak areagotzen ditu. Horren ondorioz, gazteak herrietatik atera behar izaten dira, bai eskualdearen burura, bai hiriburura, baita Arabatik kanpo ere (Aiaraldetik Basaurira edo Bilbora, Errioxatik Logroñora, Harora edota Fuenmayorrera, edo Gaubetik, Lantarondik edo Erriberabeititik Mirandara, adibidez). Gainera, horrek Landa Eremuko biztanleriaren zahartzea areagotzen du, nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak arriskuan jartzen ditu eta bigarren etxebizitzaren edo herriak leleku bihurtzeko dinamika kaltegarriak sustatzen ditu.

Azken garaietan, eta bereziki pandemiaren ostean, landa eremuko etxebizitzaren prezioak gora egin du nabarmen. Honek are gehiago zailtzen ari da herrien hazkunde endogenoa eta gazteek landa eremuan bizitza egitasmo bat garatzeko izan dezaketen aukera.

EH Bilduren lehentasuna alokairu soziala sustatzea da; lehenik eta behin, eskatzen duten sektoreei etxebizitza azkar eskuratzeko aukera emateko; bigarrenik, Lurralde Historikoan dauden etxebizitza hutsen parkeari irteera emateko; eta, hirugarrenik, urbanizatu gabeko lursailak okupatzea saihesteko, urbanizatu gabeko lursail gehiago ez okupatzea klima aldaketaren aurkako borrokaren eta energia eta baliabide publikoak aurreztearen parte ere badelako. Printzipio hauek guztiak guztiz erabilgarriak eta baliagarriak dira, baita Arabako Landa Eremuari dagokionez ere, behar diren egokitzapenak eginda, noski.

Halere, kontuan hartu behar da etxebizitza politika eraginkor bat egin nahi izanez gero, eta bereziki alokairu soziala sustatzea helburu badauka, udalen eskumenetatik harago, ezinbestekoa dela horretan lagunduko duten lege marko egoki bat eta administrazio

orokorraren inplikazio aktiboa (Eusko Jaurlaritzaren) eta, alokairua sustatzearekin batera, etxebizitzaren espekulazioa ekidindo duen bestelako politika fiskala (Foru Aldundia). Inplikazio hori are ezinbestekoagoa da Arabako udal txikien kasuan, begi-bistakoak diren arrazoiengatik.

Proposamen zehatzak

Lehenik eta behin, Arabako Landa Etxebizitza Plana sortuko dugu, Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren eta bertara atxiki nahi duten toki erakundeen parte hartzearekin, aurreko puntuetan oinarrituta Arabako Landa Eremurako etxebizitza politika burutuko duena bost urteko plangintza baten bidez, besteak beste, plangintza horretan honako hauek txertatuko dira ezinbestean:

- » Etxebideren ratio eta baldintzen egokitzapena Arabako Landa Eremuko beharretara eta ezaugarrietara. Ezin da alokairu politika berbera egin Gasteizen, Laudion eta Murgian, Maeztun, Samaniegon edota Araian.
- » Herriguneetako etxebizitza hutsen errolda, berauen azterketa teknikoa (birgaitzeko beharra dutenak zehazte aldera, besteak beste) eta alokairu sozialera eramateko etxebizitza hutsen poltsa bateratua sortzea, beti ere lehentasuna emanda udalerri bakoitzean erroldatutako lagunei, eta, hauen artean, bereziki 35 urtetik beherako gazteei.
- » Landa Eremuan birgaituko duten etxebizitzaren konponketarako dirulaguntza lerroa ezartzeko funts berezi bat sortuko da Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren eta tokian tokiko erakundeen parte-hartzearekin. Dirulaguntza horiek ezinbestean lotuta egongo dira etxebizitza horiek alokairu sozialekoak edo lehen etxebizitza izatera, eta alokairuen kasuan, prezioa topatuta egongo da.
- » Herriguneetako trama urbanoak aprobetxatu behar dira etxebizitza beharrei erantzuteko; alde horretatik, urbanizatu gabeko lursailak jo aurretik, ikusi beharko da zein aukera egon daitekeen herriguneetako eraikin batzuk etxebizitza bilakatzeko (bordak, lastategiak...) edota etxebizitza berriak eraikitzeko herriguneetako orube hutsak (larrainak) erabiltzeko. Jakina, Landa Eremuan eraikiko den edozein etxebizitza berri ingurumen eta energiaren aldetik guztiz jasangarria izan beharko da eta dagoen herriguneko tipologiarekin bat etorri beharko da. Hau guztia betetzeko Planean parte hartzen duten toki erakundeen inplikazioa eta lidergoa ezinbestekoak dira, horretarako udalen HAPOetan beharrezkoak diren aldaketak egiteko borondatearekin batera.
- » Herriguneetako tipologia bereziko eraikinak (jauregiak, etxetzarrak...) oso aproposak izan daitezke etxebizitza komunitarioko proiektuak sustatzeko, bai gazteei begira, bai etxebizitza arloan behar bereziak izan ditzaketen

biztanleria taldeentzat, bai holako proiektu batean sartu nahi duen edozein herritarrentzat. Horrenbestez, Arabako Landa Etxebizitzen Planak holako proiektuetarako dirulaguntza lerro berezitua izango du.

- » Arreta berezia eskaini behar zaie herriguneetatik kanpoko etxebizitzeari, baserriari eta antzekoari, batez ere abandonatuta edo abandonatzeko arriskuan daudenei. Hauen kasuan birgaitzeko eta alokairu sozialeko planetan sartzeko baldintza berberak betetzeaz gain, esfortzu berezia egingo da holako etxebizitzak tokian tokiko nekazaritza eta abeltzaintzako jardueran tradizionalen txertatzeko edota sektoreko jardueran mantentzeko; horrenbestez, lehentasuna emango zaie kasu horretan lehen sektorean jarduteko borondatea azaltzen duten eskatzaileei, eta euren inkorporazioan laguntzeko Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza funts berezi bat sortuko du, Arabako Landa Etxebizitzen Planaren funtsaren osagarri eta bateragarria izango dena.
- » Landa Eremuan ere etxegabetzeak gertatzen dira, beraz, hauek ekiditeko edota horren ondorioak arintzeko hiriguneetako protokolo berberak erabiliko dira: babes funtsak hipotekari aurre egin ezin dioten lagunentzat, adin txikikoen babes maila gorena eta inor etxegabetu aurretik bizitoki-alternatiba bermatzea, ahal bada udalerri berean. Holakoetan, ezinbestekoa izango da Udal eta Kuadrillen menpeko Oinarritzako Gizarte Zerbitzuen, Foru Aldundikoen eta Etxebidieren arteko koordinazio protokoloek bikaintasun osoz funtzionatzea, eta horretarako protokolo horiek Arabako Landa Etxebizitzen Planaren baitan jasoko dira.

4.4. Kuadrillak

Kuadrilla bakoitzerako EH Bilduk egiten dituen proposamen nagusien laburpentxo bat eskaintzen dugu hurrengo ataletan:

4.4.1. Lautada

Kalitatezko zerbitzu publikoak eta ingurumenaren defentsa dira gure lehentasunak Arabako Lautadan.

Laster Axpurun Eguneako Arretarako Landa Zentroa jarriko dugu martxan, Asparrena, Donemiliaga eta Barrundiako udalek kudeatuko dutena. Bestalde, Asparrenan hondakin organikoak tratatzeko konpostaje-planta bat egingo da, eskualde osorako pentsatuta dagoena. Era berean, tokiko energia-komunitateak bultzatzeko eta finantzaketa-lerro espezifikoak irekitzeko konpromisoa hartzen dugu, diru-kopuru nahikoarekin eta aholkularitza-bulego baten laguntzarekin. Landa Garapeneko Elkartek lehen sektoreari laguntzeko egindako lana bultzatzen jarraituko dugu, eta

eskualdean ekoizitako elikagaiak eraldatzeko hainbat ildo garatzen. Barrundiako Udalak bertako produktua sustatzeko gune bat sortzeko abian jarritako proiektuak gune gastronomiko bat izango du barne eta zerbitzu hori indartuko du. Eta bukatzeko, ez ditugu ahazten gure bizilagunek modu zabalean, garraio publikoa eta osasun-arreta duin eta kalitatezkoa lortzeko egindako eskaerak.

4.4.2. Aiaraldea

Aiaraldeak aurrera egin behar du inor atzean utzi gabe.

Aiaraldeko errealitate sozioekonomikoa sakonki aldatu da azken hamarkadetan. Aiaraldeko bizilagunok aldarrikapen askoren inguruan erakutsi dugu gizarte arduratsu eta antolatu bat osatzen dugula. Indar horrek guztiak gure eskualdeko gobernuetan ere isla izateko unea da. Zenbait alderdiren gobernantza-ereduaren ezintasunak atzean utzi eta aurrera egiteko unea. Erabakitasunez bultzatuko dugu gure eskualdeko birmoldaketa sozioekonomikoa, garraio publikoa hobetuko dugu autoaren alternatiba erreal eta eraginkorra izan dadin, gizarte zerbitzuetan kalitatezko lehen mailako arreta bermatuko dugu eta gure batzar administratiboen aldeko apustua egingo dugu gure herrietan bizi, ikasi eta lan egin ahal izateko. Gure eskualdeak aurre egin behar dien erronka berriak lidergo berriek gidatu behar dituzte. Ekimenekin eta konponbideekin.

4.4.3. Gorbeialdea

Zerbitzu publikoak eta ingurumenaren babesa: gure apustuak Gorbeialderako.

Kalitatezko zerbitzu publikoak eskaintzea da EH Bilduren helburu nagusietako bat. Horretarako, egoitza publiko bat eraikitzea bultzatuko dugu, eta oinarritzko gizarte zerbitzuak indartzen jarraituko dugu. Hori guztia, garraio publikoa eta osasun arreta hobetzea premiazkoa dela ahaztu gabe. Era berean, konpromisoa hartzen dugu tokiko komunitate energetikoak bultzatzeko, finantzatzeko eta aholkularitza-bulego bat abian jartzeko. Gorbeialdeako Kuadrillak turismoa eta gure baliabideen ustiapen iraunkorra sustatzeko egin eta egiten duen lana ere bultzatzen jarraitu behar dugu. Bereziki aipatzekoa da Kuadrilla mailan lantzen ari den Hondakinak Kudeatzeko Plana. Gainera, ezin dugu ahaztu lehen sektorearekin dugun konpromisoa; horregatik, hainbat eraldaketa gune instalatzeko eta martxan jartzeko aukera aztertuko dugu.

4.4.4. Añana

Añanan kezka sortzen duten hainbat gai daude, eta horiek konpontzeko konpromisoa hartzen du EH Bilduk.

Lehenik eta behin, eta Trantsizio Energetikoari dagokionez, lurraldea deskarbonizatzeko neurriak planteatzen ditugu, gure eskualdeko ingurumen ondarearen defentsarekin bateragarriak direnak; beraz, tokiko komunitate energetikoak bultzatzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu. Gainera, Añanarentzat lehentasunezkoa da Tuestako industrialdean tokiko elikagaiak eraldatzeko zentro bat

jartzea defendatzen jarraitzea. Bestalde, Añanak ez du egoitza publikorik. Hala ere, gure adinekoek arreta publikoa eta kalitatezkoa behar dute eskualdetik irten gabe, eta horregatik premiazkoa da kudeaketa publiko eta zuzeneko egoitza bat martxan jartzea. Gainera, bertako udalerri guztietan etxeko ospitalizazio-zerbitzua sartzeari eskatzen dugu. Etxebizitza duina eta egokia behar dugu gazteentzat: Belaunaldi berrientzako etxebizitza bizigarrien eskasia da irtenbidea eman behar diogun beste arazoetako bat: babes ofizialeko etxebizitzak, birgaitzeko eta alokatzeko laguntza errealak... Erakunde guztiok lan egin behar dugu gure eremuan eskubide hori egia bihurtzeko. Azkenik, eskola-garraioaren egoerari buruzko azterlan zehatz bat egitea proposatzen dugu, familien eta hezkuntza komunitatearen parte-hartzearekin. Premiazkoa da garraioaren arazoiari irtenbidea bilatzea, funtsezkoa baita biztanleria finkatzeko eta gure herrien despopulazioa geldiarazteko. Gainera, AHTren Burgos-Gasteiz linearen ibilbidea errefusatzeko dugu, eragin handia izango baitu gure Kuadrillan, ondorio ekologiko, sozial eta kultural oso larriekin, eta Araban proposatutako tren sozialaren aldeko apustua egiten dugu.

4.4.5. Mendialdea

Herriei zerbitzuak ematea funtsezkoa da despopulazioari aurre egiteko.

Despopulazioaren fenomenoak Arabako Mendialdeko hainbat udalerriri eragiten die. Horregatik, EH Bilduk zerbitzu publiko gehiago bultzatzeko konpromisoa hartzen du, biztanleria finkatzeaz gain, herritar berriak erakartzeko. Hori guztia, egungo arazoari irtenbidea emango dion etxebizitza-plan batekin batera. Bereziki garrantzitsua da eskualdean adinekoentzako egoitza publiko bat sortzeko beharra, eguneko zentroetako asistentzia malgutu eta mendekotasunetik ez duten pertsonentzako jantoki zerbitzu bat ezartzearekin batera. Lehen sektoreari dagokionez, premiazkoa da nekazaritzako elikagaien berezko estrategia integrala bultzatzea. Ildo horretan, EH Bilduk nekazaritzako elikagaiak eraldatzeko zentro bat sortzea bultzatuko du. Beste lan ildo bat klima aldaketaren aurkako borroka izango da. Laminoria eta Azazetako proiektu eolikoaren aurrean, komunitate energetikoak finantzaketa handiagoarekin bultzatzearen eta aholkularitza emateko bulego bat sortzearen aldeko apustua egiten dugu.

4.4.6. Arabako Errioxa

Zerbitzu publikoak, mahastizaintza eta ardogintza, turismo arduratsua eta bidezko trantsizio energetikoa dira EH Bilduren apustuak Arabako Errioxarako.

Lezako ospitalea eskualdeko ospitalea izateko eta mamografia-zerbitzua emateko lanean jarraituko dugu. Gainera, gure adinekoei kalitatezko zerbitzua bermatzeko, Bastidan CRAD bat sortzea bultzatuko dugu, eta Oiongo eta Samaniegoko egoitzetako plantillak indartuko ditugu. Hori guztia, gazteak eskualdean geratzeko erraztuko duten etxebizitza-politika eraginkorrak bultzatzeko garrantzia ahaztu gabe. Arabako Errioxak eta bertako upategiek eskubidea dute euren ardoak bereiztearen alde egiteko eta euren produktuak zein izendapenekin merkaturatu nahi dituzten askatasunez erabakitzeko. Turismoari dagokionez, beharrezkotzat jotzen dugu eskualdeko turismo

plan integral deszentralizatu bat, turismo enologikoaz haratago joango dena. Horrela, eskualdeko ondare historiko, etnografiko eta kulturalari balioa emango diogu. Klima aldaketaren aurkako borroka lehentasuna izan behar da. Labrazakoa bezalako proiektuen ugaritze desordenatuaren aurrean, energia komunitateak finantzaketa handiagoarekin bultzatzearen eta aholkularitza emateko bulego bat sortzearen aldeko apustua egiten dugu.

4.4.7. Trebiñu

Integrazioa Araban eta lehen sektorea dira EH Bilduren apustuak Trebiñuko enklaberako.

Erakundeen arteko hitzarmenek ez dute balio izan Trebiñuko Enklabea Araban integratzeko helburuan aurrera egiteko, eta premiazkoa da aldarrikapen historiko hori suspertzeko ibilbide-orri partekatu bat zehaztea. EH Bilduk Trebiñuko eta Argantzongo udalen, kontzejuen, tokiko elkarte eta kolektiboen eta herri mugimenduaren arteko lankidetzaren aldeko apustua egin du, 1998ko herri galdeketatik 25 urtera, integrazioaren aldeko gehiengo soziala mahai gainean jartzeko. Ariketa horrek bultzada eman behar dio blokeoa mantentzen duten erakundeetan eztabaidari berriro ekiteko, eta akuilu izan behar du oraindik integrazioaren aurka dauden alderdi politikoen jarrerak makurrarazteko. Lehen sektoreari dagokionez, premiazkoa da estrategia integral bat bultzatzea. Sektorearekin batera eraginkorrak diren politikak zehaztu behar dira. Ildo horretan, EH Bilduk lur banku publikoa sortuko du, tokikoak, freskoak eta osasuntsuak diren elikagaien kontsumoa sustatuko du, eta nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategi guztien mantentzea ziurtatzeko mekanismoak ezarriko ditu.

5. Klima Erronka, Energia Trantsizioa eta Eredu Sozioekonomiko Berria

5.1. Erronka Ekosoziala

Sarrera

Azken urteetan gero eta ageriagoa mundu mailan krisi ekologiko globalaren zantzuak. Klima larrialdiarekiko kezka areagotu da, eta ez nolanahikoa. Bataz besteko tenperatura igo, lehortekak, muturreko fenomeno meteorologikoak, bioaniztasunaren etengabeko galera kezagarria...Beraz, ingurumenaren arloan klima aldaketaren aurkako estrategiak hartu du lehentasun eta garrantzia gehien. Planetaren muga biofisikoak gaingitu ditugu azken hamarkadetan, eta ez gara gai CO2ko isurketak behar bezala murrizteko. Datuak gero eta kezagarriagoak dira. Klima Krisia eta lotura zuzena duen Bioaniztasun krisia ditugu aurrean eta berandu baino lehen neurri

ausartak, eraginkorrak eta sakonak hartu behar dira. Biziraupen kontua ere bada. Bada garaia ere, onartzeko ezin ditugula egungo baliabideen kontsumo-mailak mantendu, eta barneratzen hasteko gehiago izatea ez dela hobeto bizitzea. Bukatu da hazkunde mugagabearen garaia. Deshazkundera edo kontsumo murrizketa barneratu behar da egungo eta etorkizuneko eszenatokietan. Ekoizpen ereduan zein kontsumo ereduan aldaketak eman behar dira derrigorrez.

Legealdiko balantzea. Egungo egoera

1. Erronka Ekosoziala

- » Legealdian frackina eta gasaren erauzketarako proiektua baztertzea lortu da, presio sozialak, oposiziotik egindako lanak eta erregai fosilak baztertzeko beharrak bultzatuta. Garoñari dagokionez, gelditu da behin betiko baina eraispen prozesua geldirik dago eta zenbait arrisku daude.

2. Estrategia energetikoa

- » PTSren atzerapen interesatua dago PNV-PSEren gobernuen aldetik, bitartean eskala handiko proiektu eoliko eta fotovoltaikoak inposatu dituzte, ordenarik eta planifikaziorik gabe. Proiektu hauen aurka presio eta mugimendu sozialak indarra erakutsi zuen, batez ere lehen bi urteetan. Ondorioz, Arkamu eta Iturrietako proiektuak baztertu behar izan zituzten.
- » Lurralde osoan nekazaritza lurrak erosten edo alokatzen ari dira Solaria eta beste enpresa batzuk inongo irizpiderik gabe, lur espekulazioa eta forma desagokiak erabiliz. Larria da Arratzua Ubarrundiako proiektua, bitan banatuta 350 hektarea dituenak, nekazaritzako balio estrategiko lurretan gainera.
- » Oso jarrera epela eta batzuetan kontrakoa Arabako Foru Aldundiaren aldetik autokontsumoa edo sorkuntza banatuaren aurrean.
- » Komunitate energetikoak zabaltze izugarria izaten ari dira herri askotan. Hiru martxan daude jada lerro hauek idazterakoan (Lasierra, Gaztelu, Urarte) eta beste 50 inguru sortze bidean. Diputazioak, berriz, gurutzada moduko bat egin du komunitate hauek zabal ez daitezen, mehatxuak egiteraino.
- » Testuinguru honetan EH Bilduk Araba 0 Karbono estrategia aurkeztu du legegintzaldi honetan. Hona hemen puntu nagusien laburpentxo bat.
 - Energia subiranotasuna, kontrol publikoa eta demokrazia energetikoa, natur ondarea zaintzea eta adostasunak lortzeko beharra.

- 2030 urterako energia berriztagarriaren ekoizpena %500ean biderkatzea, kontsumo gordinaren %35 energia lortzeko; eta kontsumo orokorra %30 murriztea.
- 2050 urterako lurraldea karbonoan neutroa
- Ekoizpen berriztagarria bider hamar handituko da. Gaur egun urteko 1.000 gigawatt-ordukoa (GWh) da, hau da, ekoizpen osoaren %7,5. Hori lortzeko 2030eko tarteko agertokian, ekoizpen berriztagarria bider bost handitu behar da, energia fotovoltaiakoko 2.250 GWh eta energia eolikoko beste 1.000 GWh ekoizteko.
- Planifikazio irmoa, estrategia eraginkorra eta kudeaketa demokratiko, garden eta kolaboratiboa, interes publikoa eta errentagarritasun soziala lehenesteko.
- Energia berriztagarrien hedatzea ingurune naturala eta biodibertsitatea errespetatuz babes edo paisaia eremu gisa katalogatutako natur guneak eta mendiak eta babestutako flora edo fauna ukitzen dutenak baztertuz.
- 2030erako berotegi gasen emisioa %55 jaitsiko da.

3. Hondakinen Tratamendua

- » Aurreko legealdiaren bukaeran onartu zen Arabako Hondakin plana 2017-2030. Parte hartu genuen hainbat proposamenarekin, plana ez da txarra, baina abstenitu ginen bi arrazoiengatik. Prebentzioan ez zuen sakontzen behar beste, eta ez zuelako aurreikusten bitarteko materiala eta enplegu berdea (250 enplegu) sortzea. Esan genuen hau gabe planak porrot egingo zuela eta ez delako erraza ohiturak aldatzea, eta errealitateak erakutsi du arrazoa genuela. Planak porrot egin du oraingoz. Bilketa selektiboan aurrera pausu gutxi eman da. (%36). Birziklapen tasa %34koa da eta 2020 urtean %50era iritsi behar genuen, berrerabilpena %0,41koa, plastiko eta ontzien birziklapenean oso motel goaz, eta %53a bidaltzen dugu zuzenean zabortegira.
- » Foru Gobernuaren apustua: balorizazioa. 3 planta egingo dira, organikoa bildu eta balorizatzeko (erretzeko), beste bioestabilizatua hobetzeko, eta hirugarren bat enpresa batzuen eskutik hidrogenoa sortzeko hondakinak balorizatu ostean. Bide okerra da, prebentzioan eta bilketa selektiboan indarra jarri beharrean, emaitzak hobetzeko asmoz apustu sendoena izatea hondakinak balorizatzea, hau baita, Europako jerarkiaren azken aurreko aukera.

- » Eredu austriarra izeneko agrokonposta tratatu eta nekazaritzarako ongarri moduan erabiltzeko Abere elkarteak bi esperientzia pilotu egin arren, bide honi ez diote jarraipenik eman.

4. Ur Masen Kudeaketa

- » Ibai eta hezegune askoren egoera egologikoa zein emari ekologikoa kaxkarra da. Oso gutxi aurreratu da legealdi honetan. Isurketak eman dira eta Jugalez ibaian behin baino gehiagotan ibaia lehortu dute.
- » Urbide kontsorzioarekin batera, ahalegin berezia eman da ur kudeaketa zentralizatzeko eta kontrolatzeko. Ondo dabilzan hainbat partzuergok edo kontzejuk presioak eta txantajeak jasan dituzte Urbiden sartzeko. Foru Gobernuaren asmoa da ahalik eta partzuergo gehien Urbiden sartzea eta horretarako dirulaguntzak baldintzatzea.
- » Baias ibaiak ere jarraitzen du lehortzen aldiro. Urkabustaiz eta Zuia udalerrien baltsa bat egiteko eskaera kontuan hartu du Urak. Proiektuak aurkeztu die, baina baldintzatu nahi du Urbiden sartearekin.
- » Barron urtegiaren proiektua bertan behera utzi zuten Madrilen, Diputazioaren iritziaurre aurka. Herri mugimenduaren eta oposizioaren garaipen sinbolikoa izan da.
- » Jugalez ibaia. Balore ekologiko altuak izan arren, ez dago babestuta. KBE izendatzeko prozedura abiatuta dago. Bestalde gehiegizko kontzesioak ditu eta bere emaria modu ilegalean desbideratu beste urbide batera ibaia lehortuz hainbat momentutan
- » Alegria kanala dela eta, kexak eta animalien hilkortasuna eman da. Lan mahai bat osatu zen eta zerbait egingo dela hori konpontzeko ematen du, baina oso poliki doaz.

5. Bioaniztasunaren Zaintza

- » Valderejon ozono kutsadura eman da hainbat aldiz, baita sai arren populazioaren murrizketa nabarmena ere bertan eta Sobronen.
- » Bioaniztasunean jarraikortasuna eman da, areagotu beharko lirateke politikak bioaniztasun krisiaren aurrean.

6. Mugikortasun Eredua Berria

» Araba Erdialdeko Aldirietako Trena

- PNV-PSEren Gobernuak AHTren aldeko apustuarekin jarraitu dute legealdi osoan zehar, Altsasu-Miranda trazadura berria sustatu nahian, orain arteko emaitzak nahiko eskasak izan badira ere hainbat arrazoigatik: AHT proiektuen jasangarritasun ekonomiko eta ekologikoaren eza gero eta begi-bistakoagoa, trenbidearen korridoreko herrien eta herritarren errefusa zabala eta Tren Sozialaren aldeko Plataformaren lan txukuna, Estatu Frantsesak “korridore atlantikoarekin” lotura baztertu izana... Bitartean ezertxo ere ez dute egin Araba Erdialdeko Aldirietako Trenaren maiztasuna eta prestazioak hobetzeko.

» Foru Garraioa: Bus Lineak eta Eskualde Garraioa

- Aldundiak jarraitu du Eskualde Garraioa garatzen, orain arteko emaitzak aurreko ereduarenak baino hobeak direlarik, intermodalitatearen aldetik planteamendu ausartagoa egin bazitekeen ere. Bus Lineen garapenari dagokionez hiru kontu nagusi jorratu ditu EH Bilduk legealdi honetan:
 1. Gasteiz-Foronda-Bilbo-Loiu linea berriaren inguruko eztabaida, non oso jarrera kritikoa izan dugun Gobernuaren jarrerarekin bi puntutan: linea berriren kudeaketa, Araban kilometro gehiago Bizkaian baino egin arren, Bizkaiko Diputazioaren esku uzteagatik eta Gasteizen zehar egiten diren geltokiak mantentzea.
 2. Galdakaoko Ospitalera Amurrio eta Laudiotik zuzenean joango den autobus linearen inguruan Aiaraldeko Pentsionistek egindako eskaera babestu dugu Aiaraldeko udaletan zein Batzar Nagusietan.
 3. Agurain-Gasteiz bus linea ezartzeko eta, oro har, bien arteko garraio publikoko lotura hobetzeko eskaerak egin ditugu, eta Garraio Publikoaren aldeko Lautadako Plataformarekin elkarlanean jardun dugu. Zorionez, legealdia amaitzear zegoenean iragarri da linea berria (Araia-Agurain-Gasteiz) indarrean sartuko dela.

» Bizikleta Plana

- Ibilbide berdeen eta bizikleta bideen plana onartu da. Gure ustez motz geratzen da, bai anbizio gutxi erakusten duelako bizikleta bideei dagokienez, bai Araba osoan zeharreko sare bat osatzea eta intermodalitate aukera berriak aztertzeari uko egiten diolako,

eguneroko mugikortasun alternatiba errealak bihurtzeko bidean, bai hamarkada osorako aurreikusitako finantzazio motz geratzen delako.

» Errepide Sarea

- Legealdi honetan EH Bildurentzat estrategikoak diren eta aurreko legealdian sustatu genituen hiru errepideotako lanak amaitu egin dira: N-240ko Legutio eta Bizkaiko mugaren arteko zatia, N-124ko Zabrana eta Beranturi artekoa eta A-625eko Saratxoko saihesbidea.

» Gaitasun Handiko Bideak

- Datorren legegintzaldian, zorrotz eta adostuta egin behar zaio aurre Arabako gaitasun handiko bideen finantzaketaren eztabaidari, Aldundiak 2026ko azaroan A-68 errepidearen zatia jasoko baitu. Horrenbestez, Aldundiak kudeatuko du Arabako errepide-sare osoa, Trebiñu zeharkatzen dutenak izan ezik; horregatik legealdi honetan Arabako Gaitasun Handiko Bideen finantzazio eredu berrirako oinarriak adostu dituen ponentzian gure ekarpenak egin ditugu, ponentziaren ondorioetan aurrera begirako oinarri sendoak adostuz EH Bildu, PSE, PNV eta Podemosen artean, sozialki zein ekonomikoki finantzazio eskema justuagoa ezartzeko asmoz 2027tik aurrera, hots, AP-68ko Arabako zatia Foru Aldundiaren esku geratzen denerako.

Aurrera begirako ildo nagusiak

Hurrengo legealdirako arlo hauetan bereziki eragitea proposatzen dugu:

- » Onartu beharra dago ezin ditugula egungo baliabideen kontsumo-mailak mantendu, eta barneratzen hasteko gehiago izatea ez dela hobeto bizitzea. Bukatu da hazkunde mugagabearen garaia. Deshazkundera edo kontsumo murrizketa barneratu behar da egungo eta etorkizuneko eszenatokietan. Ekoizpen ereduari zein kontsumo ereduari aldaketak eman behar dira derrigorrez.
- » Klima larrialdia areagotuko da datozen urteetan, eta beraz, klima larrialdia arintzea eta bestetik, Arabaren erresilientzia klimara egokitzeak izan behar dira apustu nagusiak.
- » Lurraldearen deskarbonizazioan urrats ausartak eman behar dira lurraldearen deskarbonizazioa lortzeko. Araba 0 karbono da gure bide orria helburu horretarako:
 - Energia kontsumoa murriztea

- Gasen isurketak jaistea
- Basogintza iraunkorrak zein nekazaritza ekologikoak nabarmen murriztu ditzakete CO₂ isurketak eta GEI. Nekazaritzaren kasuan energia lurzorua emankortasuna mantentzea da barne-inputen bidez (txandakatzeak, ongarri berdeak, lekadunak landatzea, eta abar) energia murrizketa emanez, ez direlako erabiltzen fitosanitarioak eta sintesi-ongarriak, eta aziendaren elikaduran kanporatze-maila txikiak daudelako.
- Energia demokratizatzea eta sorkuntza banatua bultzatzea.
- Energia berriztagarriak sustatzea. Autokontsumoa zabalduz, energia komunitateak areagotuz, eta berriztagarriak bultzatuz, beti ere planifikazio publiko baten barruan, bioaniztasuna eta balio natural handiko mendiak eta nekazaritza lurak salbuetsiz.
- Tokiko estrategia agroalimentario iraunkorra bultzatu, garraio eta energia kontsumoa murrizteko eta trantsizio agroekologikoen bidez, fitosanitario eta ongarri kimikoak murrizteko eta nekazaritza lurrek ahalik eta ahalmen handiena izateko CO₂ xurgatzen.

Proposamen zehatzak

- » Arabako herrietan ekonomia zirkularra bultzatu hiru ildotan: energia komunitateak sortuz, hondakin organikoen trataera deszentralizatua bultzatuz eta filtro berdeetan oinarritutako ur saneamendua.
- » Nekazaritza sailarekin elkarlanean, laguntza bereziak eman nekazaritza jardura edo trantsizio agroekologikoak zein basogintza iraunkorra bultzatzen dutenentzat, gas isurketen murriztapenean eta CO₂ xurgatzen dutena ematen dutena kontuan hartuz, klima aldaketaren eraginak arintzeko. Horretarako AFAK ikuskatzaile zerbitzu bat jarriko du.

5.1.1. Energia Estrategia

- » Araba O Karbonoa estrategia garatzea
(https://ehbildu.eus/herriak/araba/dokumentuak/EU_1651851068.pdf)

- » Energia Komunitateak eta autokontsumoa zabaltzea ahalik eta herri gehienetan, etxebizitzetan eta eraikin publiko zein pribatuetan. AFAk bulego komunitario bana jarriko du kuadrillean helburu hau garatzeko
- » Energia murrizteko planak ezartzea udal guztietan, industrian, jarduera ekonomikoetan, eta etxebizitzetan.
- » Proiektu berriztagarri eoliko eta fotovoltaiakoak planifikazio partekatua eta adostua, eta gidaritza publiko baten barruan garatzea, beti ere balio handiko eremu eta lurak salbuetsiz.
- » Biomasa, geotermia eta proiektu hidroelektrikoak garatzea aukera duten herrietan.
- » Garoñako zentral nuklearraren behin betiko eraispena.

5.1.2. Hondakinen Tratamendua

- » Hondakinetan zero zabor politikarantz joan.
- » Modu irmoagoan eta eraginkorragoan egin behar da aurrera hondakinen murrizketan.
- » Ontzien berrerabilpenean aurrera egiteko eta nekazaritzako lurzoruetan hondakin organikoak biltegitratzeko, itzultzeko edo berrerabiltzeko sistema baten alde egiteko, beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzak araudia egokitzea helburu horiek lortzeko.
- » Dauden hondakinen azpiegituren kudeaketa zuzena bultzatu behar da
- » Errealitatea eraldatzeko eta birziklatzearen % 50 gainditzeko gakoa konpostajearen kudeaketa da. Gure ustez, ekonomia zirkularrean aurrera egiteko, nekazaritza sektorerako ongarri gisa sortutako konposta berrerabiltzearen aldeko apustua egin behar da. Plan pilotuen alde egin behar da, eta udalek eta kuadrillek beren planak garatzeko aukera izan behar dute. Araba erreferente bilakatuko behar da biohondakinen trataeran, kalitatezko ongarria sortuz, ekonomia zirkularra sustatuz. Aliantza bat behar da nekazaritza sektorearekin.
- » Funtsezkoa da gaikako bilketa hobetzea, udal bakoitzean erabaki beharreko hainbat eredu ahalbidetuz.
- » Hondakinen bilketa selektiboa ezartzea udalerri guztietan.

- » Hondakin organikoak edo biohondakinak tratatu eta nekazaritzan berrerabiltzeko ongarri gisa proiektuak zabaltzea Araba osoan Abererekin batera.
- » Hondakin organikoak tratatzeko Asparrengo proiektua bultzatzea eta antzeko plantak ezartzea beste Kuadrillean.
- » Jundizko ontziak sailkatzeko eta birziklatzeko planta publikatzea.

5.1.3. Ur Masen Kudeaketa

- » Ur kudeaketan laguntza eta aholkularitza ekitatiboagoa eman behar zaie partzuergo guztiei, kontzejuei zein Urbideri. Kontrola eta zentralizazioa bultzatzen dituen AFaren jokaera Urbideren bidez aldatu behar da. Eskumenak errespetatu behar dira.
- » Urrats sendoak eman behar dira ibai eta hezeguneen egoera ekologikoa hobetzeko eta isurketak ekiditeko.
- » Urari buruzko kultur berri batekiko sentsibiltatea sustatu behar da arabarron artean, gure gizartearen eremu desberdinetara (administrazioa, hezkuntza komunitatea, gizarte osoa....) bideratutako berariazko kanpainen bidez.
- » Baias, Alegria eta Jugalez ibaietako emariarekin dauden arazoak konpondu behar dira eta horniketa ziurtatu Zuia eta Urkabustaizen.
- » Babestu, lagundu eta aholkularitza eman ura kudeatzen duten herri eta urkidetza guztiei, Urbideri ematen zaio trataera berarekin. Uraren kudeaketa publikoaren aldeko apustu irmoa egitea eta pribatizazioak saihesteko neurriak hartzea.
- » Zuia eta Urkabustaiz ur horniketa arazoak konpontzeko eta Baias ibaiaren emari ekologikoa babesteko baltsa bat eraikitzea.
- » Ur masen egoera ekologikoa hobetzea.
- » Ibaietako isurketa kutsakorrak kontrolatzeko protokolo berria eta bitarteko gehiago ezartzea.
- » Alegria kanalari behin betiko konponbidea eman.

- » Zadorrako ur kalitate ekologikoa hobetzea, batez ere Krispiñako araztegitik aurrera, eta urbazterrak eta bertako landaretza errekuiperatu.
- » Jugalez ibaia babestu eta Bergantzuko kanala bereizten den lekuan neurgailu iraunkorra jarri emari ekologikoa kontrolatzeko.

5.1.4. Bioaniztasunaren Zaintza

- » Lehentasunezkoa da bioaniztasuna babestea datozen urteetan. Korridore ekologikoak babestu behar dira, bai hegaztientzako korridoreak, eta baita bestelako faunarentzat ere, horretarako salbuetsi behar dira balio handiko korridore ekologikoak azpiegituretatik eta, bestetik, errepideetan ezarri behar dira neurriak faunak pasabide ziurrak izateko.
- » Babestutako eremuak. Gainditu behar da gaur egun dagoen dikotomia maltzurra: naturaren kontserbazioa versus nekazaritza sektorea eta herriak. Alde horretatik, Ipar Euskal Herriko eredia oso interesgarria da, zigor eta debekuetan indarra jarri beharrean, adostasunetan eta partaidetzan jarri dutelako, eragile guztien artean plan integralak osatzeko. Honek, jakina, beste gobernantza estilo bat eskatzen du ezinbestean, baina bide bakarra da nekazaritza mundua, herriak eta naturaren defentsa elkarren osagarriak izan daitezen. Helburua: Garapen sozioekonomikoa eta naturaren kontserbazioa modu integralean jorratzea gune horietan. Aurreko guztia kudeaketa planetan islatu behar da, eragileen osaketa anitza bermatuko dutenak eta baliabideak eta kudeaketa ahalmena izan behar dituztenak.
- » Gasteizko Mendiak parke naturala proiektua berrezartzea eta parke naturalen antolamendu planak edo PORNak berraztertu partehartzea bultzatuz eta nekazaritza eta ingurumenaren osagarritasuna bermatuz. Parke Natural proiektu pilotua abian jarri, onuragarriak diren nekazaritza jarduerak diruz lagunduz.
- » Diru laguntza bereziak CO₂ xurgatzen dituzten nekazaritza praktikei eta bestelako ekimenei.
- » Lurraldeko balio handiko korridore ekologikoak zehaztu eta babestu, ur masak zein espazio naturalak edo bestelakoak izan. Lurraldearen zatiketa eta suntsiketa saihestu.
- » Faunarentzako pasabide ziurrak ezarri errepideetan eta baltsak naturalizatu.
- » Arabako Lautada osoa Biosferako Erreserba egingo dugu.

5.1.5. Mugikortasun Eredu Berria

Lehentasuna izan behar da mugikortasun eredu berri bat ezartzea, klima aldaketaren kontrako borrokarekin eta energia trantsizioak ezarritako behar eta erronkekin koherentea izango dena eta printzipio nagusi hauetan oinarrituko dena:

- » Garraio publiko eta kolektiboa lehenetsi garraio pribatuaren aurrean.
- » Erregai fosilak erabiltzen dituzten garraio moten aurrean garraio elektrifikatuak lehenetsi.
- » Arabako biztanleria osoaren mugikortasun beharrak asetu garraio publikoaren bidez.
- » Aurrekontuen eta zerga politikaren bidez mugikortasun eredu berria sustatu, bai foru garraio publikoan behar diren inbertsioak sustatuz, bai praktika koherenteak sarituz, bai jarduera kutsakorrenak zergapetuz.
- » Halaber, gaitasun handiko bideen finantzazio eredu berria (2027tik aurrerakoa) koherentea izan behar da oinarritzko planteamendu honekin.
- » Intermodalitateari bultzada berezia eman bi norabidetan:
 - Garraiobide publiko desberdinen arteko intermodalitatea landu, bai foru eskumenekoak (Alavabus, eskualdeko garraioa eta bizikleta plana) diren artean, bai horien eta beste instituzio batzuen eskumenekoen artean (aurrekoak eta aldirietako trena, Gasteizko tranbia eta udal mailako garraiobideak).
 - Horrekin batera, eta behingoagatik, Bat Txartela erabilgarri bihurtu Arabako garraiobide publiko guztientzat, garraiobidea edozein izanda ere kilometroko tarifa bakar batekin. Horrekin batera, EAEko Mugi eta Barik txartelekiko interoperatibitatean urrats berriak egin eta Nafarroako Gobernuarekin negoziazioak hastea Bat Txartela Nafarroako garraiobideetan erabili ahal izateko, batez ere bi herrialdeen arteko ibilbideetan.

Araba Erdialdeko Aldirietako Trena

- » AHTren aurrean, alternatiba eraginkorrena da Altsasu-Miranda korridoreko biztanleriaren mugikortasun beharrak asetzeko, beti ere bertako bestelako garraiobide publikoekin intermodalitatea landu, trenbidea hobetu eta maiztasunak handitzearekin batera.

- » Aiaraldeari zerbitzua ematen dio C3 linean maila guztietako inbertsioak (azpiegiturak, trenbidea, langileen kontratazioa) areagotu, egungo zerbitzuaren kalitatea handitzearen).
- » Arabako aldirietako trenen eskumenaren transferentzia aldarrikatzen jarraituko dugu.

Foru Garraioa: Bus Lineak eta Eskualdeko Garraioa

- » Eskualdeko Garraioa hobetzen jarraitu, batez ere intermodalitaterako eskaini ditzakeen aukerak aztertuz.
- » Gasteiz-Foronda-Bilbo-Loiu linea berriaren inguruan Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiek sinatutako hitzarmena birnegoziatzeko konpromisoa hartzen dugu, kudeaketa Arabak egin dezan, beti ere Bizkaiaarekin elkarlanean, baina Arabako titulartasunarekin koherentziaz jokatu.
- » Halaber, Gasteizko Udalarekin batera linea berriek eta egungoek Gasteizen zehar egiten dituzten tarteko geldialdiak berraztertzeke eta Gasteizko mugikortasun beharren eta intermodalitate planteamenduen arabera koherentizatzeko konpromisoa ere bereganatzen dugu.
- » Aiaraldeko Udalekin, Osakidetzarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean jardun Galdakaoko Ospitalera Amurrio eta Laudiotik zuzenean joango den autobus linea bat ezartzeko asmoz, egungo lineak dituen gabezia begi-bistakoak legealdi honetan konpontzeko.
- » Foru garraioan (Alava Bus eta eskualdeko garraioa) LGTBI+fobiari eta edozein sexu jazarpenari aurre egiteko protokoloak, kanpainak eta zerbitzu horietako langileentzako berariazko prestakuntza.

Bizikleta Plana

- » Bizikleta Plana garatzea Kuadrilla guztietan ohiko mugikortasunerako erabilgarri izango den bidegorri sare bat osatuz eta gune intermodalak jarri Eskualdeburu guztietan.
- » 2024-2034 tarterako 25.000.000€ inbertsio burutu Bizikleta Plana egokiro betetzeko.

Errepide Sarea

EH Bilduk Arabako Errepide Sarerako proposatzen dituen lehentasunak 2023-2027 legealdirako

- » Añanako saihesbidea eta La Tejerako portua hobetzea
- » Iekorako saihesbidea
- » Guardiako saihesbidea
- » Gaur egun Forondako aireporturaino iristen den N-624 errepidearen bikoizketa Krispiñaraino luzatzea, puntu horretan egungo A-1 errepidearekin lotuz.
- » A-1 errepidearen eta A-2134 errepidearen hasieraren arteko lotune berri osoa, Donostiarako noranzkoan ibilgailuak mugitzeko aukera guztiak ahalbidetuz; horrela, puntu horretatik Salburuarako sarbidea erraztuko litzateke Patioko Bentan irten behar izan gabe eta, beraz, trafiko horretatik N-104 errepidera jaitsi behar izan gabe.
- » Ilarratza eta Argandoña arteko A-4107 errepidea hobetzea (bazterbideak egitea eta Zerio inguratzea), A-1 errepidetik Mendialderako zirkulazioa errazteko, Arkaiaten sartu gabe eta Arkaute eta Elorriaga trafikoz kargatu gabe.
- » A-4001 eta A-2134 errepideen arteko bidegurutzea hobetzea (Zurbaoko bidegurutzea)
- » N-240 errepideari behin betiko irtenbidea ematea, lehenengo fasean Zabalaingo bidegurutzeraino, eta ondoren, handik A-4402 errepidearekiko bidegurutzeraino.
- » A-623 eta A-2620 errepideen arteko lotune berria, Legutioko herrigunetik egungo zeharbidea saihestuz.
- » A-625 errepidearen bigarren fasea. (Amurrio iparraldeko lotunea)
- » Tertangako zeharbidea
- » A-625: Amurrio-Laudio bikoizketa, Gardeako lotura barne, Laudiora sartzeko
- » Epe laburrean BI-2604 errepidean Artziniega eta Gordexola arteko zatian dauden irtengune asko kentzea eta horien ordeztu trafikoa baretzeko neurri atseginagoak eta eraginkorragoak hartzea

- » A-3641 (Ibaguen-Sodupe tartea): Errepidearen segurtasuna hobetzeko esku-hartzea (bazterbideak eraikitzea eta bihurguneak zuzentzea) eta ibilgailu astunen zirkulazioa murrizteko disuasio-neurriak.
- » N-124: Berantevillaren eta A-1erako sarbidearen arteko egungo lanak amaitzea eta Zañbrana-Haro tartea liberalizatzea, Gatzaga Buradon-Haroko Kontxak tartea ez bikoizteko
- » A-1 errepidetik Manzanoserako sarbide berria
- » Billodako sarbide berria, Zadorraren gaineko zubi berri baten bidez
- » A-124 eta A-2124 errepideen arteko bidegurutzea, puntu arriskutsu honen behin betiko konponbidea
- » A-4202 errepidea hobetzea Asan, A-4208 errepidea Eltziegion eta A-3226 errepidea Oiongo Santa Maria kaletik A-124rako bidegurutzeraino
- » N-232 errepidea hobetzea Samaniego parean, espaloiak eraikiz
- » A-4144 errepiderako behin betiko konponbidea, Zekuiano eta Musitu artean

Gaitasun Handiko Bideak

- » Etorkizunean, EH Bilduk uste du Araba gaitasun handiko bide horietatik iparraldetik hegoaldera zeharkatzen duen garraio astunak lagundu egin behar duela garraio hori finantzatzeko, Europako gainerako herrialdeetan edo Gipuzkoan eta Bizkaian bezalaxe, teknologiaren eta mugikortasunaren ikuspegitik egokiena den sistemaren bidez.
- » Horrekin batera, EH Bilduk neurriak planteatu ditu Arabako egoitza fiskala duten garraio-enpresentzat gainkostu hori arintzeko: ohiko erabiltzaileentzako hobariak, ibilgailuak berritzeko eta pneumatikoak aldatzeko dirulaguntzak. Azken bi neurri horiek, dagoeneko har zitezkeenak, atzera bota dituzte EAJk eta PSEk, bai Batzar Nagusietan, bai Eusko Legebiltzarrean.
- » Azkenik, A-68 errepidearen Arabako zatia bere gain hartzeak amaiera eman behar dio Aiaraldeko biztanleek hainbat hamarkadatan Gasteizerako eta Lurraldearen hegoalderako joan-etorrietan bide azkar eta seguruenetik jasandako diskriminazio ikaragarriari.
- »

5.2. Lehen Sektorea

Egungo egoera

Lurraldeko lehen sektorearen diagnostiko erreal eta eguneratua egiteko, azken urteetan eman diren egoera berriez jabetu behar gara, neurri handi batean, Arabako ekoizpenak ez ezik, kontsumoan izandako aldaketak eta etorkizuneko perspektiba desberdinak ere baldintzatu baitituzte.

Osasun krisia, Ukrainako gerra, NPBrren erreforma berriaren aplikazioa eta elikadurakatearen legea abian jartzea, bai eta klima aldaketa ere, dira sektoreari eragiten dioten baldintza berriak, inoiz ezagutu ez diren ekoizpen koste handiekin eta elikagaiak eta lehengaiak prezio justuetan ekoizteko eta saldu ahal izateko zailtasun handiekin. Muga berezi horiek elikagaien ekoizpenari, kontsumoari eta merkaturatzeari eragiten diete, eta, datozen urteetan, lurraldea eta bertan lan egiten dutenak faktore horietara egokitu beharko dira, sektore ekoizlearentzat ez ezik, kontsumitzaile askorentzat ere eragiten duten kalteberatasuna saihestu edota, gutxienez, leuntzeko.

Horretaz gain, Arabaren eta gainerako lurraldeen artean dagoen aldea, lurraldeen arteko desoreka eta lurra lortzeko zailtasunak eta horren erabilera berriak aitortu behar ditugu. Ekoizpenetan zein merkaturatzean, aldeak nabarmenak dira. Lur eremu handiak dituen herrialde batean gaude, laboreen dibertsifikazio garrantzitsuarekin, eskualdearen arabera, eta abeltzaintzako ustiategi gehienak ere handiagoak dira gainerako lurraldeekin alderatuta, baina hori ez da bermerik, ez bere biziraupenerako, ez ekoiztea kostatzen dena baino prezio handiagoan saldutako kalitatezko elikagaiak bermatzeko ere. Merkaturatzea kooperatiben bidez egiten da gehienbat, eta zuzeneko salmentak oraingoz ez du garrantzi handirik, baina pixkanaka gora egiten ari da, eta gutxi batzuentzat alternatiba izan daiteke, baina ez gehienentzat. Beraz, geure ekoizpenen jabe ere ez gara. Hala ere, Araban esan dezakegu oraindik badugula nekazaritza familiar eta sozialaren eredu bat, tamaina ertaineko nekazaritza eta abeltzaintzarekin.

Sektorea gero eta zaharragoa da, eta gero eta pertsona gutxiagoren esku dago. Abelburu gehiago dago ganadutegi gutxiagotan, eta horrek arrisku handiko zentralizazioa dakar. Horri buruz egin daitekeen irakurketa hauxe da: garaiz geldiarazten ez bada eta belaunaldi errelebua eta lurraren bidezko banaketa bultzatzen ez bada, urte gutxiren buruan lur pilaketa handiak izango ditugu eta gutxi batzuen esku egongo dira, eta gainerako nekazaritza-lurrak poligono bihurtuko dira edota behar ez dituenarentzat eta espekulatu nahi duenarentzat izango dira.

Legealdiko balantzea

Aurreko legegintzaldian, EH Bilduk proposatutako gai interesgarriak onartu ziren, hala nola Arabarako plan agroalimentario bat abian jartzea edo foru jantokiak bultzatzea. Esan dezakegu lau urte hauetan ez dela aurrera egin gai horietan, eta ez dela inolako norabide aldaketarik edo ekimen berririk ikusi. Hori larria da, Ukrainako gerra edo hornidura-krisia bezalako gertaerek edozein herrialdetan elikagaien gaiak duen garrantzia erakutsi dutelako eta, hala eta guztiz ere, Nekazaritza Sailak geldirik eta lo jarraitzen duelako. Aurreko mendeko eredia defendatzen jarraitzen du. Baina egoera desberdin eta berezien aurrean, erantzunak berritzaileak, handinahiak eta ausartak izan behar dira. Orain arte ez dugu horrelakorik ikusi.

Berezko eta kanpoko laguntzak kudeatzen dituen sail bat dugu, egitura arazoei eta arazo berriei tiritak jartzen saiatzen dena, baina ez du inolako aldaketarik eragiten, ezta gutxienekoa arriskatzen ere, pentsatuz, hausnartuz edo sektorea duinduko duten etorkizuneko alternatibak bilatuz. Eta hori gutxi balitz, erabaki eta apustu garrantzitsuenak lurrari eta lurraldeari lotutako sektore baten aurkakoak izan dira. Onartezina da Tuestako makroberotegien eta Gasteizko ipar-ekialdeko eta Arratzua-Ubarrundiako poligono fotovoltaikeen aldeko apustua egitea, eta are mingarriagoa da enpresa jakin batzuei ematen zaizkien laguntza izendunak, haien helburua oso urrun baitago modu lokal eta jasangarrian ekoiztu, eraldatu eta merkaturatzetik.

Balantzea, beraz, etsigarria da, eta etengabeko sektorearen barruko koska. Uste dugu ez dela erraza eta egiturazko gaiei heldu behar zaiela, baina Aldundiaren lana da erantzunak eta alternatibak ematea, Lehen Sektorean bizi diren eta lan egiten duten pertsonen bizitza duina eta bidezko errenta bermatzeko. Arabako Errioxari dagokionez, agerian geratu da Foru Aldundiak ez duela benetako ibilbide-orririk, eta haren apustu bakarra izan da Errioxako Jatorri Deituraren barruan Arabako Errioxa izendapenaren alde egitea, guztiz frogatuta badago ere proposamen hori bideraezina eta irreala da.

EH Bilduk hainbat ekimen egin ditu, hala nola Arabarako eredu agroalimentario berri baten aldeko apustua, Uztaraba Plana, sektoreko eragile askoren aurrean aurkeztuta. Besteak beste, ekimenok landu ditugu legegintzaldi honetan: Laudioko hiltegia babestekoak; esnearen prezioari buruzkoak; landa-bideak mantentzeko beharrari buruzkoak; basurdeen kalteak arintzeko premiari buruzkoak; nekazaritzako lan-istripuei buruzkoak; Ukrainako gerrak eragindako zerealen krisiari buruzkoak; eukaliptoa geldiaraziko duen nekazaritzako eta basogintzako eredu baten aldekoak; Arabako olibondoen eta olioaren sektoreari laguntzearen aldekoak; Eskalmendiko zentroa trantsizio agroekologikoak erraztuko dituen puntako zentro gisa bultzatzek; Ardo-Etxea Arabako Errioxako mahastizaintza eta ardogintzaren sektorerako berrikuntza, prestakuntza eta aholkularitzako zentro bihurtzeko; mahatsaren aldeko prezio duinak defendatzeko; upategi handietako langileen kolektiboa babesteko; Arabako Mahastien alde; botila eskasia geldiarazteko eta birziklatze-planta bat sustatzeko...

Ekimen horietako asko Batzar Nagusietan onartu dira, baina, oro har, oso epel bete dira. Gai gehienetan protagonismo eta erreferentzialtasun handia izan dugu, bai ekarpenak eta proposamenak, bai kontrol lanak egiterakoan.

Era berean, oso interesgarria izan zen Mixel Berhokoirogoinek eta Jose Bovék Ipar Euskal Herrian eta Frantziar Estatuko alternatiba berrien beharraz eta beste esperientzia batzuk ezagutzeaz egindako jardunaldiak

Aurrera begirako ildo nagusiak

Uztaraba estrategia abian jartzea, Arabarako nekazaritzako elikagaien estrategia lokal eta iraunkor batean aurrera egiteko.

» Helburuak:

- Lehen Sektorea duintzea
- Tokiko ekonomia bultzatzea
- Lurralde orekatu bat modu iraunkorrean kudeatzea
- Elikadura subiranotasunera hurbiltzea. 2050erako, kontsumitutakoaren $\frac{3}{4}$ tokikoa eta osasungarria edo ekologikoa izango da
- Klima larrialdiari modu eraginkor eta arduratsuan aurre egitea
- Tokiko ekoizpena eta kontsumoa bultzatzea, baita nekazaritzako sistema ekologikoetarako trantsizioa ere

» Kontuan hartu beharreko gakoak:

- Borondate, adostasun eta parte-hartze politikoa, sektoriala eta soziala
- Eskaintzaren, eskariaren edo ekoizpenaren eta kontsumoaren arteko erlazioa
- Elikagai lokalak, ekologikoak eta osasungarriak. Nekazaritzako sistema ekologikoetarako trantsizioa
- Elikagaiak ekoizten dituzten pertsonen duintasuna eta aintzapena
- Beharrezkoa da kontsumo-ohiturak aldatzea eta gizarteak parte hartzea
- Nekazaritza-lurra babestea AHTren, makroberotegien, poligono fotovoltaikoen eta mehatxatzen duten lurralde-planen aurrean.

- Nekazaritza eta abeltzaintza soziala, profesionala eta ez-espekulatiboa bultzatzea, eredu garden eta gizarteari irekia.
- Sailen eta erakundeen arteko zeharkakotasuna eta koordinazioa bilatzea landa eremuei eta Lehen Sektoreari eragiten dieten politika guztietan, landa eremuaz bestelako paradigma bat bultzatuz eta diskriminazio positibo posible bat balioetsiz, landa eremuak bere izaerari eutsiko zaiola bermatzeko.
- Pedagogia eta inplikazio soziala. Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren etorkizuna ez da soilik sektorearen kontua, gizarte osoa inplikatu behar duen kontua da. Lehen Sektoreak, Arabako gizartearentzako elikagai osasuntsuak ekoizteaz gain, lurraldea, paisaiak eta herriak bizirik mantentzen laguntzen du, eta horretaz guztiaz jabetu behar da gizartea, eta Euskal Herriari egiten dion ekarpena aitortu
- Despopulatzearen aurkako estrategian eta lurralde-orekaren aurkako estrategian Lehen Sektoreari laguntzeko zeharkako eta sailen arteko politikak sartzeko, kontuan hartu ditzaten landa eremuan bizitzeak dakartzan disfuntzioak.
- Araudiak egokitzea eta eguneratzea, landa eremuan eta herrietan lan egiteko eta bizi ahal izateko.
- Gaur egun dagoen dirulaguntza-sistemaren eta NPBaren inguruko hausnarketa eta birplanteamendua sustatzea, bizi-alternatiba egingarria izango den sektore bideragarria eta autonomia lortzeko helburu bakarrarekin.
- Arabako Errioxarako etorkizuneko plan integral bat egitea, bereizpenean, kalitatean, elaborazioan eta identitatean oinarritutako mahastizaintza- eta ardogintza-eredu propioa sustatzearen, herri biziak eta bertan lan egiten duten pertsonak izango dituen eskualde bat ziurtatzeko.

Proposamen zehatzak

Uztaraba 2023-2027 Planaren laburpena dira proposamenok.

(https://ehbildu.eus/herriak/araba/dokumentuak/EU_1651655105.pdf)

- » Arabako Elikadura Kontseilua eta Kuadrilletako Elikadura Kontseiluak sortzea; bertan administrazioak, tokiko eragileak, nekazaritzako eragileak eta gizarteak parte hartuko dute.
- » Berehalako SOS Plana egitea, jardunbide egokiak ziurtatzen dituzten nekazaritza eta abeltzaintzako ustategi estentsibo guztiak mantentzen direla ziurtatzeko.
- » Jangeletan tokiko elikagaiak, freskoak eta osasungarriak edota ekologikoak lehenesteko estrategia. Behar diren arau-aldaketei ekitea eta helburura egokitutako erosketa publikoko pleguak egitea Arabako Foru Aldundiak eta bere menpeko erakundeek kudeatzen dituzten jantokiak hornitzeko.
- » Eskalmendi Trantsizio Agroekologikoetarako Zentroa. Berrikuntza, aholkularitza eta prestakuntza zentroa, nekazaritza konbentzionaletik nekazaritza ekologikorako trantsizioa eta birmoldaketa errazteko. Ustategien gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-bideragarritasuna eta -errentagarritasuna bilatzea.
- » Ardo-Etxea
 - Ardo-Etxea eraldatzea eta Arabako mahastizaintza- eta ardogintza-sektorerako prestakuntzan eta ikerketan aitzindaria izatea.
 - Bere eginkizun nagusiak honako hauek izango dira: belaunaldien arteko erreleboa ziurtatzea eta kudeatzea, lurraren kudeaketan aholkatzea, praktika agroekologikoak eta kalitatea hobetzekoak bultzatzea eta sektoreari datuak eta informazioa zabaltzea.
 - Beste funtzio batzuk: Klima aldaketak mahastizaintzan duen eragina arintzeko lan egitea. Eragin hori arintzen duten mahats-barietate edo nekazaritza-praktika berriak ikertzea NEIKERekin elkarlanean.
 - Mahastizainak kontrolatzea eta aholkatzea, elikatze-katearen legea betearazteko.
 - Sektoreak eskatzen dituen kudeaketa eta analisi guztiak egitea, upategi familiarrei, txikiei eta ertainei mesede eginez.
- » Aiaraldea: Eskualde osoko sektorearekin benetako beharrak aztertu ondoren, Murgako poligonoa erabiltzea planteatu da produktuak eraldatzeko zentroak eta lantegiak ezartzeko, arreta berezia jarritz baratzeko produktuetan, esnekietan eta ogi-produktuetan.

- » Lautadako Transformazio Zentroa bultzatzea eta Eskualdeko Nekazaritzako Elikagaien Transformazio Zentroen sare bat sortzea:
 - Eskualdeko Transformazio Zentroak: Araban azterketa orokorra egitea, haien osagarri diren eta eskariaren arabera diren hainbat produkturen transformazio zentroak eta lantegiak instalatzeko beharrak eta aukerak identifikatzeko. Horrela, eredu hurbilagoa, bitartekaririk gabea eta zuzeneko salmentakoa egin nahi duenari aukera ematen zaio.
- » Arabako Ogia proiektua. Neurriak hartzea zereal okingarri ekologiko eta osasungarrien ekoizpenean aurrera egiteko, irinak eraldatzeko eta ekoizteko, eta ogia egiteko.
- » Lur-banku publikoa, lur publikoko sarea, eta kontzejuak animatzea luberrien zati bat bertan sartu dezaten. Halaber, txandaketa eta dibertsifikazioa bultzatzea.
 - Lur publikoa kudeatzeko agentzia bat sortzea, eta aholkularitza eta alternatibak ematea jabetza pribatuko lurrari.
- » Sektorea dibertsifikatzen lagunduko duen frutagintza plan bat egitea.
 - Fruta eta fruitu lehor eta gorrien ikerketa, ekoizpena eta eraldaketa bultzatuko dugu Araban
 - Sagarraren eta sagardoaren plan estrategikoa bultzatuko dugu
 - Olibondoaren eta olioaren plan estrategikoa bultzatuko dugu Arabako Errioxarako
 - Antzinako eta tokiko barietateak berreskuratzea bultzatuko dugu
- » Astegietako handizkako merkatua tokiko produktuak banatzeko zentro bihurtzea.
- » Nekazari txikien kooperatibak edo elkarteak sortzen laguntzea, elikagaien eraldaketa eta banaketa optimizatzeko eta modu kolektiboan lan egiteko.
- » Ekonomatu, kontsumo-kooperatiba eta tokiko produktuen eta produktu ekologikoen merkatuen sarea sortzea eskualde guztietan. Merkatuen sustapenari dagokionez:
 - Funtzionamenduari buruzko eztabaida irekia, egonkorrak, errentagarriak eta etorkizunekoak izan daitezten.

- Tokiko merkatuak bultzatzea eta zerbitzu publiko gisa onartzea; beraz, mantendu egin beharko dira eta ekoizleei.
- Merkatuetan saltzen duten pertsonei behar dituzten tresna eta azpiegitura guztiak ematea, etengabe joan daitezen.
- » Ekonomia zirkularra garatzea.
 - Hondakinak tratatzeko Austriako eredua bultzatzea, bai hirikoak, bai nekazaritzakoak, nekazaritzan ongarri natural gisa berrerabiltzeko.
 - Autokontsumo energetikoko sistemak ezartzea, banaka edota komunitate energetikoetan elkartuta, lurraldeko ustiategi guztietan.
- » Tokiko kontsumoa sustatzeko plan jasangarri, osasungarri eta arduratsu bat sortzea, tokiko kontsumoari prestigioa emateko.
- » Prestakuntza- eta sustapen-plana Sektoreko inkorporazio berriak sustatzeko hezkuntza arautu eta arautu gabeen, unibertsitatean eta lanbide-heziketan, Ipar Euskal Herrian garatutakoen antzeko plan espezifikoaren bidez. Nekazaritzako Erasmus Programa.
 - Nekazaritzako Lanbide Zerbitzua. Ustiategiei zerbitzua emateko eta belaunaldi erreleboa eman ahal izateko prestatutako pertsonek osatutako lan poltsa.
- » Estrategia agroalimentario jasangarriaren aldeko hirigintza- eta araudi-egokitzapena.
- » Herritar guztiek elikadura osasungarria eta bidezkoa izateko eskubidea ziurtatzea, hainbat neurri hartuta, eta elikagaiak alferrik galtzea geldiaraztea.
 - Tokiko elikagai-produktu eta -saltokietarako erosketa-bonu **sozialak**.

Bestelako proposamenak:

- » Baserrien eta ustiategiaren inbentario-errola eta bakoitzaren jardueraren egoerari buruzko azterketa egitea.
- » Datozen 5 urteetan erretiratuko diren pertsonekin plan bat egitea, eta txandakatze naturalik ez dagoenean ustiategiari jarraipena emateko alternatibak proposatzea.

ehbildu

- » Lana aldeaz aurretik uztea sustatzea eta erraztea.
- » Inkorporazio berrientzako DSBE, gutxieneko diru-sarrerak gisa.
- » Tokiko elikagaien banatzaile publiko bat bultzatzea.
- » Lurra kudeatzeko irizpideei eta inkorporazio berriei buruzko protokoloa.
- » NPBr eta gainerako laguntzei buruzko eztabaida sakona sustatzea, laguntza horien burokrasia erraztea eta laguntzen mende ez egoteko aukerak bilatzea.
- » Laguntzen plana malgutzatzea eta aldatzea nekazariei laguntzeko, eta lehentasunezko irizpide gisa ustiatzeko tamaina ez erabiltzea.
- » Nekazaritzako gizarte-segurantzari eta horren baldintzei buruz hausnartzea.
- » Hasierako urteetan inkorporazio berriei laguntzea eta bideragarritasun planak ikuskatzea, haien iraunkortasuna errazteko.
- » Prezioen behatokia betetzea eta kontrolatzea, eguneratuta egon dadin eta Elikatze Katearen Legea betetzeko neurriak har daitezkeen.
- » Eskualde ikuspegia:
 - Eskualdeen arteko aliantzak eta akordioak, produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko eta banatzeko.
 - Diagnostikoak, planak eta etorkizuneko neurriak eskualde mailan.
 - Eskualdeko nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinen tratamendua.
- » Ekimen berriak ekonomikoki babestea eta bultzatzea.
- » Dibertsifikazioarekin, bestelako ekoizpen alternatibekin eta estrategia agroalimentarioarekin lotutako ureztapen sistema jasangarria bultzatzea.
- » Abeltzaintza estentsiboa bultzatzea eta babestea, lurraldeari eta ingurumenari egiten dion ekarpenagatik, eredu intentsiboaren eta kanpoko esku-sartzearen aurrean.
- » Mendi publiko eta pribatuaren kudeaketa jasangarri, koordinatu eta gardenerako plan estrategikoa, etorkizuneko krisiak saihestu, biodibertsitateari eutsi, monolaborantzak ekidin eta espezie autoktonoak bultzatzearen.
- » Abereak modu planifikatuan sar daitezkeen bultzatzea, Sektorearentzat, basoaren kudeaketa iraunkorarentzat eta gizartearentzat onuragarria baita.

- » Mahastizaintza- eta ardogintza-sektorea: Egungo eredutik bereizteko alternatibak bultzatzea, Viñedos de Alava-Arabako Mahastiak ekimena bezalakoak edota eskualdeko upategi txikiei eta familiarrei laguntzeko sortu daitezkeen beste formula batzuk.
 - Elikatze Katearen Legea betetzen dela eta mahatsa ekoizten dutenei prezio duinak ziurtatzen zaizkiela bermatzea.
 - Mahastizaintza eta ardogintzaren sektoreko eskualdeko upategi handietako langileen lan-baldintzak hobetzea.
 - Lurraren espekulazioa geldiaraztea, egungo ustiategiaren erreleboa bultzatzeko eta korporazio handiei saltzea zailtzeko neurriekin.
 - Eskualderako plan integral bat egitea, mahastizaintza- eta ardogintza-sektorearen aldeko neurri guztiak bilduko dituen eta bertako kultur ondarea, paisaia eta nortasuna babestuko dituen.
 - Arabako Txakolina Jatorrizko Deitura eta Arabako txakolina sustatzea, sustapen- eta garapen-plan baten bidez.

5.3. Ehun sozioekonomikoaren birmoldaketa

Legealdiko balantzea. Egungo egoera

1. Industria

COVID-19aren pandemiak ezin hobeto islatu zuen gure industria sarearen ajeak eta arazo estrategikoak: garai hartan urgentziaz gure herriak behar zituen materialak (musukoak eta gel hidroalkoholikoak, esaterako) ekoizteko ezintasuna, besteak beste, deslokalizazioaren ondorioz munduko beste puntura ekoizpen estrategikoak eramateagatik eta, aurrekoaren ondorioz, kanpoko hornitzaileekiko erabateko menpekotasuna. Gerora, Ukrainako gerrak are gehiago erakutsi du zeinen menpeko garen erregai fosiletan oinarritutako energiekiko. Eta horrekin batera ezin ahaztu Arabako enpresa handienak (Mercedes, Michelin, Tubacex, Tubos Reunidos) guztiz lotuta daudela, alde batetik edo bestetik, erregai fosilen ekoizpenarekin eta kontsumoarekin. Laburbilduz, orain dela lau urte urgentea bazen industria eredu berri baterantz trantsizioa abiaraztea, orain hil ala bizikoa da holako bideari ekitea, bai industriak Arabako garapen ekonomikoari eta kalitatezko enplegu kualifikatuaren iraunkortasunari egiten dion ekarpenari eusteagatik, bai termino estrategikoetan oinarritutako industria bertan mantentzeak daukan garrantzi ukaezinagatik.

Bestaldetik, ezin ahaztu trantsizio energetikoak gure industriari planteatzen dizkion erronka handiak: batetik, isurketak eta gastu zein menpekotasun energetikoa ezinbestean murrizteko beharra; bestetik, autogintzaren elektrifikazioak ekoizpenean eta enpleguan izan ditzakeen ondorio murriztaileak; erregai fosilen abandonuak eta Asia aldeko enpresen ekoizpen erraldoiak ere eragin negatiboa izango da (izaten ari da honezkero) Aiaraldeko tutugintza sektore osoan. Eta azken arazo bat aipatzearren, ezin dugu ahaztu lehengaiei dagokienez, oro har, daukagun menpekotasun izugarria, batez ere datozen urteetako funtsezko tresnen ekoizpenari dagokienez.

Eta bestelako argilunak egon badaude gure industria sareari dagokionez:

- » Oraindik ere alde oso handia dago industria 4.0 delakoaren diskurtso ofizialaren eta Arabako industria txiki eta ertain askoren benetako egoera teknologikoaren artean.
- » Desoreka handiak badaude gure industriaren ezarpenari dagokionez, funtsean gure industria sarea A-1 eta N-240 errepideen ardatzetan, eta Arabatik kanpoko industriagune batzuek eragin handia daukate hegoaldeko gure herri batzuetan (Logroñok Oion eta Guardiarenkiko eta Mirandak Lantaronekiko, esate baterako). Gainera, Landa Eremuan zehar sakabanatutako poligono txikien okupazio mailak jarraitzen du oso kezkarria izaten.
- » Logistikaren aldeko apustu instituzionalak dituen mugei buruzko hausnarketa kritikoa behar du, ukatu barik logistikarako Arabak eskaintzen dituen aukerak eta dagoeneko logistikak gure ekonomian daukan garrantzia, ezin dugu ahaztu lur okupazio handia eta enplegu gutxi eragiten duela, azken honen kalitatea, gainera, nahiko kaxkarra delarik.
- » Gure enpresa txiki eta ertainek behartuta daude bankaren menpeko finantzaketa eredu batera jotzea, Arabako Foru Aldundiaren aldetik oso gutxi egin da inbertsio funts publikoak sustatzeko, berariazkoak edota bere instituzio publikoekin elkarlanean. Ekintzaile berrien kasuan, jakina, egoera are eskasagoa da. Hau guztia, noski, Kutxabank-en pribatizazio ondorio zuzena da, eta kutxa publiko bat berreraikitzeke premia ezin hobeto adierazten du.
- » Álava Agencia de Desarrollo foru baltzuaren jardura higiezinaren agentzia baten lana egitera mugatzen da, aparteko anbiziorik gabe. Ez dago foru estrategia bat industriarako lur zoruaz (hutsik dagoena okupatzea lehenesteko eta abandonatutako lursailak berreskuratzeko, adibidez) edota Landa Eremuko industriaguneak berpizteko (euren okupazioa, esate baterako, Lehen Sektorearen transformazio agroalimentarioari buruzko beharrekin lotuz edota energia trantsiziorako jarduerak bertan sustatuz).

- » Oraindik ere lotura falta handiegia dago Arabako industria ereduaren eta bertako hezkuntza egiturekin batera, bai Lanbide Heziketari dagokionez bai unibertsitateek I+G+b egin beharreko ekarpenari dagokionez.
- » Industria sarean ere euskararen normalizazioa oraindik ere oso motel doa.
- » Arabako Foru Aldundiak enpresentzat zein ekizaileentzat banatzen dituen dirulaguntzetan ez du inolako klausula sozialik ezartzen kalitatezko enplegua bermatzeko (sexu arteko soldata arrakala edota iruzurrezko kontratazioak ekidin, euskaldunon hizkuntz eskubideak bermatu, sexu orientazioagatiko edota jatorriagatiko edozein bazterkeria mota saihestu...).

2. Foronda-Logistika

H24 (24 orduz aritzeko gaitasuna) eta PIF (nazioarteko salgaiak ikuskatzeko zerbitzua) ezarri izanak bultzada sendoa eman dio Forondako aireportuari, batez ere zama-lanak burutzeari dagokionez, egun Estatu Espainiarreko zama-lanetako arloan operazioen bolumenaren laugarrena delarik. Bidaiarien mugimenduari dagokionez, legealdi honetako bilakaera ere positiboa da, horretarako low-cost konpainiekin sinatutako kontratu ilunen dinamikaren ondoriozkoa bada ere eta hegaldi horiek batez ere arabarrok eta inguruko herritarrek kanpora bidaiatzekoak badira ere eta ez Arabara bisitariak ekartzekoak.

Logistikari dagokionez, Jundiz-Billodan geltoki intermodal berria eraikitzeari ekin dio Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiaren oniritziarekin. EH Bildu proiektu honen kontra agertu da, arrazoi hauengatik: batetik, jasangarritasunaren arrazoiengatik, Zadorra ibaiaren natur ingurune horren babes mailari men eginez; bestetik, arrisku uholdea ekiditearren, horrek aldiari aldiari intermodal horren azpiegiturretan zein funtzionamenduan gertatuko liratekeen kalte ekonomikoak eta bestelakoak ekiditeko. EH Bilduren ustez, kokapen apropos eta egokia azpiegitura horretarako AraSur jarduera gunea da, eta, gerora aipatuko dugunez, Forondako intermodalitatea areagotu behar da bestelako neurriak hartuta, lursail gutxiago okupatuz eta egun ingurune horretan jadanik dauden logistika azpiegiturak hobetuz.

3. Merkataritza

Toki Merkataritzak ataka latzean jarraitzen du, bai Gasteizkoak eta herri handietakoak, bai Landa eremuan oraindik ere han-hemenka barreiatuta dauden denda txikiek ere. Eta pandemian jaun eta jabe bihurtu zen Internet bidezko merkataritza elektronikoa, batez ere logistikaren multinazionalen menpekoa, izaten ari da arrazoi nagusia, oraindik ere zabaltzen jarraitzeko inolako muga eraginkorrik ez daukaten merkataritza gunek handiekin batera. Ukrainako gerraren ondorioz sortutako inflazioak ere toki merkataritzaren kontra jotzen du, izan ere, herritar askoren pobretze objektiboak eragiten duelako horiek “low cost” produktuen erosketak hobestea. Bestaldekik,

globalizazioak berez dakar kontsumo ohiturak, guneak eta produktuak gero eta berdintsuagoak izatea mundu osoan, hots, multinazional oso gutxiren eskuetan utzita merkataritza jarduera; horren ondorioz, toki merkataritzak bere eskaintza eta produktuak desberdindu ahal izateko aukera gero eta murriztagoa da. Panorama honek guztiak toki merkatarien autoesplotazioa eta horien langileen prekarizazioa areagotu baino ez du egiten. Eta muturreraino eramanda, tokian tokiko dendak eta haiei lotutako enplegua desagerrarazten ditu. Azken ondorioa da Arabako eta Euskal Herriko ekoizpen bilbea ere pobretu egiten dela, hemen ekoiztutako produktuen merkaturatzea ere banaketa kate handien esku geratzen delako, horiekiko eta kapital transnazionaletikiko gure menpekotasun estrategikoa areagotzearekin batera.

Horren aurrean, EH Bilduk plangintza estrategiko bat proposatuko du toki merkataritzak posizioak berreskuratu ditzan. Aurrerago garatuko ditugu plangintza estrategikoaren zutabe nagusiak.

4. Turismoa

EH Bilduk Arabarako nahi duen turismo eredua gure ingurumenarekiko, gizartearekiko eta kultur nortasunarekiko arduratsua izan behar da, turismo eredu jasangarri bat nahi dugu, gure herri eta herritarrekiko konpromiso sozialaren jabe izango dena eta Arabako kultur balio eta ingurumen bikaintasuna balioetsiko dituen. Euskal Herriaren eta Arabaren errealitate soziokulturala proiektatu nahi dugu turismoaren bidez, eta gure jarduera ekonomikoaren baitan egokiro txertatu, turismoaren gehiegizko ustiaketak beste leku batzuetan eragindako arazoak eta gatazkak saihestuz, jarduera turistikoa ezin delako inoiz burutu bertako biztanleriaren ongizatearen eta interesen kaltetan. Arabako estrategia turistikoak bertako erakargune nagusiak (Gasteizko Santa Maria Katedrala, Gatz Harana eta Arabako Errioxako ardogintza) baliatu behar ditu herrialdeko kalitatezko beste eskaintza batzuk ere sustatzeko, turismoa gure Kuadrilla guztien garapen ekonomikorako jarduera osagarri oso interesgarria izan daitekeelako.

5. Enplegua

Oraindik ere langabezia tasa altuegia daukagu Araban eta sortzen den enplegu askoren kalitatea (sektore pribatuan, baina baita administrazio desberdinen azpikontratututako zerbitzuetan ere) oso eskasa da, eta prekarizazioa eta lan baldintza txarrak guztiz onartezinak izan behar dira justizia soziala iparorratz daukan edozein gizartetan eta proiektu politikotan. Horrekin batera, ezin ahaztu arazo horiek eragin berezia daukatela emakume, gazte eta migratzaileengan. Azkenik, arreta berezia behar dute lan merkatutik kanpoan geratu diren 55 urtetik gorako helduak, askotan lana berriro topatzeko izugarrizko oztopoekin talka egiten dutelako.

Bestaldetik, ezin dugu ahaztu ordaindutako eta sozialki aitortutako lanaren parean, badagoela doan egiten beste lan mota (etxeko lanak eta zaintza lanak), batez ere emakumeek burutzen dutena eta sistema sozioekonomiko osoa sostengatzen duena,

beraz, ezin da egon enplegu politika justurik etxeko lanak eta zaintza lanak aintzat hartu eta horiek merezi duten duintasuna aitortu gabe.

Aurrera begirako ildo nagusiak

Eredu sozioekonomiko berriaz eta ehun sozioekonomikoaren moldaketaz hitz egiten badugu, eta hori guztia klima aldaketaren borrokaren eta energia trantsizioaren testuinguruaren baitan kokatzen badugu, ezinbestekoa da, labur bada ere, zeintzuk izan behar diren eredu berri eta moldaketa horien oinarri nagusiak:

Lehenik eta behin, EH Bilduren ustez, eredu sozioekonomikok herritarren oinarritzko behar materialak asetu behar ditu, eta hori maila eta arlo desberdinetako ekoizpenaren bidez lortzen da. Jakina, ekoizpen horrek aberastasuna sortzen du. Eta aberastasuna hori modu justuan banatu behar da herritarren artean, euren behar eta gaitasunen arabera. Hortaz, aberastasuna justuz banatzeko lehen urratsa da eredu sozioekonomikoa bera ere modu justuan antolatzea:

- » Batetik, eredu sozioekonomiko horretan diharduten eragile zein norbanako guztien duintasuna eta aukera berdintasuna bermatu behar dira; horrek esan nahi du lan baldintza duinak bermatu behar direla guztiontzat jarduera sozioekonomikoaren maila guztietan, inolako bereizkeriarik gabe. Beraz, egungo lan prekarietatea, gizon eta emakumeen soldata arrakala, kolektibo zehatz batzuek pairatzen dituzten lan arloko bazterkeria motak... borrokatu behar ditugu instituzioetatik sustatutako politika sozioekonomikoaren bidez ere.
- » Bestetik, jarduera sozioekonomikoa garai historiko honetan klima aldaketaren kontrako borrokaren beharrekin eta energia trantsizioaren eskakizunekin bateratu behar da; horrenbestez, gure eredu sozioekonomikoak natur baliabideen ustiaketa arduratsua eta jasangarria garatu behar du, energia fosilen erabilera ahalik eta gehien mugatu behar du eta komunitatearen behar materialak asetzea lehenetsi behar du interes pribatuaren etekinen gainetik.
- » Hirugarrenez, jarduera sozioekonomiko autozentratua planteatzen du EH Bilduk, horrek esan nahi du ahalik eta burujabetza handiena lortu nahi dugula, bai jarduera hori eta horren helburuak zehazterakoan, bai aurreko guztiari eutsi behar dion finantzaketari dagokionez. Oinarritzko industria txiki eta ertainaren aldeko apustua egiten dugu, ahal bada ekonomia sozialaren arabera antolatua; horrekin batera ezinbestekotzat jotzen dugu urratsak egitea jarduera sozioekonomikoan finantzaketa publikoa areagotzeko, inbertsio funts publikoen bidez eta kutxa publiko bat berreraikitze bidean.
- » Azkenik, jarduera sozioekonomikoaren bidez sortutako aberastasuna modu justuan banatu behar da, bai bakoitzak dagokionaren arabera aportatu dezan, bai kalitatezko zerbitzu publikoak (osasungintza, hezkuntza, zerbitzu publikoak, mugikortasuna eta segurtasuna) edukitzeko, bai Arabako gizarteak

parez pare dituen erronka estrategikoei tamainako inbertsio publikoa eskaintzeko.

Proposamen zehatzak

5.3.1. Industria

Gure helburu nagusia da industria-politika eraginkor bat abian jartzea, eragile politiko, sindikal eta sozialen arteko akordio batetik abiatuta, teknologikoki aurreratua eta produktiboki dibertsifikatua izango den industria-sarea sortzeko gai, gizarte justizia eta erantzukizun fiskala oinarri izango dituen, ingurumenerako iraunkorra eta Arabako Lurralde Historikoan orekatua, tokiko garapen eredua oinarritzat hartuta.

- » Arabako industriak automobilgintzaren eta hodian sektoreekiko duen menpekotasuna dela-eta, erregai fosilekin lotutako sektoreak baitira, Mahai Sozioekonomiko bat sortzea proposatzen dugu, Arabako eta EAEko erakunde nagusiek ez ezik, enpresek, sindikatuak eta unibertsitateek ere parte hartuta. Mahai horrek industria trantsizio ordenatuko eredu bat garatuko du, Arabako industria-sarearen dibertsifikazioa eta ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-jasangarritasuna lortzeko.
- » Enpresa eragile handien menpeko enpresa laguntzaileen ereduaren aurrean, dibertsifikazioaren eta azken kontsumorako produktu propioa duten ETEak sortzearen alde egitea. Pandemiaren irakaspenak ezin dira zaku hautsian erori: industria eremuan ere burujabetza eta buruaskitasun industrialera jo behar dugu, krisi handiko egoeretan gure gizartea produktu oinarritzkoenez eta funtsezkoenez hornitu ahal izateko.
- » Arabako enpresen automatizazioa bultzatzea, eta enpresa gehienak iristen ez diren 2.0ko eten teknologikoa gainditzea; horretarako, kudeaketa aurreratuko programak ezartzea, kudeaketa eta gobernantza modu berriekin batera.
- » Sektore publikoak berak, eta kasu honetan Arabako Foru Aldundiak, politika proaktiboagoa izan behar du industria jardueran, Lurraldeko industria politikan pisu politikoa berreskuratuz, baina baita ekonomikoa ere, eta bere eskumen eta gaitasunetatik euskal sektore publiko ekonomiko, teknologiko eta finantzario baten berreraikuntza bultzatuz; beraz, laguntza eta dirulaguntzen banatzaile huts gisa baino gehiago jardun behar du planifikatzaile eta ekintzaile gisa, hau da, misiora bideratutako proiektuak bultzatu behar ditu; aurrekoarekin bat etorritik, honako neurri hauek proposatzen ditugu:
 - "Industria-politika ekintzailerako oinarriak" dokumentu nazionalean proposatzen dugun bezala, Inteligentzia Ekonomikoaren Euskal Zentroa

sortzearen aldeko apustua egiten dugu, Euskal Herriko erakundeen (eta, beraz, Arabako Foru Aldundiaren) eta EHUren gidaritzapean eta gizarte eragileekin eta gainerako unibertsitateekin lankidetzan.

- Aurrekoaren ildotik, industria garapenerako kontratazio publikoko programa bat prestatuko dugu, urtean 500.000 euroko gutxieneko partida batekin erosketa publiko estrategikorako, bai administrazioarentzat interesgarriak diren sektoreetarako, bai enpresa berritzaileen artean merkatuak sortzeko.
 - Era berean, Erakundearteko Funts bat sortzea bultzatuko dugu, Eusko Jaurlaritzarekin eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin batera, enpresak finantzatzeko.
 - Aurrekoarekin batera, enpresa txikientzako funts publiko espezifiko bat sortzea planteatzen dugu (Garaituz programa), gutxienez 250.000 euroko finantzaketarekin.
- » Araba Garapen Agentzia goitik behera birmoldatzea eta berrantolatzea proposatzen dugu, ezarritako helburu estrategikoekin bat etorritik lurraldeko gobernantza industrialeko mailak handitzeko, Arabako Lurralde Historikoko Garapen Ekonomikoko Agentzia bihurtzeko, Trebiñu barne, Arabako LGEEKin eta Kuadrilletako teknikariekin koordinatuta. Araba Garapen Agentziaren egiteko berrien barruan, honako gai hauek planteatzen ditugu:
- Aholkularitza bulego bat sortuko dugu egoera txarrean dauden enpresentzat, aholkularitza juridikoa eta estrategikoa zein finantzaketa lerroak eskaintzeko, besteak beste. Horrekin batera, ixtera doazen enpresak kooperatibizatu nahi dituzten langileei ere aholkularitza emango zaie bulego horretatik.
 - Aholkularitza-bulego honetatik bertatik, Arabako enpresak sustraitzeko programa bat bultzatuko dugu (Sustraituz programa). Horretarako, hainbat arrazoi direla-eta (jabeek erretiroa laster hartzeko aukera, sortzaileen ezagutzan oinarritutako sozietate sortu berriak, akzio-oinarria handitu nahi duten familia enpresak, kooperatibismoko edo gizarte ekonomiako ereduak igaro nahi duten enpresak) deslokalizazio-arriskuan egon daitezkeen enpresak aholkatuko ditugu.
 - Adimen Lehiakorreko Zerbitzu Komunala, Gasteizen eta Aiaraldean enpresen arteko lankidetzak proiektuak ezartzeko.
 - Era berean, Araba Garapen Agentziak aktiboki lan egingo du Arabako “ezkutuko txapeldunen” zerrenda hautematen, babesten eta zabalitzen

(familia enpresa mota jakin bat izendatzen du kontzeptu honek, txikia edo ertaina, publikoarentzat ezezaguna dena, baina nazioartean liderra dena).

Industria Berri

- » Araba Garapen Agentziak kudeatu eta/edo partaidetutako industrialdeen politika sakonki berrikusteko programa, industrialdeak biziberrituz eta deskarbonizatuz. Hasierako inbertsioa 100.000.000 €-koa izango da.
- » Lehenik eta behin, erradiografiatu egin behar da industrialde bakoitzaren egoera zehatza, hots, euren indarguneak eta ahuleziak, euren gabeziak eta beharrak aztertu; bigarrenik, oso zuhurra izan behar da urbanizatu gabeko lurzoruen okupazio berriei dagokienez, betiere lehentasuna emanaz dagoeneko eraikita dauden lursailen okupazioari, baita oraindik urbanizatu gabeko lursail batzuk desklasifikatuz ere (Erriberagoitiko Ortunako industrialdea); hirugarrenik, industrialde horien etorkizuneko garapen guztia erabat koherentea izan behar da klima aldaketaren aurkako borrokaren ildo estrategikoekin eta trantsizio energetikoaren bultzadarekin (puntu hau jarraian garatzen da), baina, gainera, erabateko premiaz zuzendu behar dira erabat onartezinak diren kutsadura egoerak, hala nola Goiaingo industrialdean gertatzen direnak edo beste industrialde batzuetan suertatzen diren ibai-isuri errepikatuak.
- » Bigarrenez, Arabako ETEak eta Araba Garapen Agentziak kudeatzen dituen industrialdeak deskarbonizatzeko programa indartsu bat bultzatzea planteatzen du, ardatz hauetan oinarritua:
 - Efizientzia eta aurrezpen energetikoa: ETEentzako dirulaguntzen ildoak holako proiektuetarako.
 - Autokontsumoa: Jakin badakigu industria kontsumo handiei autokontsumoaren bidez bakarrik ezin zaiela heldu, industrialdeetan eta beste eremu antropizatu batzuetan hutsik dauden lurzatiak oso interesgarriak izan daitezke energia komunitateak sortzeko proiektuetarako.
 - Hondar-beroa: EHUrekin eta gainerako unibertsitateekin hau berrerabiltzeko ikasketak adostea, bereziki enpresa handien edo industrialdeen kasuan; bigarren fasean, berrerabiltzeko proiektu zehatzak bultzatzea, enpresekin, Toki Erakundeekin eta Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan.

- Hidrogeno berdea: EHUrekin eta gainerako unibertsitateekin hura garatzeko eta erabiltzeko ikasketak sinatzea.
- Ekonomia Zirkularra: Gure enpresetako hondakinen kudeaketa jasangarriak, berrerabiltzeak eta birziklatzeak, berez, jarduera ekonomikoa eta ikerketa zientifiko-teknologikoa sortzeko fronte bat osatu behar dute, betiere ingurumen legedia eta herritarren osasuna eta segurtasuna erabat errespetatuz.

Betoñu Berri

- » Euskal Herria Bildutik uste dugu Instituzioek gidatu behar duela udalerriaren eraldaketa sozioekonomikoa, eta hori egin behar duela gainerako eragile politiko, ekonomiko eta sozialekiko aliantzen eta lankidetzaren bidez, eta herritarrekin batera. Gai izan behar dugu enpresei erronka horri aurre egiteko behar dituzten aldaketak eta egokitzapenak laguntzeko eta errazteko. Eraldaketa ez dadila bihurtu galeraren sinonimoa, baizik eta enplegu aukerei eustea eta haien kalitatea etengabe hobetzea.
- » Zaindu beharreko alderdietako bat da enpresa proiektuei espazioa eskaintzea beren jarduera sortzeko, garatzeko eta, behar izanez gero, berbideratzeko. Berriei, noski, baina baita lehendik daudenei ere. Hori da Euskal Herrian Bilduk egin duena Miñaoko baterien gigafaktoriaren aldeko apustu irmoarekin, eta Mercedesen eta Michelinen handitzeak errazteko borondate argiarekin.
- » Gehiago behar dela uste dugu, estrategia zabalagoa behar da. Alde horretatik, gaur egun Gasteizko iparraldean gutxi erabiltzen den edo zuzenean erabiltzen ez den industria lurzoru asko dago. Industrialdeen sare bat dugu, garai bateko egitura eta eskaintzarekin, eta enpresa arrakastatsuak daude lanean pabiloi eraitsiekin eta orube hutsekin batera.
- » Betoñu, Gamarra, Larragana eta Arriagako industriguneek 400 hektarea baino gehiago dituzte, Gasteizen erabilgarri dagoen lurzoru industrialaren laurden bat inguru. Onartu berri den HAPOk bi jarduera biltzen ditu eremu horretan, 10 hektarea eskasekoak. Uste dugu proposamen horiek oso labur geratzen direla, eta Plan Zuzentzaile bat onartzea planteatzen dugu, Betoñu berria deitu duguna, 2050. urterako eremuaren erabateko eraldaketa bideratuko duena.
- » Gasteizko iparraldeko industria eremu osoa pixkanaka berritzea eta modernizatzea proposatzen dugu, XXI. mendearen bigarren erdialderako polo

ekonomiko produktibo, dinamiko eta berritzaile bihurtzeko, balio erantsi handiko enpresa berritzaileak erakartzeko, garatzeko edo hazten laguntzeko. Eraldaketa horri ekiteko, industrialdea sakon eraberrituko dugu Betoñuko herriaren hegoaldean, eta gune farmazeutiko bihurtuko dugu, Sendagaien lerketa eta Ekoizpenerako Zentroa elementu nagusi gisa hartuta.

- » Betoñu berriaren bidez, ingurunea eraldatzeko estrategia integrala eskaini nahi dugu, hiru helburu nagusi lortzeko:
 - Enpresak erakartzeko eta garapen ekonomikorako polo moderno eta berritzaile bat sortzea.
 - Hazteko edo garatzeko kokaleku berriak eskaintzea enpresa berritzaile eta balio erantsi handikoei, batez ere teknologiarekin, eraldaketa digitalarekin edo sormen industriekin zerikusia dutenak.
 - Hiri espazio bat eskaintzea, erabilera misto gehiago sortuz, eta eremua gainerako hiri finkatuarekin hobeto integratu, espazio publikoaren erabileraren, mugikortasunaren eta abarren ikuspegitik.
- » Helburu horiek lortzeko, plan zuzentzaileak hainbat ekintza bilduko ditu, lau ardatz nagusitan oinarrituta: hirigintza eta arkitektura berroneratzea, erabilera mistoak aberastea, hiri integrazioa egituratzea eta kudeaketa partaidetua eta proaktiboa.

Teknoberri: Aiaraldeko Ekintzailetza Kooperatiboko Laborategia

- » Aiaraldea eskualde industrializatua da, eta gaur egun hamar industrialde ditu. Horiei begira, eta Industria Berri atalean jasotakoaz gain, poligono horietarako berariazko programa bat planteatzen dugu, 1.500.000 €-koa, Kuadrillako sektore traktoreen espezializazio eta ekintzailetza kooperatiboko beharrei erantzuteko eta altzairuaren eraldaketaren, beiraren industriaren, basogintzaren, nekazaritza eta abeltzaintzaren eta turismoaren berrikuntzaren aldeko apustua egiteko
- » Prestakuntza-zentroak (Lanbide Heziketa eta Unibertsitateak) Arabako industria-sarean integratzea bultzatuko dugu, eta Arabako prestakuntza-zentroek beren ikasketa-planetan Lanbide Heziketa Duala ezartzeko dituzten ekimenak babestuko ditugu, eta arreta berezia jarriko dugu ingurune eta daudeneko Kuadrillaren garapen ekonomikoarekin daukaten loturan.
- » Dagozkion foru arauak eta laguntza publikoen deialdien oinarri guztiak berrikusiko ditugu, deslokalizazioaren aurkako neurri gehiago hartu, dagozkion

hitzarmen kolektiboa behar bezala betetzen dela kontrolatu, edozein diskriminazio-mota saihesti (sexu-orientazioagatik, jatorriagatik), gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakalari aurre egiten, maskulinoegiak diren sektoreak feminizatu eta alderantziz, eta Lanabes programaren bidez euskararen normalizazioa bultzatzeko.

- » Gainera, guztiz estrategikotzat jotzen dugu proiektu hauek garatzea:

Basque Volt

- » Nahiz eta Espainiako Gobernuaren laguntzen azken banaketatik kanpo utzi duten, uste dugu proiektu estrategikoa dela mugikortasunaren eta automobilgintzaren sektorearen erronka handien eremuan beharrezko trantsizioa egiteko, multinazional handiekiko dugun mendekotasuna mugatzeko eta tokiko ezagutza eta berrikuntza bultzatzeko. Baldintza hobeak ditugu arlo honetan apustu sendoa egiteko, hurrengo belaunaldiko baterietan soluzio teknologiko berriak garatzeko eta automobilgintzarako ekoizpena eta muntaketa egiteko. Legegintzaldi honetan, 350.000.000€-tik gorako inbertsio publiko-pribatua mobilizatu behar da.

2Bizi:

- » Elektromugikortasunerako baterien ekoizpenari lotuta eta ekonomia zirkularraren estrategian oinarrituta, lehengai kritikoak birziklatzeko eta berreskuratzeko proiektu hau planteatzen dugu, ikerketa eta berrikuntza zein bateriek dituzten lehengai kritikoak birziklatzea eta berrerabiltzea ardatz dituen. Proiektuak trantsizio energetiko jasangarria bultzatzen du, eta, horrez gain, lehengai horiek erauzten dituzten agenteekiko mendekotasuna murrizten du. Aurreikusitako hasierako inbertsioa 10.000.000€-tan kalkulatzen da.

MedTek Araba

- » Gaur egungo ehun farmazeutiko-sanitario publiko eta pribatutik abiatuta, Araba produktu farmazeutiko eta sanitarioen ikerketan, fabrikazioan eta horniduran erreferente bihurtzeko beharrezko azpiegiturez hornitu nahi da, arreta berezia jarritz osasun-larrialdiei erantzuteko gaitasunean. Beraz, ikerketa eta manufakturatze gaitasuna uztartuko dituen eta osasun-larrialdiko egoera larrien aurrean erantzuteko gaitasuna eta autonomia emango digun polo bat sortzea da kontua. Hasierako inbertsioa 46.000.000€ ingurukoa izatea planteatzen dugu.

5.3.2. Foronda-Logistika

- » Logistika gune berriak sortu aurretik eta, horren ondorioz, urbanizatu gabeko lursail berriak okupatu baino lehen, oraindik ere urbanizatu gabekoetan dauden lursailak eta aukera desberdinak aztertu eta erabili, neurririk gabeko planteamendu bikoiztuak, askotan espekulazio interes oso zehatzei lotuta daudenak ekiditeko.
- » Forondari dagokionez:
 - EAEko hiru aireportuen eskumena errebindikatzeko jarraitu, modu integral eta planifikatua kudeatu ahal izateko “aireportu bakarra, hiru terminal” filosofiaren arabera.
 - H24 eta PIF blindatu eta eskumena iritsi bitartean Espainiar Gobernuak konpromiso irmoa bi kotu horietan atzera ez egiteko.
 - Forondako eredu logistikoko hutsaren aurrean, aireportuari lotutako gune bioteknologiko baten ezarpena aztertu, Miñako Parke Teknologiko Pharmalab 4.0 eta Terapia Aurreratuen BERC (Basque Excellence Research Centre) izenekoekin lotuta.
 - Forondako aireportua sustatzeko kanpaina eta ekimen guztiei buruzko informazioaren gardentasuna bermatzeko konpromisoa hartzen dugu.
 - Forondako aireportuaren garapena bat etorri behar da bertako natur ingurunearen babesarekin eta herritarren bizimoduarekiko errespetuarekin, alde horretatik Zaira ibaian aurreikusitako dikearen kontrako gure jarrera berresten dugu, uholde arriskua ekiditeko balio izango ez lukeelako eta Zadorrako natur ingurunean izango lukeen eragin negatiboagatik.
 - Halaber, Forondako aireportuaren intermodalitatea hobetzea proposatzen dugu, batetik egungo N-624 errepide bikoiztua Krispianaraino luzatuz, A-1ekin bat egin arte; bestetik, Jundizko egungo tren geltokiko trenbidea aireporturaino luzatuz.

5.3.3. Merkataritza

- » Arabako Foru Aldundiaren erosketen kontratazioaren pleguetan toki merkataritzari eraginkortasunez parte hartu ahal izateko bide juridikoak aztertu eta ezartzeko konpromisoa hartzen dugu. Azterlan juridiko hori 2023 amaite aurretik egingo dute Arabako Foru Aldundiaren Zerbitzu Juridikoek.

- » Landa Eremuan “ekonomato” formatuko establezimenduak mantentzeko edota berriak ezartzeko plan estrategikoa egingo dugu, interesa duten kontzejuekin elkarlanean, Abagune Planaren parametroen baitan eta Oreka Agentziaren bidez.
- » Herri ertainetako udalekin (1.500-10.000 biztanle artekoak) batera toki merkataritza planak landuko ditugu.
- » Toki merkataritzako inbertsioetarako dirulaguntzen deialdi berezia, kalitatezko enpleguaren sorrera lehenetsiz.
- » Hizkuntz normalizaziorako dirulaguntzen lerroa eta aholkularitza.

5.3.4. Turismoa

- » EH Bilduk sustatuko duen turismo eredua printzipio nagusi hauetan oinarritzen da:
 - Gure kultur eta ingurumen ondarearen babesarekin bateragarria izango da eta bertako herritarren ongizatea zainduko du.
 - Antzinako gure historia eta egungo gure modernitatea uztartuko ditu.
 - Landa Eremuko nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak errespetatuko ditu eta horien jarduera osagarria izango da.
 - Toki erakundeen eta tokian tokiko herritarren parte-hartzea eta ahalduntzea turismo eskaintzak lantzerakoan ezinbesteko baldintza da jasangarritasun ekologiko, ekonomiko eta soziala ziurtatzeko.
 - Euskal Herriko gainontzeko herrialdeetako turismo eskaintzarekin bateragarria izango da eta Euskal Herriaren historia eta kulturaren erakusgarria izango da.
- » Turismo Berdearen eta Osasungarria izango da gure turismo eskaintzaren ardatz nagusietariko bat, gure Natur Parkeak (Gorbeia, Aratz-Azkorri, Valderejo, Izki eta Urkiola) eta bestelako natur eremuak (Garaioko Parkea, Gasteizko Erastun Berdea...) horren oinarria izango dira. Aire zabaleko kirol jarduerak bereziki lotuta daude honekin, baina baita holako ingurunez gozatzeko arazo fisikoak dauzkaten pertsonentzako eskaintza bereziak ere (“Montes Solidarios” izenekoaren estilokoak).

- » Arabako kultur eta arkeologia ondare oparoa da nahi dugun turismo ereduaren beste zutabe bat: Santa Maria Katedrala, Iruña-Veleia eta erromatar garaiko bestelako gune garrantzitsuak, monumentu megalitiko desberdinak eta neolitikoko aztarnak, Arabako gazteluak eta dorretxeak...
- » Atauriko meategien berreskupenaren ildotik, berdin jokatu dugu Pauleko igeltsu-meatzekin, baina Ataurin ez bezala, EH Bilduk bertako kontzejuarekin eta herritarrekin kontatuko du. Ildo beretik, Araba osoko industria Ondarea balioesteko plan estrategikoa burutuko dugu.
- » Aiaraldeari dagokionez, Arabako Foru Aldundiak Kexaako multzo historikoa erosi izana pizgarria izan behar da Aiaraldeko turismo plan eraginkorra egiteko, zeinetan txakolinaren ekoizpenak eta berari lotutako gastronomiak ere funtsezko papera jokatu behar duten
- » Arabako Errioxako turismo eskaintza oso ezaguna da Euskal Herrian zein Euskal Herritik kanpo, eta goian markatutako irizpideen arabera horretan sakondu nahi dugu, halere, badira eskaintza horretan hobetu daitezkeen kontuak:
 - Ardogintzari lotutako eskaintzatik harago, Errioxak badauka zer gehiago eskaini bisitariei: ondare arkeologikoa, Toloñoko mendizerra...
 - Guardia Arabako Errioxako hiriburua izateaz gain, da egun jarduera turistiko handiena biltzen duen herria, une batzuetan saturaziotik nahiko gertu egonda; bitartean, Arabako Errioxako beste herri eta gune batzuk (Labrazako harresiak, adibidez) kasik ez dute kanpoko bisitaririk jasotzen. Proposamena da Guardiako erakargarritasuna Arabako Errioxako beste errealitate interesgarriak ere ezagutzeko abiapuntua izatea.
- » Turistei LGTBI+ komunitatearentzat Arabak dauzkan baliabide gida eskuragarri jarri informazio bulegoetan zein ostalaritzako establezimenduetan.

5.3.5. Enplegua

- » **Ventures Social** Proiektua ezartzea ekintzailtza sakontzeko eta indartzeko, ekintzailtza-prozesua ikuspegi integratu, eraginkor eta ireki betetik eta eragin sozialarekin kudeatuz. Horretarako, mentoretza-bulego publiko bat sortzea ekintzailtza-eredu hori bultzatzeko.
- » Gazteentzako ekintzailtza programa eta dirulaguntzak bi urtekoak izango dira, eta aholkularitza eskainiko zaie epe horretan zehar.

- » **Erroak** Plana abiaraziko dugu lanera kanpora joandako gazte arabarrei etxera eta lanera bueltatzeko aukera eskaintzeko, puntu honetan oinarrituta:
 - Kanpoan lanean dauden gazte arabarren errolda boluntarioa, jakiteko nortzuk diren, zertan dauden lanean eta zeintzuk diren euren gaitasun profesionalak.
 - Bitartekaritza zerbitzua gazte horien eta Arabako enpresa eta instituzioen artean, azken hauek dauzkaten beharrak eta haiek eskaintzen dituzten profilak bateratzen laguntzeko.
 - Berariazko laguntzak etorrera eta finkapen prozesuan laguntzeko.
- » Arabako Foru Aldundiaren Enplegu Sailak programa bereziak sustatuko ditu 55 urtetik gorakoen kontratazioa bultzatzeko.
- » Ekonomia sozialeko proiektuak, proiektu kooperatibistak, enpresa txiki eta ertainak sortzeari begirakoak eta emakumeek, gazteek eta migratzaileek sustatutako proiektuak lehenetsiko dira dirulaguntzen deialdietan.
- » Aurrekoarekin bat etorritik, eredu kooperatiboa gizarte eredu gisa sustatzearen aldeko apustua egiten dugu. Dikotomia publiko-pribatuaren aurrean, komunaren ereduak: langileek akziodungoan eta erabakiak hartzeko organoetan parte hartzen duten enpresak.
- » Dirulaguntzen deialdietan klausula sozialak ezarriko dira, honako helburuekin: sexu arteko soldata arrakala edota iruzurrezko kontratazioak ekidin, euskaldunon hizkuntz eskubideak bermatu, sexu orientazioagatiko edota jatorriagatiko edozein bazterkeria mota saihestu...
- » Arabako Foru Aldundiaren Ekonomia Garapenaren Sailak prospekzio lan proaktiboa egin behar du enplegu eta jarduera aukera berriak antzeman eta horiek sustatzeko.
- » Toki Enplegu Planak jorratuko ditu Aldundiak langabezia tasa handienak dituzten udalerrietako toki erakundeekin eta eragile sozioekonomikoekin batera eta Eusko Jaurlaritzaren inplikazioarekin.
- » Aiaraldeak, bere ezaugarri propioak direla-eta (biztanleria, langabezia tasa, industriaren eragina bertako ekonomian, tutugintza sektorearen etorkizun zalantzagarria...) plan berezia behar du enpleguari dagokionez ere, orain arteko PAI eta PECn ezarritako helburuetatik haratago joango dena.